ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-06-24
ASTELEHENA
415. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM


LEIRE KORTABARRIA

## "Ikastetxetik kanpo euskara baliatzeko egiazko aukerak sortu behar ditugu"

**Erramun Osa** | Euskaltzaindiko kidea | 7

Ganbara Txikik 'Tiempo' musikala aurkeztu du herritarren aurrean | 32



Aramaioko Azkoaga eta Barajuen, auzolanaren erakusle | 20



Debagoiendarrek maila ona erakutsi dute hiruko saskibaloi torneoan | 24

# Iazko ezina, aurten egina

Arantzarik ez da jada gazte arrasatearren artean; garabiaren laguntzarik gabe, euren kabuz jaso dute aurten makala. Horrekin, erabat lehertu da Arrasaten festa. | 12


Gazte koadrilak Zurgin kantoitik gora, Herriko Plazarako bidean.
JOSETXO ARANTZABAL

## Eguneroko lasai eta konplikatuan, 15 urtez Urbiako fondan

1999an lantegiko lanpostu finkoak utzitakoan ekin zioten abentura berriari egungo maizterrek | 2


Aritz Altube eta Ruper Altzelai, Urbiako fondan. | JULEN IRIONDO

## Beñat Rezusta pilotari bergararra gaur estreinatuko da profesionaletan, Eibarren | 26

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 30 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

# Burrundaratik lasaitasunera, erosotasunetik konplikaziora

- Duela 15 urte iritsi ziren egungo maizterrak fondara
- Asko aldatu zaie bizitza Urbian, baina pozik daude



Aritz Altube eta Ruper Altzelai, Urbiako fondan. | JULEN IRIONDO

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Zenbateraino dauden pozik eta Urbia nola maite duten ohartzeko, hona hemen, ezer baino lehen, pasarte dibertigarri bat, Aritz Altubek kontatua; fondakoek azaroan hartzen dituzte oporrak, hilabete inguru: "Lehenengo aldiz bidaian joan ginenean, Argentinara, hango gauza berezi horiek ikusi genituen: glaziarrak, Iguazu, Patagonia... gauza ikusgarriak. Bilbon hegazkinetik jaitsi ginenean, kotxean gentozela Ruperri galdetu nion ea zer zen Argentinarako bidaiatik gehien gustatu zitzaiona, eta esan zidan gehien gustatu zitzaiona izan zela Bilbora iritsi aurretik hegazkineko leihotik Urbia ikusi izana". Ez dago ezer gehitu beharrik, ala?

1999ko urtarrilean hartu zuten fondako ardura Ruper Altzelai eta Mikel Altube oñatiarrek, lantegiko lanpostu finkoak utzita. Eta abenturara batu zitzaizkien Ruperren anaia Kepa, eta Aritz, Mikelena. Eurak dira egunero fondan izaten direnak –maiatzetik azarora; neguan asteburuetan bakarrik irekitzen dute–, han bizi dira –behar gehieneko egunetan hiru neska ere joaten dira lanera–.

Gustura daude bere garaian hartutako erabakiarekin, eta, hori, dena ez dela erraza han goian: "Ohituta botoia sakatu eta argia piztera, ba hemen ez da horrela". Ohiko elektrizitate gabe, generadore bidez lortzen dute fondan, eta horrek mantenua eskatzen duela dio Ruperrek: "Sukaldean ere ezin duzu frijigailurik edo beste jatetxeetako edozein aurrerapen jarri". Eta Araiatik –13 kilometrora; edo Gasteiztik– joan-etorriak autoz, generoa erostera –egunerokoa, ez baitute izozkailurik; ogia ere egunean egunekoa– edo zaborra botatzera. Hori elurrak uzten badu –maiatzaren 29an, oraindik, bost zentimetro pilatu ziren–: "Negu honetan ezin izan dugu lau hilabetean autoz etorri, eta egunero ibili behar izan dugu Arantzazutik bueltaka, gauzak ekartzeko, asto-lanean", dio fondako gazteenak, Aritzek –18 urte zituen hara joatean–. Eta gogoan du, orain hamar urte inguru, dena zuri zuri, Arantzazutik Urbiara lau ordu behar izan zituztenekoa. Ermitara iritsi, eta aurrera egitea kostatzen ari zitzaiena ikusita behera itzultzekotan egon ziren, fondatik ehun metrora egon arren. Pentsa.

Eta ostalaritzako jardunak dakartzan berezko lanez gain, beste batzuk ere egin behar izaten dituzte: "Gero eta gehiago dira hildakoen errautsak Urbian zabaldu nahi izaten dituztenak, eta horrek antolaketa lan bat eskatzen du, adineko jendea ekartzeko... Edo, adibidez, aurreko asteburuan, ganadu bat zulo baten sartuta zegoela eta ateratzera joan ginen gauez". Hala kontatzen du Ruperrek.

**Bestelako ezustekoak ere bai**

Baina ez da ganadua bakarrik Urbian ezustekoren bat edo beste izaten duena; bi hankakoek ere izaten dituzte, elur eta laino egunetan noraezean ibiltzea, adibidez: "Galdu-galdu ez zara egingo, baina apur bat urduri jarriz gero... Deitu izan digute, esanez hona bidean datozela baina ez dakitela non dauden, eta bila joan behar. Kepak eta Ruperrek oso ondo ezagutzen dute ingurua, eta azalpen gutxirekin segituan jakiten dute non dabiltzan". Eta gehitzen du Aritzek berak: "Gogoan dut nola behin, goizaldeko hiruretan, logelako kanpoko atea jo zigun batek; euria zen goian-behean, galduta ibili zela eta zetorren hotzak, bustita eta neka-



Neguko egun bateko kolore festa Urbian. | J.I.

**ESANAK**

"Ohituta gaude botoia sakatu eta argia piztera, ba hemen ez da horrela"

"Ganadu bat zulo baten sartuta zegoela eta hura ateratzera joan ginen gauez"

"Hildakoen errautsak Urbian zabaldu nahi izaten dituzte gero eta gehiagok"

RUPER ALTZELAI | FONDAKOA

**ESANAK**

"Negu honetan ezin izan dugu lau hilabetean autoz etorri, eta asto-lanetan jardun dugu"

"Goizaldeko hiruretan etorri zitzaigun bat, galduta ibilita, hotzez, bustita eta nekatuta"

"Laino egunek-eta ere badute euren xarma, txakurrekin buelta egin, perretxikotara..."

ARITZ ALTUBE | FONDAKOA





Aritz Altube, suari egurra botatzen. | J.I.



Urbiako fonda aurreko eguaztenean, ekainak 19. | J.I.



Urbiako fonda, aurtengo otsailaren 8an. | J.I.

tuta. Sartu genuen barrura, sutondoan butakan etzan zen eta hurrengo goizera arte".

Galduta iritsi eta sutondoko butaka modukorik ez. Logelak ere badituzte, ordea, fondan. Hogei lagunentzako dute lekua, maiatzetik azarora eskaintzen dituzte oheak, eta udako hilabeteetan ia egunero izaten ei dute norbait lotan, asteburu askotan beteta ere egoten omen da –Oñati bertakoak ere joaten ei dira–. "Gauez ere buelta bat eman eta izarrak ikusteko". Ez da plan txarra.

Doazenak pozik itzultzen omen dira etxera, eta eurak gustura geratzen. Horrek balio die. Jendea gustura egoteak, eurak, bestela, badaude eta Urbian: "Gustura egoteko lekua da. Urbian modukо lasai inon ez zara egoten.

Eguraldi onarekin ez da tarte askorik egoten, baina laino egunek-eta ere badute beren xarma, eta txakurrekin buelta bat egiten dugu, edo perretxikotara...".

Une horietan eurentzat bezala, bisitarientzat ere deskonektatzeko leku ona da Urbia, telebistarik, wifi-rik, telefono estaldurarik gabeko lurraldea, nahiz jendeak galdetu maiz halakorik ba ote den. Fondan jartzeko kartel berria egin duela dio Aritzek, zera jartzen duena: "Ez dago wifi-rik, ez dago koberturarik: utzi telefonoak eta egon lasai!

**Erreportaje osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Javier, Patxi, Leandro eta Pako, ohiko koadrila Urbiako fondan. | J.I.

## Ruper-eta jaio aurretik ere han zebiltzanak

Segura eta Zegamako koadrila da Javier, Patxi, Leandro eta Pakok osatutakoa. Oltzan pasa zuten aurreko astea, Partzuergoaren txabola bat alokatuta: "Aizkorrin gosaltzea genuen gaur programan. Aizkorrira igo, arrautza parea eta txorizoa prestatu han bertan eta jatea, baina bihar joan beharko dugu", zioen euretako batek. Eguraldiak hondatu zien plana, baina ez zeuden ba batere gustura fondan: "Jaiero etortzen naiz ni, ahal dela. Sua eta babesleku ona egoten dira hemen", zioen Leandrok.

**MIKEL ETXEZARRETA**
URBIAKO ARTZAINA

## "Mendian behar izaten da halako zerbait, juntatzeko leku bat da fonda"



J.I.

Zegamarra da Mikel. Maiatz bukaera aldera igotzen da txabolara, eta Domu Santu egunera arte egoten bertan. Lotura berezia du, beraz, Urbiarekin, noski, eta baita fondarekin ere. 1925ean eraiki eta urte batzuen buruan salgai jarri zuen Partzuergoak –Gipuzkoako eta Arabako hainbat herri batzen dituen elkartea da, egun ere, Urbiako ondasun guztien jabea–. Mikelen familia egon zen ordutik fondan, 50 urte baino gehiagoan, 1993 urtera arte.

**Fondaren berri badu zuen familiak; zuen tartetik, zeintzuk ibili izan dira hemen?**
Aitonak erosi zuen, eta gero jarraitu zuen izeba Justak; osaba Martinek, gure aitak ere laguntzen zien. Osaba Martin erretiratu zenera arte gure familiakoek eraman dute hau.

**Berezia da Urbiako fonda zuretzako?**
Bai. Leku erakargarria da. Mendian behar da horrelako zerbait. Juntatzeko leku bat da.

**Egunero etortzen zara, edo noizean behin besterik ez?**
Egunero ez, baina tarteka astia dugunean bai, egiten ditugu buelta batzuk.





Iñaki Beristain eta Jon Sarasua, azken honen hitzaldian. | IMANOL SORIANO

# Kultura eskaintza indartzeko asmoz

**IURE EIZAGIRRE** | OÑATI

Zapatuan 30 pertsona inguru batu ziren Arantzazuko Adiskideak elkartearen urteko batzar orokorrean. Iazko jarduera aztertu eta diru kontuak argitu zituzten.

2014ari begirako kultura proiektuak ere aurreikusi zituzten. "Musika, adibidez, garrantzitsua da Arantzazun eta datorren urterako abesbatzen lehiaketa bat antolatu genezake", adierazi zuen Iñaki Beristain *Arantzazu* aldizkariko zuzendariak. Aurten zenbait tailer egin dituzte eta mota horretako proiektuak areagotu behar dituztela adierazi zuen. Komunikazioan, webgunea berritu eta buletina berreskuratuko dutela iragarri zuten.

**Jon Sarasua, krisiaz**

Batzarrari izaera berezia eman nahian, Jon Sarasua irakasle eta ikerlariak hitzaldia eman zuen krisiari buruz: "Turbulentzia finantzarioaren atzean krisi sistemiko sakon baten zantzuak daude eta nagusiki horren norabidea, gizartea noruntz doan eta zein helduleku dituen aztertu dut", azaldu zuen Sarasuak.

JOAN ZAIGU

## Antonio Irazola zinegotzi ohia hil da Bergaran

Antonio Irazola bergararra hil zen atzo, domeka. 11 urtez izan zen zinegotzi Bergarako Udalean, Luis Laskurain alkatearekin lehenengo, eta Jose Luis Elkororekin gero, 70. hamarkadan. Hain zuzen, berak jarri zuen ikurrina lehen aldiz Bergarako udaletxeko balkoian, Elkoro alkate zela. 2010ean, Pazkoei hasiera emateko txupinazoa bota zuen. Hileta elizkizunak gaur dira Santa Marina parrokian.



Antonio Irazola. | GOIENA




Iban Arregi, *Berria* Taldeko kontseilari ordezkaria, ekitaldian. | PELLO URZELAI

## Jai handi batekin eman dio amaiera 'Berria' egunkariak 10. urteurreneko ospakizunari

**I.E.** | ARRASATE

Joan den apiriletik dabil *Berria* egunkaria 10. urteurrena ospatzen. Eskualdean ere egin zuen geldialdia bere kultur birak, maiatzaren 25ean Elgetan.

Zapatuan, irakurleekin eta zenbait erakunde eta elkartetako ordezkariekin egin zuen festa Andoainen. Goizean umeendako ikuskizuna eta bertsolariak izan ziren; erredakzioa bisitatu zuten irakurleek; eta ondoren ekitaldia egin zuten. Bazkalostean kontzertuak izan ziren.

**Babesa eskertuz**

Azken urteetan jasotako babesa eskertu zuten *Berria* Taldeko ordezkariek jaian.

Zorionak *Berria*ri Goiena Taldearen partez ere.

# 'Mardo' ere gogoan izan dute aurtengo Aretxabaletako Elkartuz Herrira ekimenean

Presoen eskubideak gogoan egin zuen zapatuko ekimena Herrirak

**OIHANA ELORTZA** | ARETXABALETA

Joseba Larrinaga *Mardo*-ri eguerdian egindako omenaldiarekin hasi zuten Elkartuz Herrirakoek ekimena, zapatuan.

Aretxabaletako Herrirak antolatu du aurten ere Elkartuz Herrira ekimena, eta Joseba Larrinaga *Mardo* izan dute gogoan; Herrirako kide zen *Mardo*. Haren gurasoak, anaia-arrebak eta ilobak izan ziren omenaldi ekitaldian. Emozionatuta jaso zituzten oroigarri moduan eman zizkieten Herrirako kamiseta eta Etxerateko ikurra den kriseilua. Oroigarriak eman aurretik, gutun bat irakurri zuten Herriraren izenean, *Mardo*-ri zuzenduta; eskerrak eman zizkioten presoen alde egindako lanagatik. "Egun hau prestatzen hasiak ginen *Mardo*-k istripua izan zuenean, eta bera omendu gura izan dugu gaur. Familia etorri da eta emozionatu, hunkitu, egin da. Bere anaiak esan dit, esaterako, hauxe zela *Mardo*-ren tokia, hementxe izango zela, eta horrek emozionatu egin duela", adierazi zuen German Arriola Herrirako kideak.

Trikipoteoa, bertso bazkaria, erromeria eta kontzertuak ere izan zituzten Elkartuz Herrira ekimenaren barruan.



*Mardo*-ren senideak omenaldian | IMANOL SORIANO



Arkaitz Oiartzabal *Xamoa*-k eta Jokin Labaienek girotu zuten bazkaria. | I.S.




Euskalgintzako zenbait ordezkari ospakizun ekitaldian. | IRATXE ESNAOLA

## ICANNekin kontratua sinatu eta probak egin ostean, 2014ean egongo da abian '.eus'

**I.E.** | ARRASATE

ICANN erakundeak *.eus* domeinua onartzeak babes handia eman dio euskarari sarean.

Euskararen eta euskal kulturaren Interneteko presentziari izena jarri nahi ziola azaldu zuen PuntuEus Elkarteak domeinua onartu berritan, eta hori berretsi zuen egubakoitzean Bilbon egin zuen ekitaldian.

Euskal domeinuaren borrokak babes eta atxikipen asko jaso du, tartean Goiena Taldearena, eta 2014an egongo da abian euskal domeinua.

**Hurrengo pausoak**

PuntuEusek datozen hilabetetan sinatuko du kontratua ICANNekin, *.eus*-en administrazioa eta kudeaketa bereganatzeko.

Goiena RENT
Ibilgailuen alokairua
AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA OÑATIN
✔ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
✔ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
✔ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
✔ Aireportuko zerbitzua
20 €-tik eguneko
INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com
WWW.GOIENARENT.COM

# Gaurko 'Presoen aldeko kalejira'-rekin "gaizki-ulertua" izan dela dio Udal Gobernuak

## Kendu egin du jaietako egitarautik, epaitegiak bertan behera utzi eta gero

**UBANE MADERA** | ARRASATE

"Argitu nahi dugu asteleheneko kalejira presoen eskubideen aldeko ekimen bat dela, nahiz eta egitarauan *Presoen aldeko kalejira* moduan agertu. Onartzen dugu ekimen hau, agian, jaietako programan oso modu orokorrean dagoela definituta eta hortik sortu dela, gure ustez, gaizki-ulertua". Berba horiek erabili ditu Arrasateko Udal Gobernuak gaurko, sanjuanetako egitarauaren barruan, 18:30erako iragarrita zegoen *Presoen aldeko kalejira*-k eragindakoen aurrean. Horrekin batera, Arrasateko Udalak, bailarako gainontzeko beste udalekin batera, "euskal presoen eskubideen alde hartutako zenbait konpromisoren barruan" kokatu du gaurko kalejira jaietako egitarauan sartu izana. Edozein kasutan –Espainiako Gobernuaren ordezkari Carlos Urquijok Estatuko abokatuari errekurtsoa jartzeko eskatu izanaren ondorioz eta kautelazko neurri moduan– Donostiako epaitegi batek kalejira bertan behera utzi eta gero, Udal Gobernuak jaietako egitarautik atera du, epaia betez horrela. Era berean, adierazi du ez lukeela nahi "halako gaizki-ulertu bategatik herriko jaietako giroa gaiztotzerik".

Arrasateko Sortuk elkartasuna adierazi die kalejiraren antolatzaileari –Txosna Batzordea– eta alkateari, eta gaineratu du debekuaren azken helburua "presoen eskubideen gaia desbideratzea" dela. Arrasateko alderdi sozialistak, bere aldetik, gogor kritikatu du deialdi hori, esanez, besteak beste, ez dela "onargarria" herriko jaiak "ETAko presoak goraipatzeko" erabiltzea.

Txosna Batzordeak, azkenik, manifestazioa deitu du biharko: 18:30ean Seber Altubetik.



BERGARAKO ELIKAGAIEN BANKUA

## Suhiltzaileen dirua, jakietarako

**7.094 euro eman dizkiote Oñati, Eibar, Ordizia eta Legazpiko suhiltzaileek Bergarako Elikagaien Bankuari. Joan den maiatzaren 30eko grebarekin bat egin guran eta, era berean, "beharrizan gehien dituzten kolektiboak" babestu nahian egin dute diru ekarpen hori. Izan ere, greba egunerako legeak ezarritako gutxieneko zerbitzuen ondorioz, suhiltzaileek ezin izan zuten grebarik egin. Bada, "mobilizazioan parte hartzeko, egun horretako soldata ematea erabaki genuen", azaldu dute suhiltzaileen ordezkariek.**



Talde-dinamikak egin zituzten, topaketak borobiltzeko. | AMAIA TXINTXURRETA

# Kooperatibagintzan titulua 100 bat lagunek atera dute

## Ospakizun modura topaketak egin zituzten Arrasaten

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Kooperatibagintzaren I. Topaketa egin zuten egubakoitzean Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Lanki ikertegiak, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Mondragon taldeak eta Otalorak antolatutako ekimena izan da, bi mugarri kontuan hartuta antolatutakoa: batetik, Lankitik bosgarren urtez eraman dutelako aurrera Kooperatibagintzan izeneko aditu titulua eta dagoeneko 100 lagun inguruk atera dutenez titulua, zer ospatua zegoela sentitu dutelako; eta bestetik, kooperatibagintzarekiko sentsible den jendearendako espazio bat eskaini nahi zutelako gogoeta zabalagoa egiteko.

Testuinguru horretan, Mondragoneko Gestio Sozialeko ordezkari Zigor Ezpeletak hitzaldia egin zuen eta, haren ostean, talde-dinamika landu zuten.






Fagor Componenteseko langile batzuk, beharrean. | MONDRAGON KORPORAZIOA

# Mondragon Industrial atzerrian indartu zen iaz

## 4.004 milioi euroko salmentak egin zituen nazioartean, salmenta guztien % 69, eta 11 filial ireki zituen

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Mondragon Korporazioko Industria arloak 4.004 milioi euroko salmentak egin zituen nazioartean 2012. urteko ekitaldian. Horiek arloaren salmenta guztien (5.812 milioi euro) % 69 izan ziren. Oro har, 2011n baino % 2 gutxiago saldu zuen eta "egoera ekonomikoa zalantzaz beterik" dagoela onartu zuen, baina, egoera horrelakoa izanda ere, nazioartean indartsuago dagoela azpimarratu du Mondragon Korporazioak: 11 filial produktibo berri ireki zituen iaz, eta atzerrian 14.000 laguni lan ematen die.

Horrez gain, Mondragonen Industria adarra BRIC (Brasil, Errusia, India eta Txina) merkatuetan hazi dela ere nabarmendu du korporazioak: 2011ko ekitaldiarekiko % 20 inguru. BRIC herrialdeetan bere burua zabaltzea estrategikoa da Mondragonendako.

2012ko ekitaldia itxi orduko, 105 planta produktibo zituen Mondragonek Europan, Txinan, Indian, Mexikon eta Marokon. Bestalde, 2009tik 2012ra, nazioarteko salmentak % 26 hazi dira, eta hamar puntu portzentual inguruko progresioa izan da.

Denetara % 2 gutxiago saldu izana honela azaltzen du Mondragon Korporazioak: "Eskariaren jaitsierak badu eraginik, krisi ekonomikoaren eta kontsumoaren beherakadaren ondorioz". Industria arloaren Ebitda 469 milioi eurora iritsi zen, hau da, salmenta zifraren % 7,8.

Industria sailak korporazioko kooperatiba ezagun eta garrantzitsuenetariko asko batzen ditu; denetara, 100 kooperatiba baino gehiago, gehi horien filialak eta dibisioak. Hor sartzen dira, adibidez, Fagor Taldea, Danobat, Ulma Taldea, LKS, GSR, Mondragon Assembly, Orona eta beste asko.

### Berrikuntzan, 307 milioi

Inbertsioei dagokienez, Industria arloak 307 milioi euro inbertitu zituen, batez ere I+G-ko proiektu berriak garatzeko eta atzerrian produkzio lantegi berriak martxan jartzeko.

Horrez gain, I+G+b atalaren aldeko konpromisoan 160 milioi euro erabili ziren. Mondragonek asmakuntzako 564 patente familia ditu; nazioarteko 91 proiektutan parte hartzen ari da, aeronautika, energia, IKT eta nanoteknologien sektoreetan, besteak beste; eta berrikuntza bultzatzen du. Sarreren % 19 azken bost urteetan garatutako produktuetatik etorri dira.

"Astero, Mondragonek asmakuntzako patente bat erregistratzen du. Horrek ezagutzaren abangoardian kokatzen du Taldea", esan dute arduradunek. Korporazioan 15 erakunde elkartzen dituen zentro teknologiko eta I+G-ko unitateen sare bat dauka, eta esklusiboki I+G gaietan diharduten 2.000 pertsona enplegatzen ditu.

### % 3,9 langile gutxiago

Korporazioaren zifra globalei dagokienez, 12.903 milioi euroko salmentak egin zituen iaz, 2011n baino % 7,6 gutxiago, "batez ere merkatu nazionalaren beheranzko portaeraren ondorioz, hein batean nazioarteko salmenten igoerarekin (% 1) pixka bat konpentsatu bada ere", esan du Mondragonek. 2012an Ebitda 1.289 milioi eurora iritsi zen, hau da, aurreko ekitaldiaren antzeko zifra, eta salmenten % 10aren adinekoa.

Lan-taldea % 3,9 murriztu zen 2012an, eta, batez beste, urtean 80.321 lanpostu izan ziren. "Lanpostuen jaitsieran eragin handia izan du etxearen arloari lotutako negozioen bilakaerak, krisi testuinguruan jarduera murriztu behar izan dutelako eta, ondorioz, baita lanpostuen kopurua ere", azaldu du Korporazioak.

Horrez gain, 2012an egindako inbertsioetan 331 milioi euro erabili ziren, hau da, aurreko urtean baino % 70 gehiago.

Txema Gisasolak, Kontseilu Orokorreko lehendakariak esan duenez, "2012ko ekitaldian, egoera ekonomikoaren zailtasunak gorabehera, berriro ere bultzada handia eman diogu nazioartekotzeari, merkatu berrietan sartu gara eta nabarmen hobetu dugu BRIC merkatuetan dugun presentzia".

# Orain kobratu ez dutena gero kobratuko dute Cegasan

**L.K.** | OÑATI

Kontu-hartzailetza arazo puntuala izan du Cegasa Internacional Taldeak eta, horren eraginez, langileek ez dute maiatzeko nominaren zati bat kobratu; baina arazo hori unekoa izan dela eta kobratzeko dutena "aurrerago kobratuko" dutela esan digute enpresako bozeramaileek. "Langileak ez dira zati hori kobratu barik geratuko", ziurtatu du enpresak.

Joan den eguenean batzarra izan zuen, Gasteizen, Cegasa Internacionaleko zuzendaritzak langileekin eta enpresa -batzordearekin. Bertan, egoera hori azaldu zieten eta enpresaren diru-kontuak langileen ordezkarien eskura jarri zituzten. Enpresa-batzordeko kideen esanetan, nomina osoa kobratu barik geratu dira Oñatiko langileak –70 bat– eta Gasteizkoak ere. Zuzendaritzak egoera ekonomiko eta finantzario orokorrarekin lotu du maiatzeko arazoa.

### Lana badago

LAB sindikatuko ordezkari Ander Gallegoren esanetan, enpresak langileen ordezkarien esku utzitako diru-kontuak aztertzen dabiltza gunotan. Dena dela, Cegasan "lana badagoela" esan du enpresa-batzordeak eta, esan bezala, enpresak ziurtatu du une bateko arazoa izan dela.

## EAEko absentismo tasa (% 4,7), Espainiakoa baino handiagoa

Euskadik % 4,7ko absentismo -tasa izan zuen iaz. Hego Euskal Herriko eta Espainiako batez bestekoa % 4,3koa izan zen, Adecco enpresak Espainiako Estatistika Erakundearen (INE) datuak erabiliz ondorioztatu duenaren arabera. Orokorrean, industriak izan zuen tasa handiena (% 5,1), eta bigarren handiena, eraikuntzak eta zerbitzuek (% 3,7).

## Lan-hitzarmenen gaineko jardunaldia egingo du Adegik bihar

Uztailaren 7an kadukatuko dute oraindik berritu barik dauden Gipuzkoako lan-hitzarmenak. Horren gaineko jardunaldia antolatu du Adegik biharko, martitzena, eta Gipuzkoako enpresetako 300 ordezkarik hartuko dute parte. Hizlarien artean izango da Lan -Zuzenbide katedradun Federico Duran.

## Boliviako enbaxadorea Foru Aldundian eta Arrasaten

Mondragon Korporazioa, Lanki eta Garabide bisitatu zituen martitzenean Boliviako enbaxadoreak, Mari Carmen Almendrasek. Aurretik, ahaldun nagusi Martin Garitanorekin eta Bazkundeko presidente Pello Esnaolarekin batzartu zen. Gipuzkoa eta Boliviaren artean harremana sakondu nahi dute.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**Erramun Osa** | Euskaltzaindiko kidea

# "Hezkuntza-lege propio bat eraiki eta sasoi bateko adostasuna gaurkotu dezakegu"

▸ Hezkuntzaren, hizkuntzaren eta LOMCE legearen gainean berba egin zuen Oñatin Osak

▸ Bere iritziz, Euskadiko hezkuntza-sistemak helburu berriak finkatu behar ditu

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Euskararen, Euskal Herriko hezkuntza sistemen, euskalduntzearen eta LOMCE legearen gainean egin zuen berba Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordeak joan den eguaztenean, Oñatiko EAJk antolatutako hitzaldian. Osaren iritziz, Wert-en erreformari baino gehiago, etxeko beharrei begiratu beharko lioke hezkuntza-komunitateak.

**Lomce delako lege organikoa onartu egin da. Nola baloratzen duzu hori?**

30 urteko tarte batean 7. aldaketa bati buruz hitz egiten ari gara, eta ez da ona horrenbeste aldaketa horren denbora laburrean egitea. Beraz, kezkagarria da. Baina lege proposamen honek badauka oinarrizko beste arazo bat: gutxieneko oinarrizko adostasunik gabe –politikoa, soziala eta, bereziki, hezkuntza-erkidegoarena– jaiotzen dela. Eta, beraz, ez ditu kontuan hartzen ez nazioartean, ez Espainian arrakastatsuagoak diren hezkuntza-sistemak, eta horien ekarrietatike z du ezer jasotzen.

**Euskadiko hezkuntza-eredua Europatik gertuago dago, emaitzei, eskola-porrotari... dagokienez.**

Euskadiko hezkuntza sistema saiatzen da ikasle bakoitzaren bizi-baldintzak zernahi direla (ingurune soziala, ekonomikoa, kulturala, familiarra) haiek orekatzen, eta aukera-berdintasuna guzti-guztiei ziurtatzen saiatzen da. Horregatik dago hain uztetasa baxua Espainiako beste erkidegoekin alderatuta: % 35 ingurukoa da Espainiako erkidego batzuetan, eta Euskadin, % 11,5ekoa. Alemaniaren uzte-tasa % 10,5ean kokatzen da. Aipatzen dira Wert-en legean Polonia, Austria, Herbehereak, Britainia Handia... baina ez da aipatzen Espainian bertan badirela hezkuntza sistemak, eta batzuk besteak baino arrakastatsuagoak direla.

**Oñatin esan zenuenez, luze joko du Lomce aplikatzeak, azkenean aplikatzen bada.**

Oso baikorrak izanik, urtearen bukaera iritsiko da Espainiako Gorteek onartzen dutenerako. Bestalde, legeek makuluak, dekretuak behar izaten dituzte. Eta behin legea onartu eta gero, pentsatzekoa da Kataluniak eta Euskadik konpetentzia kontuak planteatuko dituztela Konstituzio -Auzitegian. Errealistak izanik, 2014/15 ikasturtean abian hartzeko moduan egongo da? Ez dakit. Ikusi izan dugu bestelako neurriak hartu izan dituenean Espainiako Gobernuak, onartu eta urte eta piku behar izan dela. Horrek ez die kentzen saioari eta egiten diren adierazpenei inolako larritasunik, baina gaur egunean izan dezakeen eragin maila nahiko apala da. Baina hemen daukagu gure indarra, eta egin dezakegun horretan jarri beharko genuke gehiago atentzioa. Eta hemen badaukagu aukera, eskumen esklusiboak digutulako, hezkuntza lege propio bat eraikitzeko, eta hezkuntzan bere sasoian gertaturiko adostasun hori gaurkotzeko, helburu berriak lortzearen baitan, eta horrek eskatzen du horretan jarri beharko genukeela; erakunde publikoak, herri -erakundeak, sindikatuak, eragile diferenteak, alderdi politikoak eta hezkuntza-erkidegoan ari diren indar guzti-guztiak.

**Ze helburu finkatu beharko genituzke, bada; zertan hobetu daiteke Euskadiko hezkuntza-sistema?**

Gure hezkuntza-sistemak, ekitateari dagokionez, integrazioari dagokionez, egin du ibilbide bat eta, maila baten, arrakasta handikoa. Hizkuntza eskuratzeari dagokionez, eredugarritzat hartzen da Europan hizkuntza minorizatuak dituzten bestelako hezkuntza-erkidegoetan. Eta hizkuntzaren indarberritzeari dagokionez badaukagu eskarmentua, baina atzerriko hizkuntzen eskuratzeari dagokionez ere, Europako beste lurralde batzuk baino aurreraxeago gaude. Badugu eskarmentu pilatu bat eta horren oinarria izan da hezkuntza-erkidegoan, orobat, egon den gutxieneko adostasun hori.

Baina ikusi behar duguna da zerk ez duen funtzionatzen. Hezkuntzak zerbait gehiago egin dezake: hizkuntzaren indarberritzeari, atzerriko hizkuntza eskuratzeari, gaitasun jakinak lantzeari dagokionez; edo titulartasunaren ikuspegia eraberrituz, ze hor ikuspegia batzuk ditugu eredu nahiko zentralistatik datozenak, Frantziatik eta Espainiatik edan izan dugulako; gerturatzea ikastetxeen titulartasuna tokian tokiko errealitateetara; ikastetxeen autonomia, hezkuntza-proiektu propioak garatu ahal izateko, tokian tokiko errealitatera egokituak.

Badaukagu ibilbide bat egina, baina ibilbide bat eginkizun ere bai. Nonbaiten inbertitu behar badugu, hezkuntzan inbertitu behar dugu, horrek sor dezakeelako etorkizunean izan dezakegun gizartea gizarte kohesionatu bat izatea.



Erramun Osa, eguaztenean Oñatin. | LEIRE KORTABARRIA

**"Gerturatu behar dugu ikastetxeen titulartasuna tokian tokiko errealitatera"**

**"Ikastetxetik kanpo euskara baliatzeko aukerak sortu behar ditugu"**

**Euskalduntzeari dagokionez, beste zer egin dezake hezkuntzak?**

Ikuspegi integratuago bat izan dezakegu hizkuntzen trataerari buruz ari garenean. Etapa batetik bestera gertatzen diren etenak bideratzeko moduak baditugu. Ikastetxe baten dauden hizkuntzen ikuspegi osatu eta oso bat izan dezakegu; baten lantzen ditugun trebetasunak besteetara trasferitzeko saioa egin beharko genuke, eta ez planteatu hizkuntzen eskuratzea modu independentean, baizik eta elkar-eraginean. Bestalde, ikas-materialetan erabiltzen dugun hizkuntza hurrekoa gerta dadila; irakaslegoaren prestakuntza oinarrizkoa izan dadila, eta horrek esan nahi du unibertsitateekin egin behar dela plan hori, eta aukera batzuk ditugu: oso epe laburrean irakasle asko irtengo dira, erretiroa hartuko dutelako, eta irakasle andana sartuko da hezkuntza sistemara. Horrek eskatzen duena da planifikazioan eta aurrera begirakoan gutxieneko adostasun bat.

Orain, ezin diogu hezkuntzari eskatu gizarteko gabeziak konpontzea. Nola da posible ikastola batean eta bestean, kokagune geografikoaren arabera, ikasle batek daukan hizkuntza-gaitasuna horren diferentea izatea? Bistan da tokian tokiko ezaugarriek baldintzatzen dutela hizkuntza-gaitasun hori. Familia-hizkuntza euskara den edo ez den; ingurunean euskara baliatzeko aukerak dituen edo ez dituen... hori erabakigarria da. Hizkuntzaren berreskuratzea gehiegi ardaztu da hezkuntzan egiten den ahaleginean. Horrek eskatzen du ikuspegi zabalagoa izatea eta administrazioan, zerbitzuetan, aisialdian... bestelako jardun aktiboago bat eskatzen du, eskolan edo euskaltegian euskara ikasten dutenek euskara baliatzeko egiazko aukerak izan ditzaten han eta hemen.

**Euskaraz egiteko moduak egokiak iruditzen zaizkizu?**

Pentsatu egin beharko genuke nora arte lortzen dugun gure hizkuntza-eredua adierazgarri izatea, baliagarri izatea, komunikagarritasunarekin lantzea... Nik kezka handiz ikusten dut zabarkeria zabaltzen denean nonahi, edo ustezko euskarazko *tx*-ak txertatuz erdarakadak nonahi azaltzen direnean. Ez dut uste horrek inolako mesederik dakarkionik hizkuntzaren indarberritzeari.

Eta horrek ez gaitu eraman behar kontrol ikuspegi batetara. Eraman behar gaitu beste honetara: denon ardura izan behar duela darabilgun hizkuntza txukuna izatea, hurrekoa, adierazgarria... Aisialdian edo eremu diferenteetan dabiltzanak darabilten hizkuntza horretaz kezkatzea eta kontuan hartzea familiek eta euskaltegietan dabiltzanek egin duten ahalegina, eta horregatik zor zaiela gutxieneko begiramendua. Euskara zerbaitekin lotu behar badugu, atsegingarri gertatzen zaizkigun jarduerekin lotu behar dugu. Euskara ez dadila izan ezeren traba izan, gauzak egiteko bidelagun baizik.

## ZABALIK



**URTZI AMIANO**
http://goiena.net/iritzia/

# Heriotzari aurre hartzea

Heriotzari aurre hartzea; hitz potoloak, izua, ikara eta errespetu itzela eragiten dutenak. Inork ez daki noiz, nola eta non etorriko den. Behin baino gehiagotan etorriko da ate joka eta askotan atea zabaldu ez eta txiripaz edo jakintzaz aurre egin eta ate kanpoan geratuko da, baina zinez diot egunen batean igaroko duela.

Gizakia gogorra bezain ahula da, eta, ahultasun horri aurre egiteko, denboraren poderioz bere bizi baldintzak hobetu eta luzatzeko hainbat tresna, elementu eta zerbitzu sortu ditu. Baina horren aurretik prebentzioa dago; hau da, segurtasun neurriak hartuta, gerta dakigukeenaren probabilitatea jaitsi ahal izango dugu. Denok dakigu munduko prebentzio guztiak hartu arren, bizitza ez dagoela gizabanakoaren eskuetan bakarrik, eta hortxe sartzen dira osasun zerbitzuak (mediku, erizain, laguntzaile...).

> **"Derrigorrezko ikasgai bat bezala jarri beharko lukete hezkuntzan"**

Batzuetan ez da denborarik egoten eta adituen eskuetara iritsi aurretik erreakzionatu beharra egoten da, eta, lehen sorospenetako nozio minimo batzuk izanez gero, ingurukoen bizitza salbatzeko aukera izan dezakezu.

Kasu mordoxka bat ezagutzen ditut, non, ezbehar bat gertatu eta ingurukoak egoeraren aurrean zer egin ez zekitela geratu diren, kiroldegi, lanleku, taberna, mendi, ikastola... Kasu batzuetan, mediku bat parean tokatuta ere ezin daiteke ezer egin, baina, beste askotan, lehen sorospenen nozio minimo batekin heriotzari aurre egin diezaiokegu.

Ez dut ulertzen hain garrantzitsua eta erraza den gai bat hezkuntza munduan adin jakin batetik aurrera derrigorrezko ikasgai bat bezala nola ez duten jartzen.

Gogoan hartu lehen sorospeneko kurtso edo ezagupenekin ingurukoen bizitza salba dezakegula, baina norberari zerbait gertatu eta ingurukoek zer egin ez dakitela geratzen badira...

Beraz, kontzientzia gaitezen, neuk bi urtean behin nire ezagupen minimo hauek birgogoratzen ditut; eta zuk?

## USTEAK USTE

**OIHANA ELORTZA** | oelortza@goiena.com

# "19:00etan Gurianian"

Horixe izaten zen askotan koadrilakook elkartzeko ordua eta tokia. Sasoi baten, hileko bigarren eguenetan. Batzuetan zutik, eta beste batzuetan eserita, abenduko azken egunetan Olentzerok betetzen zuen tokiaren bueltan hartzen genuen tragoa, berriketan. Poteo ostean, afaltzera. Eta afalostean, berriz Gurianera kafea hartzera. Han egoten ziren, beti, zineklubeko lagunak ere, justu beste izkinako mahaian. Egia da *Azken Egunak Gurian* dokumentalean festa giroko irudi asko daudela, baina oso gustukoa nuen taberna haren esentzia ere jasotzen du: ezti potea barra gainean, Esperen ahotsa, tabernan egon ahal zirenen aurpegiak, musika... Gustatu zait, bai.

## KALE INKESTA

# Ze iritzi duzu kopagoaz?



**JOXE RAMON GOIKOETXEA**
ARRASATE

"Ez dut bidezkoa ikusten, eta askoz gutxiago beharrezkoa. Euskal Herri mailako konpetentzia da. Holako kontuak hemen adostu behar dira".



**GORE AZKOAGA**
ARRASATE

"Oso gaizki iruditzen zait; behin medikuak eskatu zidan eta nik dagoeneko nahiko ordaintzen genuela erantzun nion".



**SACRA GARCIA**
ARRASATE

"Nire ustez, gehiegi ordaintzen dugu, ez genuke gehiago ordaindu behar; hala ere, politika kontuetan ez naiz sartzen horren inguruan".



**ASCENSION MARTIN**
ARRASATE

"Oso txarto dagoela uste dut, beti ordaintzea tokatzen zaigu. Ni jada nagusia naiz kontu hauetarako, baina, hala ere, txarto iruditzen zait".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Mikak gara

**Anjel Lertxundi Esnal**
berria.info/blogak/lertxundi/

Ez daukat hitzik, ez dakit nola esan... Hizketan baneuka nahi adina arte... Mingaina banu lagun...

Hitzak falta baititugu gure baitako eta gure baitatik kanpoko mundua esplikatzeko, ahuldadearen aitortza horrek duindu egiten gaitu gu, hobetu egiten ditu hizkuntza eta mundua. [...]

Mitxelenari zor diot hegazti beltzarekin berdintzen gaituen konparazioa: "Mika lapurraren gisa handik eta hemendik bildu dituen hala-holako ondasunei amorruz lotua" bizi den pertsonatzat jotzen zituen errenteriarrak bere burua eta bera bezalakoan lana. Ez da konparazio txarra. Jainkoak ere mika ohoin bat bidali zuen –eta ez kardantxilo eder kantari bat– Axularren bihotzaren bila, *Gero*-ren egilea hil zenean mezaren erdian.

Oharrak (post scriptum):

Bertsio batek esaten digunez, Axular meza ematen ari dela kontsakrazioaren puntu-puntuan, Sarako beretterrak tiro batez hil du. Baina beretterrari "ez diote deusik egin, ez dute preso hartu, atzeman baitute, kalizaren azpian, Axularren letra bat, hartan ematen dituena esplikazio guztiak, eta nola beretterrari, berak manatu dion haren hiltzea, eta zertako". [...]

Bereterrak hil duen gau berean –zerua guztiz izar argi da–, Sarako elizako kanpaiek hamabiak jo eta mundua ordurik gabe gelditzen den hurrengo une doi horretan, hegazti baten hegada sentitu da kanpaien segidan.

Mika batek Axularren bihotza darama mokoan.

# Nola egin guztiok dantzatu dezakegun pogo bat

**Gorka Bereziartua**
argia.com/blogak/boligrafo-gorria/

Denok dantzatu dugu noizbait pogoa kontzertu batean. Denok?

Ez: agertokiaren aurreneko lerroetan bultzaka ibiltzearen zentzua asko aldatu da punkaren sorreratik eta irudipena daukat gure belaunaldiari iritsi zaion ideia zera dela: "Ea nor den indartsuena, ea nork bereganatzen duen espazioa, ea zein den gutako matxoena".

Bestela ere aski maskulinoa den Euskal Herriko panorama musikalean, dantzatzeko modu erasokor horrek emakume asko kontzertuetako lehen lerroetatik atera izan ditu indarka.

Ez zen hori pogoaren hasierako zentzua. Huan Porrah Blanko antropologoak *Negación punk en Euskal Herria* liburuan (Txalaparta, 2006) azaltzen zuenez, dantza hori, errito gisa ulertuta, indarkeria indibidualistaren itxuratze bat zen; baina komunitate zentzuak gaina hartzen zion, bultzada trukean norbait lurrera eroriz gero gainontzekoek altxatzen laguntzen ziotelako, adibidez. [...]

Funtsezko lau printzipio beraz, laburbiltzeko:

1-Elkar igurztea da kontua, ez elkarri erasotzea.

2-Aldakekin eta sorbaldekin bultza, hartara ukalondoarekin jotzea saihesten da.

3-Norbait erortzen bada, denon artean altxatzen lagundu.

4-Elkar ukitu, besteek onartzen badute bakarrik.

Eta ondo pasa, noski, baina besteei gaizki pasarazi gabe.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Goiatz Arana
**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




## GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO EKAINEAN

### KONTSOLA

Wii kontsola dugu zozketatzeko!

EROSKI




**Parte hartzeko**

Wii
BaserriSarea
Arrikrutz
Bertikal
Mihiluze
Liburu sorta

**SMS:** KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

### BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.

Debagoiena BASERRI SAREA



### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

ARRIKRUTZ oñatiko obak




### BAZEN BEHIN... BIZITZA

Bazen behin... bizitza jokoa irabaztea nahi? Bi joko ditugu zozketatzeko.

argia




### BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako. 5 joko ditugu zozketatzeko.

bértiKal




### LIBURU SORTA

Ipuinez osatutako umeentzako bost liburu sorta bikain.

argia PAMIELA



**DESKONTUAK:** ***www.goienakluba.com***

NINIKA LORADENDA | ALZU | Esko Sport | JAIXAK disfrutatzeko oparixak | LILURA EDERTZE INSTITUTUA | lastai
AVIA | BEGIONDO | Etxe-Aundi Hotela · Jatetxea | gahir fisioterapia osteopatia | GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak | Guztiz Ederra
multiópticas lehena zerbitzu optikoetan | ARRIKRUTZ oñatiko obak | IMPRESPAL INPRIMATEGIA | kuttuna ESTETIKA ZENTROA | Izotz Jauregia TXURI-URDIN | naren
Biotika | caravanas oñate | DONOSTIA SAN SEBASTIAN AQVARIVM | PEUGEOT OÑATI GARAJEA | eureka! zientzia museoa | argia



## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba“
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Ixidro Palacin** | EAJko Kirol eta Gazteria zinegotzia Oñatin (1991-1995)

- Hiru hilabete zituela guraso eta anaiekin etorri zen Oñatira; Moralejan (Caceres) jaio zen
- Erretiratu zenetik, Pake Lekuren, antzerkiaren eta biloben artean banatzen du denbora
- Aloña Mendin futbolean aritzeaz gain, pilotan Gipuzkoako afizionatu mailan lehiatu zen

# "Udalean eman nituen lau urte haietan, nire burua herritar moduan ikusten segitu nuen"

**IMANOL GALLEGO** | OÑATI

Ixidro Palacin (1948) saltsa guztietako perrexila da. Irekia, zintzoa, alaia... *Ez* hitza gutxitan erabiltzen duen pertsona horietako bat da. Familia Cacerestik etorri arren, berehala Oñatira egin eta bizimodua hemen egin du. Extremaduratik herrira etorritako lehen familia izan zen, eta aurrenekoa izatea gogoko duela dirudi: ETEOko garaiko peritaje merkantil diplomaturako lehen promozioa ere izan zen. Cegasa eta Ulma enpresa oñatiarrak barrutik ezagutu ostean, bere esperientzia eta prestutasuna Udalean erakutsi zituen.

**Aukera ausarta egin zenuen. Lana zeneukan, familia... Hala ere, zinegotzi izateko hautagai aurkeztu zinen; zergatik?**

Ez zen aukeraketa bat izan. Nik ez nuen lana utzi, Ulman lanean jarraitzen nuen bitartean bete nituen zinegotzi karguaren eginbeharrak. Egia esan, ez zen inoiz nire planen barruan egon, baina animatu egin ninduten, eta, kirol mundua ongi ezagutzen nuenez, laguntzeko aukera ikusi eta proposamena onartu nuen.

**Familiak nola hartu zuen politika mundura egindako saltoa?**

Nik ez nuke *politika* hitza erabiliko. Udalean eman nituen lau urteetan nire burua herritar moduan ikusten segitu nuen. Kirol arloa ezagutzen nuelako onartu nuen zinegotzi kargua, ez EAJn karrera egiteko.

**Herri txiki batentzat lan egiteak arlo onak eta txarrak izango ditu.**

Alde batetik, herria eta haren beharrak ezagutzeko aukera ematen du. Bestalde, gertutasun hori, kritikak jasotzeko orduan, igarri egiten da. Jendeak kritika gehienak nire lana hobetzeko egiten zizkidanez, ongi hartzen nituen. Lau urte haien balorazioa oso positiboa da.



Realeko jarraitzaile sutsua den arren, kirol moduan pilota gustatzen zaio. | IMANOL GALLEGO

> "Kirol arloa ezagutzen nuelako onartu nuen zinegotzi kargua"

> "Oñati herri kirolaria da; zorionez, jende asko mugitzen duen arloa da"

**Duela 20 urte, kirolari gaur egungo garrantzi bera ematen zitzaiola esango zenuke?**

Baietz esango nuke. 1991rako garrantzi handia zuen. Oñati, zorionez, herri kirolaria da eta jende asko mugitzen duen arloa da kirola.

**Azpimarratzekoa da Oñatin bezalako herri txiki batean kirolak duen indarra.**

Horrek asko pozten nau. Inguruko edozein probatan oñatiar ugari izaten dira beti. Hori, Aloña Mendi klubari zor diogun zerbait da. Ez nago ziur, baina bederatzi kirol bateratzen dituen kluba dela uste dut.

**Kirola eta gazteria batera doazen arloak dira?**

Agintaldia hasi genuenean, ez zegoen gazteria jorratzen zuen zinegotzigorik, eta guk sortu genuen. Gu Udalera iritsi aurretik, herrian gaztetxe bat zegoen. Gure ustez, ez zen behar bezala kudeatu eta gaztelekua sortu genuen. Gazteek batzeko toki bat behar zuten, eta, aldi berean, alkoholik eta tabakorik gabeko gune bat nahi genuen. Ez zen proiektu erraza izan, baina gazteleku kuriosoa egin genuela uste dut. Urteek arrazoia eman digute, oraindik martxan segitzen du-eta.

> "Gazteek batzeko tokia behar zutenez, gaztelekua sortu genuen"

> "Agintaldi osoa murrizketak egin gabe igarotzea lortu genuen"

**Kiroldegiak kirolaren muina izan behar du?**

Ez beti; Oñatiren hedaduragatik ezinezkoa zen kirol eskaintza guztia kiroldegian zentratzea; horregatik, auzoetako kirol azpiegiturak indartu egin genituen. Zubillagako frontoia konpontzeaz gain, Olakuan eta Etxaluzen dauden kantxak ere atondu genituen.

**Enpresa pribatutik etorrita, udal baten funtzionamendua desberdina dela esango zenuke?**

Nire arloan, gutxienez, bai. Guk dirua antolatu eta banatzen genuen, ekintza gehienak kanpotik antolatzen ziren-eta. Esparru pribatuan, aldiz, ekintza gehienak enpresa barrutik sortu eta kudeatzen dira.

**Partida bakoitza antolatzea lan nekeza izango da.**

Hala da, bai. Garai hartan, gainera, Udalak Oñatiko ur-jauzien kontuagatik zor handia zuen, eta partida bakoitza nori eman eta nola kudeatu behin eta berriro begiratu beharreko kontua zen. Hala ere, agintaldi osoa murrizketak egin gabe igarotzea lortu genuen.

**20 urte pasa ondoren, egindako lanarekin gustura zaude?**

Gaztelekuaren kasuan, agerikoa da. Kirol arloan, aldiz, herriak ez du atzera egin eta zerbitzuak hobetzen joan dira.





SHENG XING YUAN
Wok Sheng Xing Yuan
Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.
San Andres auzoa • ARRASATE
943 79 90 29 • 629 41 59 58

Eskaintza
- Itsaski-janak
- Frijituak
- Plantxa
- Sushia
- Parrilladak
- Menua, postrea barne.





10 menu hartuta, 1 DOAN.

Ondo pasa San Juanetan!

# HERRIAK



Belar-Metako dendaria erosle bati poltsa ematen. | IMANOL GALLEGO


Ikerketa egin duten Huheziko sei ikasleak. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Kaleko kartelak. | I.G.

ARETXABALETA

## Gazteleraren indarra kaleko hizkuntza paisaian

▸ Huheziko ikasle talde batek herriko hizkuntza paisaia aztertu du

▸ Loramendik itzulpen zerbitzua eskaintzea proposatu dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA

*Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza zen* Ruper Ordorikaren abestiak dioen ideiatik abiatuta, Aretxabaletako hizkuntza paisaia arakatu du Huheziko ikasle talde batek. *Jarduera soziokulturalak, proiektuen kudeaketa* ikasgaiko proiektua izan da, hain zuzen, ikasleek egin dutena. Lur Gurrutxaga, Jone Ojea, Josu Retolaza, Maite Galdos, Itziar Senperena eta Joana Eizagirrek Loramendi Euskara Elkartera jo zuten proiektua egiteko. Euskara elkartean bi gai zituzten esku artean; horietako bat, hizkuntza paisaiarena.

**Erabilitako metodologia**

Sei ikasleak Aretxabaletako Udaleko Euskara teknikariarekin harremanetan jarri ziren. Hala, ikerketa abian jartzeko, Udala eta Loramendi elkartearen izenean gutun bat prestatu zuten komertzioetara bidali eta ikerketaren berri emateko.

Ikerketa hiru zatitan banatu dute: komertzioetako kartelak, eskaintzak, menuak, makinetako kartelak... ikusi dituzte batetik; bestetik, kaleko kartelak aztertu dituzte; eta, azkenik, etxean jasotzen dugun publizitatea aztertu dute.

**Errotulazio ia dena euskaraz**

Ikerketako emaitzak aztertzerakoan, hainbat puntu nabarmendu dituzte. Alde batetik, komertzioetako errotulazioa ia erabat euskara hutsean dagoela azaldu dute. Hori horrela dela uste dute, besteak beste, Udalak diru laguntzak ematen dituelako errotulazioak euskaraz jartzeko. Baina komertzioek egiten dituzten eskaintzak, aldiz, ele bitan izaten dira. Menuak ere ele bitan edo gazteleraz izaten dituzte, eta makinetako errotulazio ia dena gaztelera hutsean dago.

Kaleko karteletan hiru eredu ikusi dituzte: "Gazteleraz jarritakoak norbanakoek jarritakoak izaten dira, Udalak jarritakoak ele bitan izaten dira, eta euskara elkartearen kartelak edo jaietakoak euskaraz izaten dira", diote.

Nabarmentzeko datua, baina, publizitatean jaso dute: euskara hutsean ia ez dago publizitaterik.

**Proposamenak egin dituzte**

Aurrera begira, hainbat proposamen egin dituzte emaitzak aldatzeko: adibidez, Loramendi elkartetik itzulpen zerbitzua eskaintzea. Gainera, emaitzak jendaurrean erakusteko asmoa ere badute.

Loramendi elkartekoek adierazi dute, emaitzak ikusita, kezkatuta egoteko arrazoiak bazituztela. Honi buelta emateko zerbait egin beharko dutela diote, eta Udalarekin norabide berean lan egitea dela egokiena gaineratu dute.


**ANGEL MARI ETXABE**
HERRITARRA

"Jakinekoa bada euskaraz ez duela egiten, zuzenean erdarara jotzen dut. Bestela, taberna eta dendetan euskara erabiltzen dut beti".


**IDOIA ELEXPURU**
DENDARIA

"Bai, nire lehenengo hitza euskaraz izaten da beti, eta erantzuna ere euskaraz izaten da. Beste herri batzutan erdarara jotzen dut gehiago".


**JON KEPA ZUBILLAGA**
TABERNARIA

"Bezeroaren arabera erabiltzen dut nik. Ezagunak direnean, euskaldunekin euskaraz, eta erdaldunekin erdaraz. Gainerakoekin zain nago".

**MAITE GALDOS**
IKASLEA

### "Etxean jasotzen dugun publizitate ia dena gazteleraz dator"


A.E.

Huheziko ikasle talde batek Aretxabaletako hizkuntza paisaiaren gaineko ikerketa egin du.

**Zergatik erabaki zenuten ikerketa hau egitea?**
Proiektua egiteko Loramendira jo genuen. Han, bi gai proposatu zizkiguten: bat hizkuntza paisaiarena zen. Gu ere kezkatuta geunden gaiarekin eta ikertzea erabaki genuen.

**Nola egin duzue lana?**
Hiru zatitan banatu dugu: batetik, taberna eta komertzioetako paisaia aztertu dugu; bestetik, kaleko kartelen hizkuntza; eta, azkenik etxeetara heltzen den publizitatea.

**Zeintzuk izan dira ondorioak?**
Publizitateak asko harritu gaitu. Etxean jasotzen dugun ia guztia gazteleraz dator. 90 publizitate inguru aztertu ditugu eta bi bakarrik daude euskara hutsean; 16 ele bitan daude eta gainontzekoak gazteleraz. Askotan titularra euskaraz izan arren, barruko dena gazteleraz izaten da.

ARRASATE

# Ederto joan da sanjuanetako asteburua eta falta da oraindik

- Dragoi Jana, makala jasotzea eta Errementari dantza izan dira ekintza jendetsuenetakoak
- Atzokoaren ostean, gaurkoa, San Juan eguna, izango da arrasatearrentzat jai egun handia

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Lan astea bukatzeaz batera, egubakoitz arratsaldean, hasi zen jai giroa gailentzen, apurka, Arrasateko herriko kaleetan: errubera gainean erakustaldia egin zuten hainbat gaztek, Nafarroa Etorbidean; musika eta dantza saioa txikiek, Amaia antzokian; eta eztarria urratu arte kantuan egin haur, gazte eta helduek, Jose Letona plazan Lurtaro taldearekin egindako kantu afarian. Taldeko musikariek entzule izatetik kantari izatera pasarazi zituzten herritarrak, eta gogotsu jardun zuten guztiek, 60 abestiko liburuxka eskutan hartuta proposamenak eginez, hasi Iparragirretik eta Zea Mayseraino.

**Dragoi Janean ere presarik ez**

Lasai esnatu zen zapatua, baina orduek aurrera egin ahala jendez betetzen joan ziren kaleak, eta jende asko arrimatu zen Herriko Plazara, parrillan erretzen ari ziren dragoi okelaren usain goxoak erakarrita. 300 lagun batu ziren afaritara, ohi baino gazte gehiago tartean; prezioa merkatu izanak izango zuen horretan eraginik. Ohi baino gazte gehiagorekin, beraz, eta ohi baino patxada handiagoz ospatu zuten Dragoi Jana, hilaren 24an beharrean 22an ospatuta, egitarauak arnasa hartzeko aukera eman baitzien bertaratutakoei. Beste urte batzuetan baina patxada handiagoz gozatu zuten jan-edanez eta baita afal ondorengo egonaldiaz ere. Arrakasta izan zuen tribial erraldoiak eta baita bertso jaialdiak ere, okerrera egindako eguraldiagatik udaletxeko arkupetan bukatu behar izan zuten arren. Euskal giroa berpiztu gura izan zuten, eta bai lortu ere.

**Benetako festa**

Atzo lehertu zen, baina, benetako festa. Goizeko lehen orduetan etxera erretiratu ezinik gazte dezente zebiltzan arren, asko eta asko izan ziren parranda botatzeko San Juan bezperaren zain egon zirenak; eta eguna ailegatuta, 12:00etarako hasi ziren txosnagunera hurbiltzen. AEDren 30. urteurrena dela-eta, euskara elkartekoek izan dute aurten txupinazoa botatzeko ohorea eta Eñaut Muxikak jaurti zuen, *sanjuanetan ondo ibili eta euskaraz gozatu!* bertsotan kantatu eta gero.

Koadrilen eguna izan zen atzokoa eta kamiseta laranjekin jantzitako gazteekin bete egin zen Uarkape pilotalekua herri bazkarirako. Egiaren ordua iritsi zen orduan, iaz barruan geratutako arantza ateratzekoa: gazteek euren kabuz makala jasotzekoa. Txopopoteoan motorrak berotuta, airoso egin zuten Herriko Plazarainoko ibilbidea, Zurgin kantoitik parrokiara arteko izkinan maniobra batzuk egin behar izan zituzten arren. Herriko Plaza gainezka zegoen ordurako eta, aurreikusi moduan, bi polearekin beharrean hirurekin eta soilik 60 lagunen artean, jaso zuten makala eta atera zuten arantza; zutitu eta berehala ez zuten baina enborra zuloan sartu eta une batez hustu egin zuten plazaren alderdi bat, segurtasunagatik. Hortik aurrera izan ziren txaloak, algarak eta kantuak; ostean sua eta dantza eta danborrada. Eguaztenera bitartean gehiago; eta bereziki gaur, San Juan egunez.

**Argazkiak eta egitaraua:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Jendetza batu zen herriko bazter denetan domeka iluntzeko Errementari Dantzarako; ord



Herriko Plazako parrilletan okela erretzen, Dragoi Janerako. | IMANOL SORIANO



Bonba japoniarretako opariekin. | J.A.



**NAIARA ZABARTE ETA MARTA CALDERON**

"Dragoi Janera etortzen garen lehen aldia da eta gogotsu gaude. Dragoi okela gogorra edo samurra den ez dakigu, baina laster jakingo dugu. Biok bakarrik etorri gara, lagunak etxean geratu dira-eta biharko erreserbatzen".



**INESA UGALDE ETA MARIA ARANBURU**

"AEDtik etorri gara. Mahaiak jartzen-eta lagundu dugu eta afaldu berri gaude. Orain pare bat aste ekarri genuen dragoia Murutik eta puntu onean zegoen okela. Gustatzen zaigu Dragoi Janean egoten den giroa".



**AMAIA BEREZIBAR, ETA ARAITZ ETA MIKEL ARETXAGA**

"Urtero etortzen gara Dragoi Janera, plan polita da lagunekin edo familian etortzeko, eta aurten ere bai, azkenean eguraldiak lagundu du-eta. Idi txuleten antzerakoa da dragoiaren okela, ona dago, eta gosetuta etorri garenez, gainera, ez dago aitzakiarik".



Los Chikos del Maiz taldeak gazte arrasatearrak bereganatzea lortu zuen. | I.S.



Kantuan ez ezik, dantzan egitera ere animatu ziren herritar batzuk bariku gaueko kantu afarian. | I.S.



urako Herriko Plazara bidean zen dragoia bera ere. | JOSETXO ARANTZABAL



Ohiturari jarraituz, herritar askok –argazkiko Udal ordezkariek tartean– ez zuten Salvean hutsik egin nahi izan. | J.A.



Laranja kolorez jantzitako gazteek umore ona eraman zuten Uarkape frontoira. | J.A.



**EÑAUT MUXIKA**

"Txosna Batzordeak AED aukeratu du txupina botatzeko; keinu polita izan da. Aukera ona da, gainera, gazteak euskarara hurbiltzeko".



**ENERITZ, OIHANA, AINHOA, LEIRE ETA NEREA**

"Bariku eta zapatuan apur bat baino ez gara irten, San Juan bezperan behar den moduan egoteko, hauxe da-eta egunik onena. Gaur, hori bai, eguerditik hasita aprobetxatuko dugu eguna: triki-poteoan, herri bazkarian... denean egongo gara".



**MICHAEL, GORKA, ADEI, GORKA, MARKEL ETA JON**

"San Juan bezperan urtero hartzen dugu parte Txopo-poteoan eta herri bazkarian, eta aurten ere primeran joan dira bai bat eta bai bestea. Ederto hasi ditugu jaiak eta, bukatu bitartean, egunero izango gara kalean gerra ematen. Gora sanjuanak!".

BERGARA

# Aranzadiren jaialdiak kantuan eta dantzan jarri zuen pilotalekua

Harmailak bete egin ziren eta askok zutik jarraitu behar izan zuten emanaldia



Ikasle talde bat, erakustaldia egiten. | GOIATZ ARANA



Gogotsu jardun zuten kantuan gurasoek ere. | G.A.

GOIATZ ARANA | BERGARA

Bergarako Aranzadi Ikastolak kurtso amaierako jaialdia egin zuen barikuan, Udal Pilotalekuan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiez gain, DBH eta Batxilergoko hainbatek ere parte hartu zuten, eta eurekin batera baita guraso talde batek ere; 400-500 lagun guztira. Euren kantu eta dantza saioak jarraitzera, berriz, jendetza joan zen: harmailak beteta, askok zutik jarraitu behar izan zuten emanaldia.

Ikasleek *Harlem Shake*, *Hona bostekoa*, *In my mouth*, *Baby*, *Yellow submarine*, *Checherecheche*, *Urtuko nauzu*, *Udako gau luzeak* eta *Behin betiko* taularatu zituzten. Kantuan eta dantzan egin zuten, nork bere saiorako jantzi egokiak aukeratura, gainera. Gurasoek, berriz, *We are the World* eta *Euskara Plazara* aukeratu zituzten euren saiorako. Eta egiteko horretan, bidelagun izan zituzten txistua, biolina edota ukelelea. Publikoak bat egin zuen protagonistekin eta borobil irten zen dena. Miren Castelo eta Alazne Etxabarrik aurkeztu zuten jaialdia eta, tartean, marrazki lehiaketako sariak banatu zituzten.

BERGARA

# Egun osoko festa eta algara Gorlako kantinan

Modu horretan agurtu dituzte lagunek 13 urtez haren ardura izan duten Millet eta Gabilondo

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Egun osoko festa zuten antolatuta atzorako, domeka, Gorlan, 13 urtez hango kantinaren ardura izan duten Maria Millet eta Jose Mari Gabilondo agurtzeko. Eta horrelakoa izan zen eguna: egun osoko festa eta algara.

**Kantinak zabalik segiko du**

Euren seme Iñaki Gabilondok kontatu moduan, eguerdirako giro polita zuten Gorlako kantinan. "Bazkaltzeko ere, uste baino jende gehiago elkartu gara, baina denendako egin dugu tokia". Bertsolariekin batera bazkaldu ostean, txotxongilo ikuskizuna egin zuen El Tenderete taldeak. Petti, La Pulga eta beste zenbait taldek, berriz, musika egin zuten, zuzenean.

Naroa Esnal gazteak hartu die erreleboa Maria Millet eta Jose Mari Gabilondori.



Xabier Otamendi bertsotan, bazkal ostean. | GORLAKO KANTINA



Umeek gertutik jarraitu zuten txotxongiloen emanaldia. | GORLAKO KANTINA

OÑATI

# Fermin Altubek bedeinkatu zuen Erretiratuen Eguneko bazkaria

Aurten abadeak berak eta Francisca Altubek jaso dute omenaldia



Omenduak erdian, Udaleko eta Pake-lekuko ordezkariekin. | MIRIAN BITERI



Erretiratu taldea, bazkaltzeko gertu. | M.B.

MIRIAN BITERI | OÑATI

Oñatiko Erretiratuen Asteari amaiera borobila emateko, euren Eguna egin zuten atzo. San Migel parrokian izandako mezaren ostean, Zubikoa kiroldegiko pilotalekurantz abiatu ziren herriko erretiratuak.

Ordurako zain zuten Udal Musika Banda. Emanaldi dotorea eskaini ostean, Francisca Altube (94 urte) eta Aita Fermin Altube (91 urte) omendu zituzten. Emakumeari zapia, lore-sorta eta erloju ederra oparitu zizkioten Udal eta Pake-lekuko ordezkariek; eta gizonezkoari, txapela eta erlojua. Aurreskua ere dantzatu zieten Oñatz taldeko bi umetxok.

**255 lagun bazkaltzen**

Jarraian, dantzarien txanda izan zen, eta horien emanaldia amaitzean, bazkaltzen hasi ziren herriko 255 erretiratu. Aurretik, baina, mahaiak bedeinkatu gura izan zituen Aita Fermin Altubek: "Buen provecho, on egin!", esanez amaitu zuen bedeinkapena. Ekintzak ez ziren bazkariarekin amaitu; izan ere, arratsalde partean, opari zozketa, bertso saioa eta dantzaldia izan zituzten Oñatiko erretiratuek.



ELKAR HEZI

OÑATI

# Kurtsoa agurtu du Elkar Hezik

Eguenetik barikura bitartean egindako ekintzekin itxi dute Elkar Hezikoek ikasturte amaierako egitaraua. Jaialdia, antzerkia, puzgarriak, Iturrigorrirako irteera, zuzeneko musika emanaldiak, afari-merienda eta Elkar Heziren abestiaren aurkezpena egin dituzte, besteak beste. Ikasleak ez ezik, irakasleak eta gurasoak ere elkartu ziren egubakoitz iluntzean Santa Marina plazan egin zuten ekitaldian.



Harrera ekitaldiaren ostean, Ford Mugarriko eta Udaleko ordezkariek talde argazkia atera zuten udaletxeko eskaileretan. | JOKIN BEREZIARTUA

# Ford Mugarriri omenaldia, azken urteetako lana eta mailaz igo izana errekonozitzeko

Udalak harrera ekitaldi xume bat egin zien klubeko ordezkariei; denboraldi berrirako "ilusioz" daude

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak Ford Mugarri eskubaloi taldea hartu zuen joan den eguenean udaletxean, Lehen Nazional Mailara igo izanagatik esker ona adierazteko. Klubeko ordezkariek errekonozimendua eskertu zuten baina, aldi berean, Udalari eskatu zioten herriko klubei "merezi duten garrantzia" emateko.

Ford Mugarrik maiatzaren 12an ziurtatu zuen Lehen Nazional Mailarako txartela, Santoñan. Bi urtez jarraian igoeratik oso gertu egon ostean hirugarren saiakeran heldu zen ondo egindako lanaren saria. Lorpen hori errekonozitzeko harrera ekitaldi xume bat antolatu zuen Udalak. Inazio Azkarragaurizar alkateak taldea zoriondu zuen eta eskerrak eman zizkien jokalariei: "Arrasateren izena kanpoan zabalduko dute eta horrek badu bere garrantzia". Amaitu ostean, banan-banan eman zien eskua jokalariei.

**Klubei garrantzia ematea**

Gero, Ines Azpiazu Arrasate Eskubaloi taldeko presidenteak hartu zuen hitza. Udalaren errekonozimendua eskertu zuen baina, aldi berean, herriko klub ezberdinei merezi duten garrantzia emateko eskatu zuen. Joxerra Askasibar kirol zinegotziak onartu zuen lan asko dagoela egiteko. Klubaren garrantziaz ere egin zuen berba Azpiazuk; esan zuenez, jende gaztearekin egiten dute lan eta balio batzuk transmititzen saiatzen dira.

Ekitaldia amaitu ostean, denboraldi berriak suposatuko duen erronka ekonomikoaren gainean galdetu genion: "Zalantzak izan genituen erronka honi aurre egin edo ez erabakitzeko, baina talde honek eta klubak merezi dute. Zuzendaritzako kideok lanean ari gara dirua lortzeko". Babesle berrien bila ari dira, baina ez dute edozein ate joko: "Klub moduan balio batzuk ditugu eta balio horiek dituzten bazkide eta laguntzaileak gura ditugu. Ez dugu babesle handirik nahi; babesle txikiekin konformatzen gara, gurea ibilbide luzeko proiektua izan dadin. Ford Mugarri gure babesle nagusiarekin jarraituko dugu".

Ekonomikoki erronka handia izango da. Datu bat, aldea ulertzeko: orain arte epaileko 150 euro ordaintzen bazen, datorren urtean 500 bat euro ordaindu beharko da. Horren ostean, lunch txiki batez gozatzeko aukera izan zuten guztiek. Orduan harrapatu genuen Kepa Isasmendi jokalaria mikrofonoaren aurrean jartzeko: "Eskertzen da urte osoko edo urtetako lana halako omenalditxo batekin errekonozitzea".

**Denboraldi berriari, "ilusioz"**

Denboraldi berriari begira dituen sentsazioen gainean ere galdetu genion: "Ilusioz ekingo diogu denboraldi berriari. Abuztuan hasiko gara entrenamenduekin eta orain arteko konpromisoari intentsitatea gehitu beharko diogu". Zaletuei ere egin zien erreferentzia jokalari eskoriatzarrak: "Eskertuko genuke Iturripera 50 pertsona beharrean 100 etortzea, zarata apur bat ateratzera".

ESANAK

**"Arrasateren izena kanpoan zabaltzeak badu bere garrantzia"**
INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA

**"Babesle txikiekin konformatzen gara, ibilbide luze baterako"**
INES AZPIAZU | AEB-KO PRESIDENTEA

**"Ilusioz gaude. Konpromisoari intentsitatea gehitu beharko diogu orain"**
KEPA ISASMENDI | JOKALARIA

## Zaldibarko 24 orduetan izena emateko aukera, uztailaren 10era arte

Zaldibarko 24 orduko futbito txapelketan izena emateko aukera dago dagoeneko. Uztailaren 13an jokatuko da txapelketa eta uztailaren 10a baino lehen eman behar da izena. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko du eta bi modu daude izena emateko: *zaldibarko24orduak@gmail.com* helbidera idatzita edo 637 787 441 telefonora deituta.

## EGA prestatzeko ikastaroa, Udal euskaltegiaren eskutik

Urtero egiten duten moduan, aurten ere Udal euskaltegiak EGA edo haren baliokidea den 3. mailako titulua prestatzeko ikastaroa antolatu du. Uztailean eta irailean izango dira klaseak, abuztuan oporretan egongo dira. Uztailean lau ordu goizean eta irailean bi ordu arratsaldean. Izena emateko udal euskaltegira jo.

# Emakume kubatarren erronkak eta borrokak izan zituen hizpide Isabel Moyak Kulturaten

Askapena, Komite Internazionalista eta Elkarhezitzen taldeei esker izan da gurean

A.E. / J.B. | ARRASATE

Isabel Moya kazetari, irakasle eta idazle kubatarra Arrasaten egon berri da Askapena, Komite Internazionalista eta Elkarhezitzen taldeen eskutik. Iraganeko eta gaur egungo emakume kubatarrek dituzten oztopoez eta bilakaeraz aritu zen berbetan, joan den eguenean.

**Hainbat erronka oraindik**

Moyaren ustez, 1959ko iraultza ezkero emakumeek aukera berdintasun gehiago izan dute, Kubako sozialismoaren eraikuntzan emakumeek berdintasunez parte hartzeko borrokatu zutelako. Haren esanetan, Kubako biztanleriaren ia erdia emakumezkoa da: "Poliki poliki parlamentuan ere ordezkariak izatea lortu dugu, baina oraindik ere erronka bat dugu: erabakiak hartzen diren postuetan emakumeak izatea". Hortaz, oraindik ere egiteko asko dagoela aitortu zuen.

Ekonomian ere aurrerapausoa eman dela dio Moyak; emakume langileak geroz eta gehiago dira: "Eskubide asko lortu ditugu eta horiek mantentzea nahi dugu". Halaber, erizaintzan eta medikuntzan, emakumeen presentzia ere altua dela adierazi zuen: "Medikuen ia %55a emakumeak dira". Horrekin, hezkuntza sistemak izan duen arrakasta nabarmendu nahi izan zuen: "Hezkuntza sistema unibertsala eta doakoa izateak, emakume gehiago ikastera bultzatu ditu", esan zuen.




Isabel Moya Kulturateko Loramendi gelan. | ANE ETXEBERRIA

# Udako bizipenak postaletan kontatzearen xarma mantentzen

Iazkoaren ostean, Jardun Elkarteak udako euskarazko postalen bigarren lehiaketa jarri du martxan

**IURE EIZAGIRRE** | BERGARA

Udan atseden hartzea dugu gustuko, atseden hartu eta leku berriak ezagutzea; etxera itzultzen garenerako esperientzia berriak pilatzea, ingurukoei kontatu eta ikasturtean zehar indarberritzeko arnasguneak topatzeko, oroitzapenetan bada ere.

Bizipen berriak topatze horretan, ordea, komenigarria da egunerokotasunean inguruan ditugun horiekin ere gogoratzea eta noizbehinka, gabiltzan lekuaren berri ematea eurei. Ez dira horren zain egoten, baina irribarrea ageri ohi da ezpainetan postal xume bat heltzen den bakoitzean.

Gauza bera gertatzen zaie Jardun Euskara Elkartekoei eta aurten udako euskarazko bigarren postal lehiaketa antolatu dute. Udaz gozatzeko aukera dutenek bisitatutako lekuak ezagutzeaz gain, komunikazio informal eta idatzietan euskara erabiltzea da lehiaketaren helburu nagusia.



Iazko irabazleak, euren postalarekin eta sariarekin. | GOIENA

Edonork har dezake parte lehiaketan eta gaia librea da, beraz, berdin du Australiaraino heldu, Londresen asteburu pasa egin edo Bergarako igerilekutik mugitu ez bazarete. Leku txikienetan ere gertatzen dira istorioak eta horiek kontatzea da asmoa; postalak jatorrizkoak eta euskaraz izatea, baldintza bakarra.

### Irailaren 17a baino lehen

Eguraldiak laguntzen ez duelako oraindik planik egin ez dutenak lasai egon daitezke, postalak bidaltzeko epea irailaren 17an amaitzen delako. Parte -hartzaileek helbide honetara bidali beharko dituzte postalak: Udako Euskarazko II. Postal Lehiaketa, Jardun Elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara. Testuarekin batera, telefono zenbakia jarri beharko dute bidaltzaileek.

Epaimahaiak postalaren edertasuna, orijinaltasuna, edukia eta idazkera baloratuko ditu eta aurtengo irabazleak tablet bat jasoko du sari gisa.

## Udalekuak hasi eta Txiki Txokoak itxi, egun gutxitan

**I.E.** | BERGARA

Uztailaren 1ean hasiko dira udalekuak eta, hiru astez, goizero, 10:00etatik 13:00etara ekintza ezberdinez gozatu ahal izango dute haurrek.

Gainera, aurten berrikuntzak daude: Elhuyarrek eskaintzen dituen Zientzia udalekuak egingo dira herrian, eta natur eskolakoek Errekalde jauregian dagoen bioniztasuna ezagutzera eman eta babesten erakutsiko dute.

Adin guztietako 280 ume ibiliko dira Ipintza Institutuan eta San Martin Agirre eskolan egingo diren udalekuetan. Angiozarren eta Osintxun ere talde bana egongo da.

### Txiki txokoak zabalik

Jada itxita behar zuten txiki txokoak, baina, eguraldi eskasa medio, ekaina amaiera arte zabalik egongo dira.

## Frantziako zigorra beteta, estradizioaren zain 'Bixkai'

**OIHANA ELORTZA** | BERGARA

Frantziako estatuarekin zuen zigorra beteta, Espainiako epaitegien esku geldituko da orain Iñaki Arietaleanizbeaskoa Telleria *Bixkai*.

Ekainaren 17an izan zuen epaiketa Parisen *Bixkai*k, eta han ebatzi zuen epaileak Frantziarekiko zigorra beteta duela dagoeneko. 20 bat egunen barruan burutuko dute estradizioa Espainiara, eta Audientzia Nazionalaren esku geldituko da, Bergarako Herrirak adierazi duenez. Instantzia horrek behin-behineko espetxealdia aginduko du, epaiketa izan arte, eta epaiketa horretan jakingo da zein den Espainiako justiziak ezartzen dion zigorra, Bergarako Herrirak zehaztu duenaren arabera.

### Konponbidearen bidea

17 lagun joan ziren Parisera epaiketa jarraitu eta *Bixkai*ri babesa eta elkartasuna adieraztera. Izan zuten bera agurtzeko eta berarekin hitz egiteko aukera ere. Lau ordu iraun zuen epaiketak eta bukaeran hitza hartu zuen preso bergararrak. Frantziako gobernuari zuzendu zitzaion, hango espetxe politika salatzeko eta konponbidearen bidean lana egiteko eskatzeko. Ezker abertzaleak hartu duen bidearekin bat egiten duela ere adierazi zuen *Bixkai*k.


*Bixkai*, niki zuriarekin, Parisen egindako epaiketan, hilaren 17an. | GOIENA


BERGARAKO HHI

## Istanbulen izan dira HHIko ikasle eta irakasleak

Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko kideek Turkiara egin dute bidaia. Turkiako hiriburura, Istanbulera, joan ziren 21 lagun, ikasleak eta irakasleak tartean. Astebeteko irteera egin zuten, maiatzaren 30etik ekainaren 3ra, eta ederto ibili ziren. Mezkita urdina, bazarra, Topaki jauregia... eta beste hainbat txoko eta eraikin bisitatu zituzten. Taldeko argazkia ere atera zuten. Oso ondo pasatu zuten eta dagoeneko hasi dira datorren ikasturterako bidaia antolatzen.


NDANK NDANK

## Senegalen komunak, bergararren laguntzarekin

Senegalen komunak egiteko proiektua bukatu dutela adierazteko bidali du argazkia Bergarako Senegaleko Lagunen elkarteak, Ndank Ndank elkarteak. Otsailean hasi eta maiatzean bukatu zituzten lanak. Proiektu honen arduraduna Senegalen Lamine Ndiaye izan da, eta herritarren laguntza izan du komunak eraikitzeko. Oso pozik daude herritarrak lanarekin. Proiektua Bergarako Udalak finantzatu du eta Ndank Ndank elkarteak eskerrak eman nahi dizkie Udalari eta herritarrei.



Irudian Arcachongo aquapark-a. | GOIENA

# Xabalote gaztelekuak zenbait irteera antolatu ditu uztailerako

Aquaparkera, surf egitera eta San Martzialera lo egitera joango dira, esaterako

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Xabalote gaztelekuak herriko neska-mutikoek uztailean ondo pasatzeko lau irteera antolatu ditu. Lehenengo irteera Arcachongo aquapark-era izango da, azken urteetan egin izan duten moduan. Uztailaren 6an egingo dute eta gutxienez 13 urte (2000. urtean jaiotakoak) izan behar dira joan ahal izateko. Izen-ematea ekainaren 17tik 28ra da, kultura etxean eta prezioa, berriz, 20 euro dira.

Bigarren irteera uztailaren 13an izango da, eta Zarautzera joango dira, surf egitera. Dena den, euria egingo balu, plana aldatu eta Gasteizko karting-era joango direla aurreratu dute Xabaloteko arduradunek. Izena emateko epea gaur, hilak 24, irekiko dute eta uztailaren 5ean amaituko da, kultura etxean. Prezioari dagokionez, 16 euro dira.

**Sobronen, multi-abentura**

Uztailaren 20an egingo dute hirugarren irteera eta Sobronera joango dira multi-abentura eguna egitera. Piragua, eskalada, tirolina, igerilekua... askotarikoak egingo dituzte joaten diren gazteek. Izen-ematea uztailaren 1etik 12ra izango da, kultura etxean eta irteeraren prezioa, 16 euro izango dira.

Laugarren irteera herrian bertan egingo dute, baina, horregatik, ez du emozio txikiagoa izango; izan ere, uztailaren 27an San Martzialera joango dira eta iluntzera arte egongo dira han. Gainera, *marshmallows*-ak ere eroango dituzte, gozokiok sutan erretzen dituzten bitartean lagunarteko berriketaldi atsegina egin ahal izateko. Irteera horretarako izen-ematea dagoeneko egin daiteke, gaztelekuan bertan, egubakoitzetik domekara.

**Gaztelekua uztailean zabalik**

Uztailean barrena zabalik egongo da Xabalote gaztelekua. Egubakoitz eta domeketan egongo da zabalik, –zapatuetarako egun osoko irteerak antolatu dituzte– ohiko ordutegian, 17:00etatik 21:30era.

## Erregetxoko etxeetan izena emateko epea zabalik

M.B. | BERGARA

Erregetxo plazan eraikiko diren babes ofizialeko 12 etxebizitzen (garajearekin) eta babes publikoko erregimen tasatuko 13 etxebizitzen (garajearekin) zozketan parte hartzeko oinarriak eta epeak onartu ditu Udalak.

Etxebizitzok erosteko zozketan parte hartzeko interesa dutenek uztailaren 17ra arte aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak udaletxean. Informazio guztia, planoak eta prezioak jasotzeko, udaletxeko bigarren solairuko teknikariarengana joan behar da.



Erregetxo guneko orubea. | M.B.

## Kirol Zerbitzuak bilera egingo du kirol elkarteekin 26an

Udaleko Kirol Zerbitzuak bilera egingo du herriko kirol elkarteekin hilaren 26an, eguaztenean. 19:00etan egingo dute batzarra, udaletxeko gobernu batzorde gelan, eta, besteak beste, honako gaiak jorratuko dituzte: 2013. urteko hitzarmenak, 2013-14 denboraldirako instalazio eskaera; eta irailaren 29an egingo den *Kirola kalera eguna*.

## Uztailaren 1a da azken eguna kontribuzioa ordaintzeko

Udaletik gogora ekarri dutenez, ondasun higiezinen gaineko zerga (kontribuzioa) ordaintzeko epea datorren hil hasieran, uztailaren 1ean, amaituko da. Horrekin batera, jakinarazi dute ordainketa helbideratuta dutenen kasuan, ekainaren 26an kobratuko zaiela.

## Zabalik da merkatuko eta merkatu txikiko 2. hiruhileko tasak ordaintzeko epea

Merkatuko eta merkatu txikiko tasen 2013ko bigarren hiruhileko erreziboak ordaintzeko epea zabalik dagoela jakinarazi du Udalak, abuztuaren 14ra arte. Helbideratutako erreziboak baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira abuztuaren 14an. Helbideratu gabekoak zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko dira, eta ondoko moduetako batean ordainduko da: udaletxeko diru-bilketa zerbitzuan, astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 13:30era, edota zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara; eta finantza erakunde baten bulegoan.

## Bi eguneko irteera egin dute Pol-Polekoek



Aurreko asteburuan bi eguneko egonaldia egin zuten Pol-Poleko beteranoek Huescako Aurre-Pirinioetan. Zapatuan Pico del Aguila tontorra eta 19 kilometroko ibilbidea egin zuten. Sabiñanigon gaua eman ondoren, domekan 14 kilometro egin zituzten. Uztailaren 14an Baigorri-Donibane Garazi zeharkaldia egingo dute.

JUAN MARI SASIGAIN



Gaztetxoak spinninga egiten iazko udako kirol kanpainan | ZUBIKOA KIROLDEGIA

# 719 neska-mutikok hasiko dute gaur udako kirol kanpainako lehen txanda

Uztailaren 5era arte askotariko kirolak egingo dituzte; besteak beste, patinajea, tenisa, mini–tenisa, badmintona, igeriketa eta eskalada

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Udako kirol kanpaina abian da. Gaurtik uztailaren 5era arte 719 neska-mutikok egingo dute kirola. Guztira, 1.197 ekintzatan parte hartu dute. Kontuan hartu behar da neska-mutiko batzuek ekintza bakarra egingo dutela, baina beste batzuek bi edo hiru ekintza ezberdin.

Aurreko urteen antzera, aurtengoan ere, patinajea, tenisa eta mini-tenisa izan dira erantzun zabalena izan duten eskaintzak. Betiko eskaintzak, alegia.

### Abuztuan beste bi txanda

Lehen txanda martxan ipinita, kiroldegiko arduradunek bigarrena antolatzen dihardute: uztailaren 8tik 19ra egingo dute. Horretarako lekua dute tenisean, multikiroletan eta batukan, goizeko eta arratsaldeko taldeetan; patinajean eta pilotan, goizeko taldeetan; xakean, jolasetan, ingelesezko jolasetan eta eskaladan, arratsaldeetan; eta nagusiendako patinajean.

Era berean, abuztuaren 1etik 14ra eta 20tik 30era eskaintza egongo da: zaldiak, tenisa, mini -tenisa, igeriketa eta ur-jolasak.

### 28 begirale umeekin

4 eta 16 urte arteko neska-mutikoekin lanean 28 begirale egongo dira lehen bi txandetan. Ekintza batzuk kiroldegian urte osoan lanean diharduten begiraleek gidatuko dituzte. Beste batzuetarako, berriz, 14 pertsona kontratatu ditu Udalak: zazpi zerbitzu orokorretarako eta beste zazpi, patinaje, eskalada eta mendiko bizikleta zerbitzuetarako.

# Larrialdiei aurre egiteko etxebizitza gertu dago

**M.B.** | OÑATI

Udalak larrialdiei aurre egiteko etxebizitza gertu dauka. Sute, uholde edo bestelako ezbeharren baten ondorioz denboraldi baterako etxe barik geratzen diren herritarrendako eta Gizarte Ongizate batzordetik bideratutako beste edozein egoera berezirendako etxea izango da. Etxebizitza hori Oñatin erroldatua egon eta Oñatin bizi direnendako izango da.

### Gehienez, lau hilabete

Unean uneko larrialdiei erantzuna emango dion etxean, gehienez, lau hilabete egon ahal izango da. Beharra larria dela ikusiz gero, beste bi hilabete luza daiteke egonaldia.

Egonaldia luza daitekeen moduan, baja emateko aukera ere badago. Erabiltzaileek aldez aurretik abisua eman barik, etxetik kanpo hiru egun baino gehiago egiten badituzte, etxea utzi beharko dute. Gainera, larrialdi egoeran dauden bitartean, duten arazoari irtenbidea emateko beharrezkoak diren gestioak egin beharko dituzte.

Larrialdietarako udal etxebizitzaren erabilerarako araudia ikusgai dago udal buletgoetan uztailaren 10era arte. Erreklamazioak tarte horretan egin beharko dira.

Maiatzeko osoko bilkuran onartu zuten behin-behinekoz etxearen araudia.

## Gaur zozketatuko dituzte San Martingo sei etxebizitza

Gaur, astelehena, 19:00etan zozketatuko dituzte San Martingo sei etxebizitza, osoko bilkuren aretoan. San Martin auzoko 6. atarian libre dauden sei etxeak kupo orokorrean zozketatuko dituzte. Guztiek dituzte hiru logela, eta garaje eta trastelekuarekin saldu-ko dituzte. Zozketaren ondoren, etxea egokitu zaienei dokumentazioa eta planoak banatuko dizkiete.

Etxebidek egindako eskatzaileen zerrenda zapatura arte egon zen ikusgai. Hasieran 67 izen zeuden, baina, bi eskatzaileren alegazioak onartuta, 69 oñatiarren artean egingo dute zozketa.

## Udalekuetan parte hartuko duten umeen gurasoendako bilera

Lehen aldiz udaleku irekietan parte hartuko duten umeen gurasoekin bilerak egingo dituzte eguaztenean, hilak 26, Eteoko eraikinean: 18:30ean gazteleraz izango da eta 19:00etan euskaraz.

## Usakon bainatzea debekatuta dago eguaztenera arte

Hilaren 22an ziren zabaltzekoak Usakoko bainu denboraldia, baina bainua debekatu egin dute ur handiak datozelako. Eguaztenera arte, hilak 26, debekatuta egongo da. Begiralea ordutik aurrera egongo da Usakon.



GOIENA

## Aiastui eta Urmeneta txapeldun

Bergaran bizi diren Julian Aiastuik (90 urte) eta Jesus Urmenetak irabazi zuten Olakuako jaietako 25. mus txapelketa. 19 bikoteren gainetik nagusitu ziren. Finalean, Arantzazuko Jose Ramon Ugarte eta Angiozarko Iñaki Arantzabal menderatu zituzten. Hain zuzen ere, txapel bana jaso zuten. Biak ala biak Bergaran bizi dira. Aitaginarreba eta suhia dira Julian eta Jesus.



ANTON GARMENDIA

## Denboraldiko onenak saritu zituen Aloña Mendik

Aloña Mendi futbol sailak 2012-13 denboraldiko jokalari onenak saritu zituen egubakoitzean. Iñigo Zubiak (kemenari saria), Iker Olaldek (erregulartasuna), Unai Uribetxeberriak (golegile nagusia) eta Aritz Garmendiak (kirolzaletasuna) jaso zituzten talde nagusiko aipamenak. Gainerako mailetan kirolzaletasuna saritu zuten: Miren Zubia (emakume gazteak), Iñigo Anduaga (ohorezko gazteak), Mikel Blazquez (lehenengo gazteak), Nagore Elortza (emakume kadeteak), Auritz Larrea (ohorezko kadeteak), Jone Alberdi (infantil eskolartekoa eta alebinak), Asier Aierbe (ohorezko infantilak) eta Unai Abaunz eta Julen Carr (alebinak).

ARETXABALETA

# Integrazioaren aldeko haziak herrian ereiten

## Gu Haziak Gara laguntza elkartea sortu da Aretxabaletan berriki

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Berria da Gu Haziak Gara laguntza elkartea. Sei lagunek osatuta dago: bost emakumezko eta gizonezko bat; bost etorkin eta aretxabaletar bat.

Helburu argi batekin sortu zen: integrazioaren alde lan egitea. "Baina hori bi noranzkotan bideratu dugu, bai etorkinei eta baita herritarrei begira. Batzuk gizarteratzeko besteek ere zerbait ipini behar dute euren aldetik". Hala eman du aditzera Paloma Martinez elkarteko kideak.



Oroko lursaila lantzen. | PALOMA MARTINEZ

### Langabeen irudi ona indartuz

Bertakoen eta kanpokoen arteko puntu komun bat topatu dute batera jarduteko: langabezia. "Denoi eragiten digunez hortik abiatu gara". Aretxabaletan sortu den laguntza elkarteak hiru helburu ditu eskuartean. Batetik, langabezian dauden pertsonen irudi positiboa erakutsi gura dute: "Lan barik gaude, bai, baina horrek ez du esan gura alferrak garenik. Proaktiboak gara".

Gu Haziak Gara elkarteko kideen iritziz, langabezian dauden pertsonen irudia hobetzen da geldi barik zerbait egiten arituz gero. "Baina kanpokoek izan dezaketen irudiaz gain, norberari ere laguntzen dio aktibo egoteak, hobeto sentitzen baitzara, zure burua gehiago baloratzen duzu". Eta horretarako proposamen jakin bati heldu diote: ortu ekintzak eramaten dituzte aurrera.

### Herriari zerbait itzultzea

Bigarren xedea, herriari zerbait itzultzea dela azaldu du Martinezek: "Herriak gauza pilo bat ematen dizkigu: kaleetako iturrietako ura, jolastokiak, liburutegia, interneta... Barneratuta daukagu guzti horiek doakoak direla eta ez da hala. Norbait ordaintzen ari da eta guk momentu honetan lan konkreturik ez daukagunez, gure ekintzekin zerbait itzuli dezakegu". Hori horrela, ortua ipintzeko uzten dizkieten lurrak txukuntzen dituzte, esaterako. Baina buruan bestelako ekintzak dituzte gertuko etorkizun batetan lantzeko; esaterako, herriko horma batzuk margotzea.

### Ekoiztutakoa banatu

Hirugarren asmoa, parte hartzen dutenen mesedetan zerbait ekoiztea dela eman dute aditzera. "Lantzen ditugun lurretatik zerbait eskuratuz gero, parte hartu duten guztien artean banatuko dugu, direla tomateak, letxugak..."

### Toki ezberdinetatik laguntza

Caritasen babesean jaiotako elkartea da Gu Haziak Gara. "Oso harreman ona daukagu. Parrokiako lokalak uzten dizkigute, eta bertan elkartzen gara astero. Tailerrak egiten ditugu, edo hitzaldiak, bilerak..." Bestalde, elkarteko kideek euren ekintzak aurrera eramateko behar duten dirua ipintzen du baita ere Caritasek. "Ahalik eta diru gutxien erabiltzen saiatzen gara, nolanahi ere. Aukera daukagun guztietan gauzak berrerabiltzen ditugu, esaterako".

Bestalde, ortuentzako baliatzen dituzten lurrak herritarrek utziak dira. "Kalean bertan Jausoro hotelaren atzean, lur zati txiki bat utzi digu jabeak ortua ipintzeko. Gainera, Jesus Osinaga baserritarrak Oron ehun metro koadroko lursaila ipin du elkartearen eskura".

> ESANAK
>
> **"Langabeen irudi positiboa erakutsi gura dugu elkarteaz"**
>
> PALOMA MARTINEZ | ELKARTEKO KIDEA



GOIENA

## 1960 eta 1961eko iraila arteko kintoak batera

Joan den zapatuan, ekainak 15, afari ederra egin zuten 1960 eta 1961 urteko irailera arte jaiotako Aretxabaletako kintoak. Ezin hobeto ibili zirela jakinarazi digute. Goiko irudian, taldea Duranan, afaltzera joan aurretik.

ESKORIATZA

# Salgai daude sanpedrotako herri bazkarirako txartelak

## Gaur arte erosi daitezke Inkernun eta Goxo Txikin; helduenak 20 eurotan, eta umeenak 10

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako sanpedro jaietako herri bazkarirako txartelak gaur, astelehena, arte erosi daitezke Inkernu eta Goxo txiki tabernetan. Helduendako bazkariak 20 euro balio du, eta 14 urtetik beherako umeenak, 10 eurotan saltzen dira. Bazkaria uztailaren 1ean, astelehena, izango da Santa Mariñe plazan.

Menuari dagokionez, helduek honakoa jango dute: sarrerak (urdaiazpikoa, solomoa, txorizoa sagardo erara prestatuta), bakailao tortilla, saiheskia, gazta menbrilloarekin eta intxaurrak, kafea eta pattarra. Haurrek, aldiz, zukua, makarroiak, burruntzi-pintxoak eta jogurta izango dute.

Bazkarian lekua erreserbatzeko aukera ere izango dela gogorarazi dute Udaletik, 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta edo edo *kultura@eskoriatza.net* postara idatzita.

### Uztailaren 1ean, itxita

Bestalde, sanpedrotako hirugarren eguna dela-eta, uztailaren 1ean, astelehena, itxita egongo dira udal bulegoak. Hortaz, Udalarekin lotuta edozein epe, betebehar edo eskubideren mugaeguna egun horretan bukatuko balitz, hurrengo lan egunera arte luzatuko da; hain justu, uztailaren 2ra arte.

### Gaurtik eguenera bitartean, badminton, patinaje, pilota eta aerobic egingo dute neska-mutikoek

Eskoriatzako Kirol Zerbitzuak antolatuta, lau eguneko ikastaroari emango diote hasiera gaur 2003 eta 2009 urte bitartean jaiotako neska-mutikoek. Hain justu, patinaje, pilota, aerobic eta badminton praktikatuko dute, 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara, Manuel Muñoz kiroldegian izango diren eskoletan. Eguenera arte luzatuko dira saio horiek.

### Udalak errentan jarri ditu Intxaurtxueta 26 eta Santa Ana 19ko udal jabetzako etxebizitzak

Eskoriatzako Udalak Intxaurtxueta auzoko 26 zenbakiko 1. ezkerrean eta Santa Ana kaleko 19 zenbakiko lehen solairuan dituen etxebizitzak errentan emateko deialdia egin du. Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak Udaleko erregistro nagusia. Informazio gehiago gura dutenek 943 71 44 07 telefono zenbakira dei dezakete.

### Aste zapatistako zozketan 1.153 zenbakiak irabazi du Hondarribiko Postugu landa-turismoan egonaldia

Eskoriatzako aste zapatistako errifan 1153 zenbakia irten zen. Antolatzaileek jakinarazi dute irabazleak bi aste dituela zenbaki saritua aurkezteko, 678 10 77 23 telefono zenbakira deituz. Lehendabizikoa agertzen ez bada, erreserbako 210 zenbakiari emango diote saria; hain justu, Hondarribiko Postugu landa-turismoan bi lagunendako asteburuko egonaldia.

ARETXABALETA

### Boluntariotzaren gainean egingo dute berba bihar arratsaldean Basotxoren egoitzan

Bihar, martitzena, boluntariotzari buruzko mahai ingurua dago Aretxabaletako Basotxoren egoitzan, 17:30ean. Boluntariotza nola funtzionatzen duen azaltzearekin batera, bailaran dauden aukerak aztertuko dituzte. Debagoieneko hainbat Gobernuz Kanpoko Erakundeetan lan egiten duen Jose Manuel Corcuera eta Gipuzkoako Nagusilaneko presidente Jose Luis Elosua izango dira.

### Sendabelarrak ezagutzeko ikastaroa gertatu du Loramendi elkarteak uztailaren 2 eta 4rako

Aretxabaletako Loramendik antolatuta, inguruko sendabelarrak ezagutzeko aukera dago uztailaren 2an eta 4an, Ekain Martinez de Lizarduyren eskutik. Saioak 18:30etik 20:00etara izango dira, udaletxe zaharrean. Interesatuek 943 77 09 70 telefono zenbakian edo *loramendielkartea@gmail.com* postan eman dezakete izena, edo zuzenean elkarteak udaletxe zaharrean duen egoitzan.



Azkoaga auzoko kanposantuan kapera zaharberritzeko lanetan dihardute buru-belarri. | JESUS ARREGI

ARAMAIO

# Azkoaga eta Barajuen: auzolanak pisua izaten segitzen duen erakusle

Bi auzoetan egin diren azken deialdiek harrera ona izan dute; filosofia horri eutsi egin behar zaiola uste dute Antonio Elejalde eta Jon Arriaran alkateek

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Auzolanak pisu handia izaten jarraitzen du Aramaion. Bizilagunen artean auzorako beharrezkoak diren eta musu truk egiten diren mantenu eta txukuntze lanek ondo funtzionatzen dute hainbat auzotan; orain, Barajuen eta Azkoaga dira horren adibide. Bi auzo horietan parte-hartze altua izan dute azken deialdiek. Gainera, bi auzoetako alkateek esan digutenez, adin guztietako jendea aritu da lanean.

**Azkoagan, kanposantua**

Azkoagan kanposantuko kapera zena eraberritzen dihardute. Lehenago teilatua konpondu zuten eta azken asteetan zutabeak eraberritu dituzte. Antonio Elejalde auzo alkateak esan digunez, ez dute lanerako gertu dagoen jende faltarik: "Egin beharreko lanaren eta dugun materialaren arabera egiten dugu deialdia". Lanak ez dituzte amaitu oraindik: "Beste saio bat edo bi egin beharko ditugu, kaperako hormak margotu eta kanposantuaren maila berdintzeko lurra ekarri eta zabaltzeko. Horretarako, adibidez, lagun gehiago elkartuko gara".

**Barajuenen, txukuntze-lanak**

Barajuenen saio bakarra egin dute aurten; hilaren 15ean 18 lagun elkartu ziren: "Jendearen erantzuna oso ona izan zen. Garrantzitsuena auzolanaren atzean dagoen filosofia da. Horri eutsi egin behar diogu", esan digu Jon Arriaran alkateak. Bazterrak garbitu, eserlekuak margotu... hainbat lan egin zituzten. Aurrerago elizatik elkartera arteko zatian porlana botako dute; Udalarekin adostu dute lan hori egitea, baina adituen laguntza beharko dute.

Lanean gogor aritu ostean hamaiketakoa egitea da ohitura. Jatekoa eta edatekoa Udalak ordaintzen du.



Barajuen auzoan eserlekuak margotu zituzten, besteak beste. | JON ARRIARAN

ANTZUOLA

# Nagore Otadui gazteendako gitarra lehiaketa batean izan da, Bilbon

Ez du saririk irabazi, baina gustura aritu da eta hurrengo urtean itzultzeko gogoz dago

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Herrian musikarekiko zaletasuna dagoenik ezin uka, eta horren adibideetako bat da Nagore Otadui gitarra-jotzaile gaztea. Aurten Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga Profesional Mailako Musika Kontserbatorioak antolatutako gazteendako gitarra lehiaketan hartu du parte.

Otaduik Bergarako Musika Eskolan ikasten du eta han ikaskide duen Jon Irureta bergararrarekin batera hartu du parte Bilboko lehiaketan. Ez dute saririk irabazi baina gustura daude egindako lanarekin, baita euren irakasle den Kristina Larrañaga ere: "Pozik itzuli dira eta datorren urtean ere parte hartzeko gogoekin. Lan asko egin dute eta oso harro gaude eurekin".

**Musika Eskolaren bilera**

Ohikoa da musika ikasi nahi duten gazte antzuolarrak Bergarako Musika Eskolara joatea. Bihar alderantzizkoa izango da bidea; izan ere, Bergarako eskolako arduradunek bilera irekia egingo dute 19:00etatik aurrera, Olaran etxean.

Musika atsegin eta datorren ikasturtean instrumenturen bat jotzen ikasteko interesa duen edonor hurbil daiteke bilerara, izan ere, 2013-2014ean Bergarako eskolak izango duen eskaintza azalduko dute.

ELGETA

# Herri Eskolako umeek inauguratu dute frontoi zaharra

Guneak itxita jarraituko du lanak guztiz amaitu arte; harmailak egitea falta da oraindik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Barikua egun berezia izan zen Herri Eskolako neska-mutikoendako. 2012-2013 ikasturteko azken eguna izan zen, eta jolasean, kantuan eta dantzan eman zuten goiz osoa. Ohikoa denez ikastetxeko ikasle eta irakasle guztiek bazkari berezia egin zuten; ikasturteko azkena. Urte hauetan guztietan eskolako jolastokian elkartu izan dira bazkaltzeko, baina aurten Domingo Iturbeko frontoi zaharrean agurtu dira.

Eskolako umeak jolastokirik gabe egon dira ikasturte osoan zehar, eta lanak egin bitartean Maala parkea erabili dute goiz erdiko zein arratsaldeko atseden orduan.

Lanak, ordea, amaitzear daude. Frontoia eta frontoiaren aurreko aldeko urbanizazio lanak eginda daude. Hala, mahaiak eta aulkiak ipini eta bertan bazkaldu zuten barikuan ikastetxeko ikasleek; ehun bat inguru. Goiko aldeko harmailak egitea falta da oraindik, eta frontoia pintatzea. Horretan dihardute Goitu enpresako langileek.

**Guztiz amaitu arte itxita**

2013-2014 ikasturte hasierarako lanak amaituta egongo direla adierazi dute udal arduradunek. Bien bitartean, eta segurtasun neurriak tarteko, gune osoa itxita egongo da lanak guztiz amaitu arte.



Ikasturte amaierako bazkaria frontoi zaharrean. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

# Arrakasta izan du udalekuetarako deialdiak

3-9 urte bitarteko 14 neska-mutikok eman dute izena Gurelek antolatutako ekimenean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Pozik, oso pozik daude Gurel elkarteko kideak udalekuetarako egin duten deiak izandako erantzunarekin. "Beldurrarekin genbiltzan, baina azkenean giro polita izango da herrian, 14 neska-mutikok eman dute izena-eta. Oso balorazio positiboa egiten dugu", adierazi du Inaxio Gabilondo Gurel elkarteko kideak.

Hark emandako xehetasunen arabera, "denetarik pixka bat" izango dute udalekuotan. "Ume nagusienak 9 urte ditu, eta txikitxoenak, 3".

**Pare bat talde**

Horrela, bi talde sortzeko asmoa du Gurelek. "Txikitxoenekin talde bat sortuko dugu, eta gainontzekoekin beste bat. Beraz, bi begirale izango ditugu", dio Gabilondok. Hain justu ere, Beñat Agirreurreta, Gatzagako ludotekako orain arteko zaintzailea izango da begiraleotako bat. Bestea ere, seguru aski, herrikoa izango da.

**Bi aste barru**

Udalekuak uztailaren 1ean hasiko dira, 19ra arte. "18an eta 19an txangoa egingo dugu", ekarri du gogora Gurel elkarteko kideak. Gainontzeko egunetan ahaleginduko dira ahalik eta denbora gehien aire zabaleko gauzak egiten ematen. "Ea eguraldiak laguntzen duen", dio Gabilondok. Horren arabera, ludoteka izango dute, bestela, elkargune nagusi. Goiz eta arratsaldeko udalekua da Gurelek prestatu duena: 11:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 19:00ak arte.

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




### Ninika Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara
- %10 deskontua artikulu guztietan.

### Alzu, S.L
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati
- Arropetan %10 beherapena.

### Naren Fisioterapia Zentroa
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta
- %15 zerbitzu guztietan.

### Esko Sport
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza
- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.

### Jaixak
Barrenkale 10 - Bergara
- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburuetan izan ezik.

### Estacion Servicio Arrasate
San Andres 7 - Arrasate
- % 2 gasolindegian erregaia erosita.
- % 2 dendako produktuetan.

### Begiondo Optika
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta
- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

### Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea
Torreauzo Auzoa 10 - Oñati
- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoan) eta kartan.

### Gahir Fisioterapia/Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

### Gaes
Otalora 18, Arrasate
Zurradero 10 Bergara
- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

### Multiopticas
Juan Carlos Guerra, 1 behea – Arrasate
Ibargarai, 16 Bergara
- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

### Arrikrutz Kobak
Araotz Auzoa - Oñati
- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.

### Impespal, C.B Imprimategia
Komenio 2 - Bergara
- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.

### Kuttuna Estetika
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza
- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik

### AQUARIUM
Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.

### Oñati Garajea
Goribar Auzoa 9 - Oñati
- %5 beherapena egiten diren konponketetan.

### Biotika
Iturriotz 21 - Arrasate
- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.

### Caravanas Oñate
Otadui Zuhaiztia, 25 - Oñati
- 50€-ko erosketa egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.

### Guztiz Eder
Kalebarria 29
Oñati
- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.

### Lilura Edertze Institutua
Bidekurutzeta 7 - Bergara
- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

### Argia
www.argia.com
- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.

### Txuri Urdin izotz pista
Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jaiegun, jaiegun bezpera edo oporraldia.
** Ez bada zubia edo oporraldia.

### Lastai
Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz
- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



## Beste abantaila batzuk:
- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

# KIROLA

24 ORDUKO TORNEOA

# Txus Yuñitez nagusi Manuel Muñoz kantxan

- Eskoriatzako kiroldegian 24 orduko torneoa jokatu dute asteburuan
- Denera 13 taldek parte hartu dute aurten; T3 United bigarrena izan da

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Egubakoitzean, 18:00etan, hasi zen Manuel Muñozen omenez jokatutako areto futboleko torneoa. Kantxan, 13 ekipo, sei eta zazpiko bi taldetan banatuta. Talde bakoitzeko lehenengo laurak sailkatu ziren, eta final laurdenetan jokatutako norgehiagokak horrela amaitu ziren: Spatek 0-2 irabazi zion Andevamosi; T3 Unitedek penaltietan UD Salamancari; Txus Yuñitezek 0-4 Solomotorrak taldeari; eta Birisek penaltietan Doble 0 taldeko mutilei. Finalerdietan, Andevamosekoek ezin izan zuten Txus Yuñitezen kontra; 0-3 nagusitu ziren azken horiek. Eta T3 United taldeak penaltietan irabazi zion Birisi. Hirugarren eta laugarren postuen lehian, Andevamosek samur irabazi zion Birisi: 7-2.

Finala, zapatuan, 16:30ean hasi zen, T3 United eta Txus Yunitez artean. Norgehiagoka osoan berdinduta ibili ziren biak, Txus Yuñitezekoak bi goleko aldearekin aurretik jarri baziren ere. Atezaina fin ibili zen, eta horri esker aldea mantentzea lortu zuten. T3 Unitedekoek, dena dela, ez zuten amore eman, eta aurkarien atera hurbiltzen saiatu ziren. Baina, azkenean, 2-4 galdu zuten lehia. Iazko torneoan ere Txus Yuñitezek irabazi zuen, orduko eta aurtengo jokalari asko ezberdinak izan arren.

Sariei dagokienez, garaikurrarekin batera, irabazleek 455 euro jaso zituzten; bigarrenek, 260; hirugarrenek, 130 eta laugarrenek, 65. Narciso Pavo eta Jony Valor antolatzaileek kantxan nahiz harmailetan egondako "giro bikaina" nabarmendu dute, honakoa esanez: "Harrituta gaude, oso harrera ona izan du-eta. Maila handiko 150 jokalarik parte hartu dute, eta harmailetan ikusitako giroa ere txalotzekoa da".



Oso berdindua izan zen zapatu arratsaldean joka


# AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI




Renault Twingo
- 2011
- Diesela
- 9.654 Km
- Beltza

RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

| | |
|---|---|
| **Renault Kangoo** 2011 l Diesela l 19.340 Km l Txuria | 10.800 € |
| **Renault Kangoo Furgoia** 2011 l Diesela l 107.000 Km l Txuria | 7.500 € |
| **Renault Laguna G.T.** 2012 l Diesela l 34.200 Km l Platino grisa | 19.500 € |
| **Renault Latitude** 2011 l Diesela l 0 Km l Altzairu grisa | 17.900 € |
| **Renault Megane Sport Tourer** 2011 l Diesela l 11.037 Km l Beige | 14.850 € |
| **Renault Clio** 2010 l Diesela l 23.856 Km l Urdina | 9.250 € |
| **Renault Clio Grand Tour** 2012 l Diesela l 17.155 Km l grisa | 11.850 € |
| **Dacia Sandero** 2012 l Gasolina l 3.560 Km l Grisa | 8.850 € |




Citröen C4 Aircross 1.8 HDI Exclusive 2WD 150
2012 l Diesela l 500 Km l Marroi iluna

CHAPIME
CITROËN Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

| | |
|---|---|
| **Peugeot 207 1.4HDI Business Line FAP** 2011 l Diesela l 35.196 Km l Gris argia | 9.600 € |
| **Saab 9-3 Sport H. 1.9TTiD Vector** 2009 l Diesela l 60.000 Km l Beltza | 15.000 € |
| **Citröen C3 1.6e-HDi Exclusive 90** 2013 l Diesela l 500 Km l Gorri argia | 15.500 € |
| **Citröen C4 G.Picasso 1.6HDI Exclusive** 2013 l Diesela l 1.200 Km l Gris iluna | 21.500 € |
| **Citröen C-Elysée 1.6HDi Exclusive 90** 2012 l Diesela l 2.500 Km l Urdin argia | 14.000 € |
| **Citröen DS3 1.6e-HDI Style** 2013 l Diesela l 25 Km l Gris iluna | 17.500 € |
| **Citröen DS5 2.0HDi Style** 2013 l Diesela l 100 Km l Txuria | 28.500 € |
| **Citröen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP** 2012 l Diesela eta elektrikoa l 12.500 Km l Txuria | 35.500 € |
| **Peugeot Partner 1.6HDI Tepee Access 92** 2012 l Diesela l 27.165 Km l Gris argia | 13.000 € |
| **Ford FT Tourneo 200 S Connect 75** 2005 l Diesela l 129.456 Km l Txuria | 4.500€ |

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



tutako finala. | IMANOL SORIANO



Txus Yuñitez taldeko jokalariak, garaipena ospatzen. | MIRIAN BITERI

**DATUA**

# 44

NORGEHIAGOKA

Manuel Muñoz kiroldegiko kantxan 44 partidu jokatu ziren egubakoitz arratsaldetik zapatura bitartean.



Lehenengo lau taldeen ordezkariak, antolatzaileekin. | I.S.



Harmailetako giroa. | I.S.



**JULEN EGAÑA**
TXUS YUÑITEZ

"Gogorra izan da; 24 ordutan zortzi bat partidu jokatu ditugu eta nekea igarri dugu. Oso gogorra izan da finala. Baina pozik gaude, torneoa irabazi dugu-eta".



**MIKEL ALKAIDE**
T3 UNITED

"Helburua ez zen finalera iristea; ondo pasatzera etorri gara, beste barik. Partiduak oso zailak izan badira ere, asko disfrutatu dugu, eta lortutakoarekin oso pozik gaude".



**XABI IÑURRIA**
ANDEVAMOS

"Txapelketa oso ondo joan da. Hasieran kosta zaigu, baina apurka joan gara erritmoa hartzen eta hirugarren geratu gara. Gehiago espero bagenuen ere, pozik gaude".



HIRUKO TORNEOA

# Debagoiendarrek maila ona erakutsi dute 3x3ko torneoan

- Zapatuko bost finaletatik hirutan egon ziren
- Domekan Labegaraietara eraman zuten txapelketa




Juniorretako Usa el Tableroko kide bat finalerdietan eraso ahaleginean; eurak heldu ziren




Gurasoak zein haurrak partiduak ikusten Labegaraietan. | I.S.

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Saskibaloiak ezohiko lekua hartu du asteburu honetan: kiroldegietako kantxak utzi eta herriko plazaren itxura guztiz eraldatu du. Izan ere, Bergarako Kirol Elkarteak antolatuta, Hiruko Saskibaloi Txapelketa jokatu zen zapatuan eta atzo San Martin plazan. Domekako jardunaldia, baina, benjamin eta alebinena, Labegaraietako kiroldegian egin behar izan zuten, eguraldi eskasa tarteko.

Infantil eta kadeteek izan zuten Hiruko Torneoari hasiera emateko ardura. 12 eta 15 urte bitarteko 70 gaztetxo inguru prest zeuden zapatuan 10:00etarako, sailkapen fasea jokatu eta eguerdi aldean finala jokatzeko.

Kadete mutiletan Ion Etorri izan zen irabazlea eta nesketan, berriz, Dori talde bergararra Kikis taldeari gailendu zitzaion. Infantil mutiletan Borrusia Jatxen taldeak irabazi zuen 50 euroko saria eta nesketan, aldiz, Saski Neskak taldeak.

Hiruko jaurtiketen lehiaketa egin zuten finalak jokatu aurretik eta Ion Telmo Igartua izan zen minutu batean saskiratze gehien egin zituena. Bere zazpi saskiratzeei esker hirukoen txapeldun izendatu zuten.

### Elitekoen lehia polita

Zapatu arratsaldean helduagoen txanda izan zen eta parte-hartzea ona izan zen: 89 taldek jokatu zuten 16:00etatik aurrera. Bost kategoriatan aritu ziren: elite mailako senior mutilak eta neskak, senior mutilak, eta junior mailako mutilak eta neskak.

Ligaxka jokatu ostean hirukoen lehiaketa egin zuten helduek ere. Jende askok hartu zuen parte, hamar txandatik gora egin ziren. Zazpigarrengora arte bostekoa zen gainditu beharreko saskiratzeen marka baina txanda horretan seira igo zen. Parte-hartzaile guztiek jokatuta, hiruko berdinketa izan zen eta hura hausteko azken txanda bat egin zuten. Amaieran Intza Lizarazu azkoitiarrak irabazi zuen lehiaketa hiru saskiratzerekin.

Lau kantxatan finalerdiak jokatzen zituzten bitartean, junior neskek finala jokatu zuten hirugarren kantxan. Lo Blanco del Jamon arrasatearrak eta Okartorka urretxuarrak nor baino nor ibili ziren eta azkenean debagoiendarrak gailendu ziren, besteak beste, euren altuera baliatu zutelako kanpoko saskiratzeak egin eta taulapean jokatzeko.

Mutiletan Usa el Tablero gasteiztarrak eta Pino y los demas oreretarrak heldu ziren finalera, eta lehenengoek irabazi zuten.

Herrian saskibaloi maila polita dagoela erakutsi zuten Santana River taldeko kideek. Finalean The Best of the East taldea izan zuten aurrean eta jokaldi bizkorrak ikusi ziren: hiruko marratik jaurti, errebotea taldekideak jaso areako marran, baloia jasotzera pasa eta taulaperaino sartu ostean, saskiratzea, adibidez. Bukaeran bergararrak izan ziren nagusi.

Senior mutiletan ere maila ona erakutsi zuen Globers Troters taldeak. Talde horretako kide zen 2007/2008 denboraldian TAU Ceramikarekin ACB ligan jokatu zuen Ander Garcia bergararra. Neurketa borrokatua izan zen, baina bergararrek ez zuten lortu Donostiako San Francisco Spurti gailentzerik eta bigarren postuan geratu ziren.

Elite mailako nesken finala, Zurrero eta Trufas taldeen artekoa, estua izan zen, kontraerasoz betea. Amaiera arte mantendu zen tentsioa eta 15 segundo falta zirela Trufas taldea azken jokaldia egiten saiatu zen. Atzeraka arean sartu, biratu eta defentsa atzean uztea lortu zuen jokalari batek, baina jaurtiketa indar gutxirekin egin zuen eta baloia ez zen saskira heldu. Baloia Zurreroren eskuetan geratu zen hiru segundoren faltan eta aurkariek ezin izan zuten askorik egin. Amaieran, 15-13, Zurrero azkoitiarren alde.

Partiduen ostean sari banaketa izan zen eta finaletara heldutako taldeak ez ezik, T.H.L. taldea saritu zuten ekiporik jatorrena moduan. Kirol materialaren zozketa ere egin zuten.

### Eskualdekoak atzo

Atzo goizean alebinek eta benjaminek jokatu zuten Hiruko Saskibaloi Txapelketa. Debagoiendarrek bakarrik har zezaketen parte eta eskualdean zaletasuna badagoela erakutsi zuten txikienek, izan ere, alebin mailako 11 taldek eta benjamin mailako 13k hartu zuten parte torneoan. Eguraldia tarteko, San Martin plaza Labegaraietako kiroldegiagatik aldatu behar izan zuten.

Goizean zehar partidak jokatu ostean, ordubatak aldean hasi ziren finalak. Alebin mutiletan Txantxikutarrak taldea izan zen irabazlea eta nesketan Mamuak. Benjamin mailan Ganberro Txikiak taldeko mutilak izan ziren garaile eta nesken kategorian Arenes-kak. Mikel Perezek sartu zuen hiruko gehien. Finalak jokatu ostean, talde bakoitzak bere saria jaso zuen eta zozketa eginda, domeka goizean batutako guztiek argazkia atera zuten elkarrekin.

---



**ASIER AGUADO**
ORERETA

"Gustura gabiltza hemen lagunartean jokatzen eta ea dirua irabazten dugun. Txapelketako giroarekin oso pozik geratu gara".



**LEIRE ETA EIDER**
ARRASATE

"Finalean gaude. Nesketan ez du jende askok parte hartzen eta orduan ez gaude taldea asko; horrek ere eragiten du".



**ERNESTO GONZALEZ**
BERGARA

"Semearekin batera etorri naiz txapelketa ikustera, arratsaldea pasatzera. Giro polita dago goian (zeruan) eta behean. Hau eguna pasatzeko leku polita da".



finalera. | IMANOL SORIANO

**MARIAN MELLADO** | BERGARAKO K.E.-KO PRESIDENTEA

## "Ez da berdina plazan edo kiroldegian jokatzea, plazan kaleko giroa dago, jendea"



IURE EIZAGIRRE

Asteburu osoa gora eta behera pasa du, zapatuan San Martin plazan eta domekan Labegaraieta kiroldegian. Bergarako Kirol Elkarteko beste ordezkari batzuekin batera Hiruko Saskibaloi Txapelketa ahalik eta ondoen irten dadin eta jokatzera etorritakoek goza dezaten ahaleginetan aritu da.

**Hiruko Saskibaloi Txapelketa jokatu da asteburu honetan. Ze balorazio egiten duzu?**

Oso ona, parte hartu duten taldeen kopurua oso handia da: guztira 85 ekipo etorri dira aurten txapelketa jokatzera. Oso gustura aritu gara guztiok eurekin.

**Zapatuan San Martin plazan jokatu ziren partiduak eta atzo, aldiz, Labegaraietara joan behar izan zenuten eguraldiagatik.**

Bai, hala da. Ez da berdina plazan edo kiroldegian jokatzea. Kiroldegian ondo egoten dira haurrak, baina plazan egitea zeharo ezberdina da: han beste giro bat dago, kaleko giroa, eta jende gehiago ikusten da. Hala ere, gu pozik gaude eguraldi txarra egin duenean ere badugulako nora jo eta txapelketarekin jarraitu ahal izan dugulako Labegaraietako kiroldegian.

**Talde askok hartu duela parte aipatu duzu. Nongo taldeek?**

Debagoienako taldeak izan dira eta hemendik kanpokoak ere etorri dira: Donostiatik, Gasteiztik, Urretxutik, Azpeitiatik. Ia leku guztietako parte-hartzaileak izan dira.

**Nesken parte-hartzea zenbatekoa izan da aurten?**

Iaz bezalakoa. Urteroko gauza da: mutilak baino neska gutxiago etortzen dira beti. Hala ere, euren parte hartzea ona izan da. Guk nahiago genuke neska gehiago etortzea baina kopurua normalean berdina izaten da urtero.

**Herrian tradizioa duen txapelketa da hirukoa. Jendearen aldetik ze harrera izan du aurten?**

Ona. Gaur (domeka) guraso guztiak etorri dira, baita izena emandako talde guztiak ere eta alde horretatik oso pozik gaude. Gainera, aurten bagenuen izena emandako talderen bat atzera botako zenaren beldurra, eguraldiagatik. Azkenean ez da halakorik gertatu eta guztiak izan dira hemen.



Intza Lizarazu, zapatuko hiruko lehiaketan. | IURE EIZAGIRRE



Senior mailako finalerdia. | I.S.



Eskualdeko umeak domekan jokatutako partiduan. | I.S.

## Saskibaloiko profesionalen mahai-ingurua

Hirunako Txapelketa izan da aste honetako kirol ekitaldi nagusia herrian baina saskibaloiarekin lotutako beste ekintza batzuk ere egin dira astean zehar. Eguaztenean, esaterako, mahai-ingurua izan zen Miguel Altuna Institutuan. Iraurgi taldeko entrenatzaile Jurgi Caminok, Natra Oñati taldeko jokalari Asier de la Iglesiak eta egun ACB mailan dagoen epaile gipuzkoar bakarra den Ruben Sanchezek hartu zuten parte mahai-inguruan.

Ekitaldi arrakastatsua izan zen, izan ere, 50 pertsona inguru erakarri zituen euren jardunak. Gonbidatuen esperientziari esker, saskibaloia ikuspuntu ezberdinetatik ezagutzeko parada izan zuten bertaratutakoek.

Eguenean, berriz, saskibaloiarekin lotutako haurrendako film bat eman zuen Bergarako Kirol Elkarteak eta 30 neska-mutiko batu ziren.



Partiden ostean alebinek eta benjaminek argazkia atera zuten Marian Melladorekin. | JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

# Beñat Rezusta bergararrak gaur egingo du debuta profesional mailan

## Eibarko Astelehena pilotalekuan arituko da Lasarekin batera estreineko partidu honetan

**ANE ETXEBERRIA** | BERGARA

Beñat Rezusta bergararrak profesional mailan debuta egingo du gaur Eibarko Astelehena pilotalekuan. 20 urteko gazte bergararrak, Aritz Lasarekin batera, Jaka eta Peñagarikanoren aurka jokatuko du. Oso pozik azaldu da Rezusta: "Oso pozik nago, nahiko kolpetik etorri den aukera da, izan ere, Asperekin zenbaitetan entrenatu naiz, baina ez nuen espero halako deirik jasotzea", adierazi du. Urduritasun apur bat ere baduela aitortu du eta partidu aurretik ere izango duela, baina behin partidua hasita dena pasako zaiola uste du: "Ni saiatuko naiz pentsatzen partidu bat gehiago dela. Nire helburua izango da ondo jokatzea eta itxura ona ematea", esan du.

Rezusta ez da, baina, Astelehena pilotalekuko partidu honetako berri bakarra, izan ere, bere arerio Jakak ere estreineko partidua izango du profesional mailan, hortaz, "urduritasuna hobekien kontrolatzen dakienak partidu hobeagoa egingo du". Bere ezaugarriei dagokienez, Rezusta jokalari atipikoa dela esan daiteke, arraroa baita –pilotari gutxi daude behintzat– atzelariak izan eta ezkerrarekin pilota jotzea. Pilotari gehienek eskumarekin jokatzen dute eta ezkerra landu behar izaten dute, baina Bergarakoaren kasuan ezberdina da.

Aspe enpresak bi urterako kontratua egin dio eta bere helburua da bi urte horiek ondo aprobetxatzea eta ahal duen lan onena egiten saiatzea.

### Gazte txapelduna

Gaztea bada ere, hainbat txapelketa irabazi ditu dagoeneko Bergarako 20 urteko mutil honek; azkena Mallabiko torneoa izan da, eta orain hilabete gutxi Bergara Hiria irabazi zuen. Iaz, aldiz, Mundialeko saria bereganatu zuen eta Hiri arteko Txapelketan ere bergarar gazteak jantzi zuen txapela.



Beñat Rezusta Bergarako pilotalekuan. | GOIENA

MENDIA

# Iñurrategi, Vallejo eta Zabalza hormatzarrera hurbildu dira egunotan

## Gaur paretara bueltatzeko asmoa dute eskalada hasiko duten eremuraino materiala eroateko

**MIRIAN BITERI** | ARETXABALETA

Basque Team-eko Alberto Iñurrategi aretxabaletarra, Juan Vallejo eta Mikel Zabalza Paiju Peaken (6.610 metro) magalera heldu ziren eguaztenean, eta eguenean ekin zioten aurretik duten erronkarako prestaketa lanari. Hiru orduko ibilaldia egin zuten, paretaren magalera hurbilduz: ibilaldian, 1.000 metro egin zuten gora, paretaren magalera iristeko beste 500 metroko desnibela zuten arren.

Zain duten harrizko hormatzarrera egindako gerturaketa horretan ezin izan zuten berau ondo aztertu, eta hori beharrezkoa da erasoa noiz egingo duten aztertzeko. Paretaren oinarrian (4.800 metrotan) egon beharko dute horretarako, askotan dauden arroka eta izotz luiziak saihestu ahal izateko eta segurtasuna bermatzeko.

Azken komunikazioan azaldu dutenez, Paiju Peak 2013 Espedizioak zapatu arratsaldean oinarrizko kanpalekutik ostera ere ateratzeko asmoa zuen, 1.000 metroko desnibela igotzeko, eta bertan lo egiteko.

### Azterketa sakona

Atzo, goizean goiz, paretaren oinarrira heldu nahi zuten mendizaleek lehen azterketa sakona egiteko. Eta gaur, astelehena, itzuliko lirateke kanpalekura atseden hartzeko; dena dela, egunean zehar paretara itzultzeko asmoa dute eskalada hasiko duten eremuraino materiala garraiatzeko.

Hirukoak zazpigarren egitasmoa izango du elkarrekin; 6.610 metroko Paiju Peak mendia hegoaldeko aurpegitik igotzeko asmoa dute. 2009 urtetik, erronka ederrak egin dituzte, hala nola, Makalu, Hornbein, Broad Peak, Nuptse eta Antartikako zeharkaldia kometa bidez tiratutako lerekin.



IMANOL SORIANO

GIMNASIA ERRITMIKOA

# Ikasturte amaierako erakustaldia Labegaraietan

Bergarako Ariznoa taldeko gimnastek erakustaldia eskaini zuten egubakoitz arratsaldean Labegaraietan; 5 eta 20 urte bitarteko 88 neskek parte hartu zuten. Besteak beste, urtean entseatutako ikuskizunak, banakako ariketak eta erakustaldirako sortutako emanaldi musikalak egin zituzten.



I.S.

FUTBOLA

**Aitor Orueta** | Futbol entrenatzailea

# "Alavesko kadete txikia erronka polita da, Aloña osasuntsu utzita"

- Arabako territorial mailan lehiatuko da irailetik aurrera Arabako eta Errioxako taldeekin
- Aloñako koordinatzaile lana utziko du, nazional mailako entrenatzaile titulua lortuta

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aitor Oruetak (Oñati, 1975) Aloña Mendiko koordinatzaile lana utzi eta Gasteiz alderako bidea egingo du. Alaveseko kadete txiki taldeaz arduratuko da. Nazional mailako entrenatzaile titulua lortuta, azpiegitura profesionala duen klub batera egin du salto. Etxekoen eta lagunen elkartasuna dauka erronka berriari aurre egin ahal izateko.

**Zorionak! Etxetik gertu, baina profesionala den klub bateko kide izango zara.**
Eskerrik asko. Erronka polit bezain gogorra izango da. Baina ezin nuen aukera galtzen utzi. Hasteko gogoz nago.

**Bat-batean hartutako erabakia izan da, ala ondo hausnartutakoa?**
Denboraldi hasieran esan nion Aloñako zuzendaritzari klubean egin beharreko bidea bukatzear zegoela. Urte asko eman ditut Aloñari onena emateko lanean, eta, egoista izanda, entrenatzaile lanetara itzuli gura nuela esan nien. Hori horrela, harrobiko talde baten ardura hartu nuen irailean, baina, kanpoko eskaintzaren bat jasoz gero, Aloña utziko nuela esan nien. Denboraldi osoa egin dut Oñatin, eta orain jaso dut eskaintza.

**Nola jaso zenuen proposamena?**
Alaveseko harrobiko futbolaren egungo koordinatzailea eta denboraldi berriko koordinatzailea gelakide izan ditut entrenatzaile titulua lortzeko ikasturtean. Eurengandik jaso nuen kadete txikia entrenatzeko eskaintza. Asko harritu ninduen, baina pozik nago. Ezin dut ukatu.

**Aloñan zuk egindako entrenatzaile lana ezagutzen zuten?**
Gauza bera galdetu nien nik, eta ezetz esan zidaten. Ez nautela inoiz zuzenean lanean ikusi, baina eskolan izandako jarrerak eta futbolarekiko dudan zaletasunak eta lan egiteko gogoak euren arreta piztu zutela.

Futbolaren gainean ditudan ezagutzengatik eta aurrera egiteko dudan ilusioarengatik aukeratu naute.

**Proposamena onartu aurretik, asko hausnartu zenuen?**
Proposamena egin zidan unean, azterketa praktiko baten erdian geunden. Une hartan, eskaintza ahaztu, azterketa egin eta etxera joan nintzen. Hurrengo egunean telefonoz deitu eta baietza eman nion. Ezin nuen ezetzik esan. Aurrera egiteko aukera bikaina da. Futbola nire bizitza da, eta Alavesera joateko aukera, akaso, errepikaezina.

**Gainera, etxetik gertu eta klub profesional baten.**
Beste edozein lekutako eskaintza jasota ere ez nukeen ezetzik esango. Baina bai, Gasteiz etxetik gertu dago eta Alavesek azpiegitura profesionala dauka.

**Kadete txikien taldeaz arduratuko zara. Aurten ere txikiekin ibili zara Oñatin.**
Aloñan 13 urteko mutikoekin ibili naiz, eta Alavesen 14koekin. Maila ezberdinetan daude, baina, adina oso antzekoa denez, ondo moldatuko naizela uste dut.

**Ze mailatan jokatuko duzue?**
Maila territorialean jokatuko dugu. Arabako taldeek Errioxakoekin jokatzen dute maila horretan: Gasteiz, Laudio, Amurrio... Kadete nagusien taldeak Euskadiko Ligan jokatuko du.

**Urduri, kezkatuta, arduratuta... Nola zaude une honetan?**
Gehien kezkatzen nauena hartuko ditudan jokalarien inguruan daudenen influentziak dira: izan guraso, lagun edo kanpoko beste edozein faktore.

Alavesen dauden mutikoek profesional mailara heldu gurako dute, eta, bide horretan, gurasoen lana oso inportantea da. Indar handia dute mutikoengan. Bada, eragin hori zenbateraino koa den jakiteak arduratzen nau gehien.

**Gasteiz etxetik gertu dago, baina entrenamenduak eta lana bateratzea ez da erraza izango. Nola moldatuko zara?**
Aurten murrizketarekin egon naiz lanean, entrenatzaile titulua atera eta infantilen lan saioak antolatzeko. Datorren denboraldiari begira, lana eta futbola bateratzen ahaleginduko naiz. Dena den, futbola lanaren gainetik dago une honetan, eta aukeratu beharra ez izatea espero dut.

**Egitura profesionala duen elkarte batera joateak gauza txarrak izan ditzake. Entrenatzailearen lana ez bada ona, edo emaitzek laguntzen ez badute, kaleratua izan zaitezke. Mentalizatuta zaude?**
Bai, salto handia da: herriko klub batetik, klub profesional batera. Aloñan sinatutako kontratuek ez daukate klausularik, soldatarik ez daukagun neurrian. Alavesekoak izango ditu. Oraindik ez dakit zenbat urterako kontratua sinatuko dudan, baina, profesionala den unetik, exijentzia maila handia ekarriko duela badakit.

Gainera, emaitzak onak ez direnean, entrenatzailea arriskuan egoten da, eta ni egoera horretan egon naiteke. Dena den, egunen baten kalera joan behar badut, nire printzipioak sendo mantenduta joango naiz. Burua tente izanda. Ez daukat zalantzarik.

**Futbol profesionala ezagutzeko aukera izango duzu, baina Aloñan egindako urteak ez dituzu berehala ahaztuko, ezta?**
Hori ezinezkoa da. Ni oñatiarra naiz eta Aloña barnean daramat. Aloñarenganako sentimendua oso indartsua da. Ahazten ez den horietakoa.

**Hain justu ere, sentimendu hori berpizten eta indartzen eman dituzu azken lau urteak.**
Bai, hala da. Zuzendaritza batzordea niregana laguntza eske etorri zenean, garbi esan nien zeintzuk ziren nire helburuak: lokartuta zegoen sentimendua esnatzea eta indartzea; eta etxeko jokalariz osatutako talde nagusia izatea. Helburuak betetzeko inbertsio handia egin zuen zuzendaritzak, eta lanean hasi ginen.

Harrobiko taldeekin kirolzaletasuna, parte-hartzea, autonomia eta entrenamenduak nola antolatu landu genuen. Gainera, lau urteren ondoren, lortu dugu etxeko jokalariz osatutako taldea izatea. Aloña Mendi osasuntsu dago kirol arloan, eta horren adibide da 15 egunean behin Azkoagainen dagoen giroa. Lagunarte bat sortu dute eta bufandak egin dituzte.

**Aloña osasuntsu uzten duzu, orduan!**
Bai. Alaveseko kadete txikien taldea erronka polita da, baina lasaiago noa, Aloña Mendi osasuntsu dagoela ikusita.

**Azkoagainen ikusiko zaitugu?**
Bai, horixe! Partiduek uzten didatenean Azkoagainera joango naiz. Sentimendu hori ez da galduko. Egun naizena Aloña Mendiri zor diot. Hori esan diet zuzendaritza batzordekoei. 19 urterekin Aloñan hasi nintzenean, eta egun, Aloña utzi dudanean, zuzendaritzan pertsona berberak daude. Elkarrekin egin dugu bidea. Elkarrekin hazi gara. Horregatik guztiagatik, lerro hauek aprobetxatu gura ditut guztiei eskerrak emateko: klubeko arduradun, jokalari, guraso eta zaleei.



Aitor Orueta, Azkoagain futbol zelaian, aurreko astean. | MIREIA BIKUÑA

> "Futbolaren gainean ditudan ezagutzengatik aukeratu naute"

> "Arabako eta Errioxako kadete mailakoekin lehiatuko gara"

> "Egun naizena Aloña Mendiri zor diot, eta hori ez dut inoiz ahaztuko"

# Irakurzaletasuna bultzatzeko saihestu beharreko zenbait jarrera

Irakurtzeak ezin du zigorra izan, eta gustuak kontuan hartu behar ditugu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Jolaserako, aisialdirako eta atsedenerako egunak datoz neska-mutikoendako. Lan ohiturak ez galtzeko, ordea, egunero apur bat irakurtzeko gomendatzen dute irakasleek. Sara Tarres psikologoari irakurri diogu ez dakiela zehatz irakurzaletasuna nola bultzatzen den, baina ezagutzen dituela saihestu beharreko zenbait jarrera: "Irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin gurasook egiten ditugu konturatu gabe justu kontrakoa lortzen ari garela", dio Tarresek. Hala, "hezteko arte delikatu honetan" saihestu beharko genituzkeen hamar jarrera zerrendatu ditu.

**Saihestu behar direnak**

Tarresen ustez sarri umeak behartu egiten ditugu irakurtzera, eta ez da komeni. Desegokia da, baita ere, irakurtzea zigorra izatea: "Itzali telebista, eta irakurri!". Horrela planteatuta umeak konnotazio negatiboa hartuko dio irakurtzeari.

Umearen gustukoak diren irakurgaiak topatzen ahalegindu beharko genuke. Haurraren gustuak gutxiestea, liburuak etxeko lanekin soilik lotzea, edo irakurgai ezegokiak eskatzea jarrera kaltegarriak dira gehienetan. "Ez irakurgairik inposatu, ez kontrolatu irakurtzen duen guztiak, ez nabarmendu behin eta berriz irakurtzerakoan egin dituen akatsak, eta ez eskatu behin eta berriz irakurri duenaren gaineko laburpena egiteko". Adituaren esanetan kalterako da, baita ere, umeari behin eta berriz esatea irakurtzea zein garrantzitsua den, eta zenbat onura dituen.

**Irakurgai egokiak aukeratu**

Ahal den neurrian, irakurgai egokiak aukeratzeko gomendioa egiten du Tarresek. "Irakurgaiak umearen beharren, gustuen eta gaitasunen arabera aukeratuko ditugu, eta kontuan hartuko ditugu liburuaren luzera, gaia eta zailtasun lexikoa", dio Sara Tarres psikologoak.



Umea irakurtzen. | RODRIGO M. PAZ

# Gure moduan umeek ere gustura hartzen dituzte opor luzeak, eta etenaldi hori ondo etortzen zaie

Txatxilipurdi elkarteko Mirari Arandoren esanetan, ikasturteko erritmoa eteteko une aproposa dira udako oporrak, eta kontuan hartu behar da hori

L.Z. | ARRASATE

Neska-mutikoek amaitu dute ikasturtea. Gurasook, sarri, umeek oporrak ondo aprobetxatzea nahi dugu, baina zer da oporrak ondo aprobetxatzea? Mirari Arando Goiena Telebistako *Magazinea* saioan izan da gai horren inguruan berba egiten.

Txatxilipurdi elkarteko Haur Sailaren koordinatzailea da Mirari Arando, eta argi du oporrak egunerokotasunarekin apurtzeko eta atseden hartzeko baliatu behar ditugula. "Aldaketak beti datoz ondo, eta egunerokotasunarekin apurtzea ere bai. Mantendu daitezke errutina batzuk, baina malgututa. Ikasturtean zehar erritmo handia eramaten dute umeek, eta horrekin moztea komeni da".

Oporrak ondo aprobetxatzearen kontzeptuaren inguruan honela dio: "Umeek ondo dakite oporrak nola aprobetxatu, eta tarteka aspertzen badira ere hori onuragarria ere izan daiteke. Sormena lantzen dute sarri aspertuta daudenean".


Haurrak iaz udalekuetan. | L.Z.

**Udalekuen aukera**

Gaur egun udalekuak izan ohi dira familia askoren aukera udan. Mota eta iraupen askotarikoak daude, eta aukeraketa nola egin galdetuta Arandok gomendatu du haurraren iritzia kontuan hartzeko. "Umearen beharrak hartu beharko genituzke kontuan. Berari galdetu, eta esaten duena kontuan hartu beharko genuke. Aukera oso zabala da: udalekua irekiak, itxiak, tematikoak... Ume bakoitzak bere gustuak eta erritmoa dauzka. Batzuk ez dute sekula udalekuetara joan nahi, beste batzuk berehala apuntatzen dira...". Udalekuekin etxetik kanpora doan lehenengo aldia bada haurrarekin lasai hitzegiteko esan du Arandok: "Umeek ondo pasatzen dute, lagunartean daude, jolasak ikasten dituzte... euskarazko udalekuak badira, euskarak ere garrantzia hartzen du... eta aisialdi hezitzailea bada beste balore batzuk barneratzen dituzte", azaldu du. "Lasaitasuna transmititu behar dugu umea bera lasai egoteko. Galdetu zer espero duen, joatea nahi duen bai edo ez... Eta ez dut gomendatzen ume bat gogoz kontra udalekuetara bidaltzea", esan du.

**Oporren planifikazioa**

Oporrak familian badira umeen beharrak eta erritmoak kontuan hartzeko eskatu du Arandok. "Kontuan hartu behar dugu ez goazela helduak bakarrik, eta planifikazio bat egin behar da".

Oporretako etxeko lanen inguruan, berriz, honakoa esan du: "Helduoi gustatzen zaigu opporretara laneko kontuak eramatea? Ba umeei berdin. Baina gaur egun etxerako lanak ekartzen dituzte eskolatik. Uste dut apropos motibazioz hartzea dela, eta jolasaren bidez lanketa ezberdinak egitea. Ikasi behar dutena, gutxienez, gustura ikasteko".

# Gazteen artean edari energetikoen larregiko kontsumoa antzeman dute

Edari energetikoen kontsumoaren erdia 12-25 urte bitarteko gazteek egiten dute

L.Z. | ARRASATE

Edari energetikoen kontsumoarekin arduratuta 52.000 lagunekin Europa mailako ikerketa egin du EFSA osasun erakundeak.

Ikertzaileendako edari energetikoa da edari ez alkoholikoa baina kafeina, taurina edo bitaminak dituena. Kirolariek kontsumitzen dituzten edari isotonikoak kanpoan utzi dituzte.

Datu kezkagarriak azaleratu ditu ikerketa horrek: umeen %18k kontsumitzen ditu edari energetikoak; 3-10 urte bitarteko hamar umetik bik edaten dituzte; eta hamar urtetik beherako gazteen %20ak bataz beste bi litro kontsumitzen ditu hilean. Gainera, gazte horien %16a edari energetikoen kontsumitzaile kronikoa da.

**Osasun arazoak**

Osasun adituak kezkatuta agertu dira emaitza horiekin, eta gogora ekarri dute 12 urtetik beherako umeek ez lituzketela edari energetikoak probatu ere egin behar.

Kafeina intoxikazioa da arrisku nagusia, baina edari energetikoek osasun kalte ugari eragiten dituzte, izan ere, eragina dute loaren kalitatean, haur loditasunean, tentsio arterialean, gluzemia kasuetan, hortzen eta hezurren gaitzetan... Adituek uste dute Europako erakundeek neurri zorrotzak hartu behar dituztela.


Mutikoa freskagarriarekin. | LORENZO HERRERA

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

# SAN JUA NAK

**GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | JAIAK: SAN JUANAK 2013, ARRASATEKO JAIAK**
ASTELEHENA, EKAINAK 24, 20:15 ETA 23:00 | TXOMIN MADINA AURKEZTUA

**GOIENA TELEBISTA | JAIAK: SAN JUANAK 2013, ARRASATEKO JAIAK**
EGUBAKOITZA, EKAINAK 28, 22:30

**BABESLEA:**
CITROËN
TALLERES CHAPIME



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# KULTURA


Oihalekin jolasak egiten ikasi zuten tailerretako batean. | IMANOL SORIANO


Askotariko materialez egindako produktuak jarri zituzten salgai. | I.S.

# Artisauen sormenek Arrasateko Seber Altube alaitu zuten zapatuan

- Eskuartean elkarteak azoka eta umeei zuzendutako ezohiko tailerrak egin zituen
- Urtebetean osatu eta sendotu egin da taldea; egun, 12 bat lagunek osatzen dute

**MIRIAN BITERI** | ARRASATE
Bailarako artisauen lana sustatzea eta horren bueltan dabilen jendea batzea. Horixe da Eskuartean elkartearen helburua. Horrelaxe azaldu digu Arantzazu Lagunilla kideak: "Artisautzaren munduan dabilen jendea elkartzea da asmoa, gauzak eta jakituria gure artean partekatzea eta bateratze horretatik hainbat ekimen egitea elkarlanean. Baina, betiere, artisautza bultzatuz, eskuekin eta materialak eraldatuta sortzen den prozesu hori sustatuz".

Elkartea eratzeko prozesuaz ere egin digu berba arrasatearrak: "Nik uste kasualitatea izan dela, azoka ezberdinetan ibiltzeagatik elkar ezagutzen joan gara eta ikusi dugu elkartuz, talde bat sortuz, indarra eta presentzia irabaziko dugula herrian, eta baita erakundeen aurrean ere. Iaz izan zen elkar ezagutze prozesu hori eta urtebetean taldea osatu eta sendotu dugu". Abenduan sortu zuten ofizialki Eskuartean elkartea.

**Ateak zabalik**
Bereziki arrasatearrez osatuta badago ere, beste hainbat herritako artisauendako ere zabalik daude ateak. Horren harira, honakoa nabarmendu gura izan du Lagunillak: "Norbaitek gure taldean sartu gura badu, lasai gerturatu daiteke geuregana. Egun, 12-13 pertsona gaude taldean sartuta".

Abenduan sortu ostean, elkarteak Gabonetan egin zuen lehen topagunea, Santamasetako postuetan dagoeneko identifikazio txartela baldin bazuten ere; eta joan den zapatuan bigarrena egin zuten, Arrasateko Seber Altube plazan. Goiza lasai hasi bazen ere, eguerdi parterako, herriko nahiz inguruko lagunak elkartzen hasi ziren Seber Altuben jarritako zortzi posturen bueltan; eskuz egindako askotariko bitxiak eta osagarriak ikustera, eta batzuk, bide batez, larruarekin, makramearekin, zilarrarekin edo oihalarekin egindako zerbait erostera. Horrez gain, henna erabilita, larrua margotzeko aukera egon zen, eta baita Aretxabaletan sortutako Bertikal jokoa ezagutzeko ere.

**ESANAK**

"Azoketan ibiliz, elkar ezagutzen joan gara, poliki poliki"

"Taldea sortuz indarra eta presentzia irabaziko dugu"

**ARANTZAZU LAGUNILLA** | ESKUARTEAN ELKARTEKO KIDEA

**Umeen sormena**
Etxeko txikiekin ere gogoratu ziren Eskuartean elkartekoak, eta horien sormena lantzeko asmoz, *Zu zeu artista* izeneko tailerrak antolatu zituzten. Txikienek oihalarekin jolasten eta aurpegia margotzen zuten bitartean, gaztetxoek banbuarekin eskumuturrekoak egiten ikasi zuten.


**NAGORE INTXAUSTI**
ARTISAUA
"Baztandik etorri gara, elkarteak gonbidatuta. Oso ondo ikusten dut elkartea sortu izana, elkarren artean laguntzeko da-eta".


**EDURNE GOROSABEL**
BISITARIA
"Pintura lehiaketa ikusteko irten naiz, eta azokarekin egin dut topo. Elkartea oso ondo dago, horrelako azokak bultzatzeko".


**JOSE ANTONIO VAZQUEZ**
ARTISAUA
"Hondarribitik etorri gara; guk ere elkartea dugu han, eta uda partean, hemengoekin elkartrukea egingo dugu".


**LARA GONZALEZ**
ARTISAUA
"Bi posturekin nago: Garabatea bitxikeriak, batetik; eta Bertikal jokoa, bestetik. Bertako produktuak bultzatu behar dira".


**ARANTZAZU LAGUNILLA**
ANTOLATZAILEA
"Pozik gaude azokak izandako harrerarekin, jendea animatu da, eta baita eguraldia ere. Hurrengo ekimenean pentsatzen gabiltza".



Ordubete inguruko ibilbidea egin zuten domeka goizean Uzarragako berezitasunak ezagutzeko. | JOSETXO ARANTZABAL

# Uzarraga bizirik mantentzen laguntzeko deia egin dute

## Ingurua ezagutzeko irteera egin zuten domekan

**OIHANA ELORTZA** | ANTZUOLA

"Uzarraga herritarren gunea dela uste dugu. Auzotarrek erabili dute beti. Elizak zuen jabegoa, baina utzi egin du, hustu egin du, eta guk gura dugu Uzarraga zutik mantentzea eta herritarrendako erabilera bultzatzea. Eta aldarrikapen hori egiteko antolatu dugu Uzarraga ezagutzeko irteera", adierazi zuen domeka goizean Uzarraga Bizirik plataformako Jose Mari Iturbe antzuolarrak.

### Jauntxoen hilerria

Uzarragan sortu zen Antzuola. Uzarragakoa izan zen Antzuolako lehen parrokia. Eliza horrek eraldaketa bat baino gehiago izan ditu eta horiek ikusi zituzten, besteak beste, domekan 10:30ean egin zuten irteeran. "Auzoko eskola ere hementxe egon zen 1965 urte ingurura arte, lehengo elizako sakristian", azaldu zien Iturbek irteeran parte hartu zuten 30 lagun ingururi.

Iturriaren sorlekua eta hilerri zaharra ere bisitatu zituzten. "Pinudi batean dago eta ez da oso ezaguna, gertu egon arren, baina Debagoieneko hainbat jauntxo hemen lurperatu zituztela dioten dokumentuak badaude", kontatu zuen Iturbek. "Beheko iturria 1960ko hamarkadakoa da, baina horren sorlekua eta batez ere ura garraiatzen duen bidea oso zaharrak dira; harrizko tuberia batetik behera doa ura", jarraitu du. Uzarraga bizirik mantentzen laguntzeko deia, "bakoitzak ahal duen neurrian", egin diete herritarrei plataformako kideek.



Iturriaren sorlekuari begira. | J.A.



Garai bateko auzo-eskolan; ganga formakoak dira sabaiak. | J.A.



Tomas Arbulu alkatea 1992ko San Juan egunean. | UZARRAGA BIZIRIK

### Udal ordezkariak urtero joaten ziren

San Juan egunean festa handiak egin ohi zituzten Uzarragan. Duela 35 urtera arte, adibidez, udal ordezkariak hara joaten ziren, eta dantzariek arkua egiten zieten, goiko argazkian ikusten den moduan. Balentina sukaldariaren ostatuan bapo bazkaltzen zuten guztiek. Elizak ere duela urte gutxira arte eutsi dio lorak bedeinkatzeko ohiturari. Atzoko ekitaldira elizgizonak ere gonbidatu zituzten herritarrek, baina ez ziren joan.





Leire eta bere lagunak jolastu gura dutela kantuan eskatuz. | IMANOL SORIANO



Piratak izatera ere jolastu zuten umeek arratsaldean parkean. | I.S.

KRONIKA

# Jolasteko denbora falta denean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Denbora ondo aprobetxatu behar dela eta denetariko gauzak egiteko denbora hartu behar dela. Horixe da Ganbara Txikik zapatuan aurkeztu zuen *Tiempo* musikalaren mezua. Denbora kapritxosoa dela, luzea edo motza izan daitekeela eta etekina atera behar zaiola. Gurasoendako eta seme-alabendako da mezua.

**Denbora denerako**

Naroa Zumaldek antzezten duen Leire da musikaleko protagonista. "Leirek jolas egin gura du, baina amak saskibaloia, musika edo beste zerbait duela gogorazten dio beti. Eta Leirek jolasteko denbora izatea gura du", dio Zumaldek. Ezintasun horren aurrean, etxetik ihes egitea erabakitzen dute hiru lagunek. Dordoka bati jarraiki, jolasten pasatzen dute arratsalde osoa, parkean lo gelditu arte. Hurrengo goizean, goseturik, etxerako bidea hartzen dute. Gurasoak zain dituzte. "Barkatu, baina guk jolas egin gura genuen", erantzun diete gaztetxoek. Denek ulertu dute denerako atera behar dela denbora, dantzarako, ikasteko, jolaserako zein lanerako.

**FITXA**

GANBARAKO KANTU ESKOLEN KURTSO BUKAERAKO EMANALDIA

**GANBARA TXIKIK 'TIEMPO' MUSIKALA AURKEZTU DU**

**Estiloa:** Musika korala.

**Non:** Santa Ana antzokia.

**Eguna:** Zapatua, ekainak 22, 19:00.

**Iraupena:** 30 minutu.

Ganbarak gazteleraz egin duen lehen musikala da. "Jatorrizko lana gazteleraz dago idatzia, eta horri eustea erabaki dugu", azaldu du Aitor Biain zuzendariak.

**Ekaineko emanaldia**

*Tiempo* musikalak eman zion hasiera Ganbarako kantu eskolek zapatuan Santa Anan egin zuten ikasturte bukaerako emanaldiari. Oholtza gainean, 3 eta 16 urte bitarteko 100 gaztetxo inguru, txandan txandan, kantuan eta dantzan, eta eserlekuetan, beste horrenbeste senide. Ganbara Txikiz gain, bi tailerrek, Ganbara Txikitxoak eta Ikastetxeetako Abesbatzak ere abestu zuten. Eli Mendiaraz eta Arazeli Guridik jo zuten pianoa eta Aitor Biainek, Miren Gurutze Plazaolak eta Josu Zubiak zuzendu zituzten taldeak.



Dekoratuak gurasoek egin dituzte. | I.S.



Oholtzaren alboan abesten, Biainen zuzendaritzapean. | I.S.



Mozorrotzea eta dantzatzea ere jolasa da. | I.S.

# Oporrak hartu aurreko azken kontzertua egin du Bergarako Orkestra Sinfonikoak

## Ordubete iraun zuen kontzertua egin zuen zapatuan Santa Marina parrokian



Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendu zuen emanaldia. | I.S.

O.E. | BERGARA

Azken urteetan egin duen bezala, aurten ere Santa Marina parrokian egindako kontzertuarekin bukatu du ikasturtea Bergarako Orkestra Sinfonikoak. Zapatu iluntzean egin zuen emanaldia, eta herritar dezente erakarri zituen.

**Orkestrako entzuleak**

Bergarako Udal Musika Bandak ez bezala, Orkestra Sinfonikoak ez ditu hilero egiten kontzertuak. Bandak baino maiztasun txikiagoz jotzen du orkestrak, eta jendeak gogoz entzuten ditu egiten dituen saioak. Zapatuko kontzertuan ere ikusi zen hori. Jende dezente joan zen, bandako kontzertuetarako joan ohi ez direnak tartean, eta kontzertuaz disfrutatu zuten. Izan ere, orkestrakoek bandan jotzen ez dituzten instrumentuak ere jotzen dituzte, eta doinua, musika, ezberdina da erabat, eta entzuteko gogoz egoten dira hainbat herritar.

Ikasturte bukaerako kontzertua izanik, ikasturte barruan landutako piezak jo zituzten zapatuko saioan; zazpi obra guztira. Ia ordubete iraun zuen emanaldiak.

**Oporrak irailera arte**

Udako oporrak hartu aurreko azken kontzertua izan zen zapatukoa. Bukatu dira entseguak eta emanaldiak, oraingoz. Irailaren hasieran ekingo diote ikasturte berriari orkestra osatzen duten 55 lagunek. Pieza eta proiektu berriak izango dituzte datorren kurtsoko egitarauan.

25 urte bete zituen Bergarako Orkestra Sinfonikoak duela bi urte; 1986. urtean sortu zuten. Bergararrek eta antzuolarrek, 45 kidek guztira, osatu zuten lehenengo talde hura. 1986ko uztailaren 5ean eskaini zuten lehenengo kontzertua, Bergarako Mariaren Lagundiko aretoan.

GURE MUSIKA TALDEAK

AMD



Ezkerretik eskumara: Xabin, Pello, Manex, Aitor eta Manex. | AMD

# "AMDren oinarria rock-and-rolla da; ez 50eko hamarkadakoa, baina rock-and-rolla"

- Gaur gauean gaztetxeko oholtzara igoko dira AMD arrasatearrak
- Datozen asteotan estudiora sartuko dira lehenengo lana grabatzera

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

AMD, Aspira Mi Disparo, Arrasateko punk-rock-and-roll talde gazte bat da. Beste hainbat talde bezala, entseatzeko lokal bat lortu eta bertan sartu ziren 16 urte zituztenean, gogoko taldeen kantuak jotzeko. Ordutik hona, baina, sei urte pasatu dira eta dagoeneko AMD ez da gaztetan denbora-pasa moduan sortu zen proiektu bat. Gaur egun, boskoteak kontzertu ugari eskaini ditu eta estreinako diskoa grabatzeko prest dago. Gaur, baina, Arrasateko gaztetxean joko dute, San Juan jaien barruan; horrenbestez, taldea zuzenean ikusteko aukera aparta da.

**Noiz sortu zenuten AMD?**

2007. urtearen bueltan sortu genuen taldea Pellok, Xabinek eta nik [Manex]. Hala ere, Aitor proiektua hasi eta hiru hilabetera hasi zen gurekin abesten; beraz, laurok elkartu ginenean sortu zen AMD. Hasieran, Almen inguruan zegoen lokal batean entseatzen genuen; Aretxabaleta aldera egin genuen jo ahal izateko. Urte politak izan ziren, baina entseatzeko Arrasatetik kanpo joan beharra oztopoa zen, gutako inork ez zuelako autorik.

> "Bigarren gitarrak indarra eman die kantuei"

**Hala ere, orduko beste talde batzuetan ibilitakoak zineten.**

Bai; Pello eta Xabin, The Zucchinis taldean; eta ni, Bergaran, beste proiektu batekin. Hala ere, talde hauek ez ziren oso serioak, eta gu zerbait gehiago egiteko nahia genuen. Hori dela eta, elkartu eta besterik gabe jotzen hasi ginen. Denbora aurrera joan ahala, gauzak ondo zihoazela ikusi eta jarraitzea erabaki genuen. Horrez gain, esan bezala, Aitor abeslaria izan da hasieratik eta Jokin ere taldeko partaide izan zen duela hiru bat urtera arte.

**Gaur egun, baina, taldearen egoera egonkorragoa da, ezta?**

Bai, Jokinek utzi zuenean laukote bezala urte pare bat eman genituen, baina duela zortzi bat hilabete, Gorroto taldean gitarra-jole ibilitako Manex ere gurekin jotzen hasi zen. Horrez gain, orain lokala Arrasaten bertan dugu eta taldeari on egin dio, entsegu gehiago egin ditzakegu eta. Lokala 360 aretoa zenaren ondoan dugu; Arrasateko gaztetxeko lokaletan sartzeko ahalegina egin genuen, baina talde gehiegi zeuden itxaron-zerrendan. Beraz, beste talde batekin elkartu eta bertan sartu gara.

**Beste instrumentu bat taldean sartzeak izan du eraginik musikan?**

Bai, zalantzarik gabe. Laukote moduan eman dugun denboran, Pello gitarra-jolea gitarra erritmikoaz, punteatzeaz eta koruez arduratzen zen. Orain, baina, askatasun handiagoa du Pellok, eta Manexek ere kantuei bere ekarpenak egin dizkie eta kantuek indar handiagoa dute, base erritmikoa sendoagoa da.

**Zuen musika definitu beharko bazenute...**

Rock musikaren askotariko adarren influentziak ditugu. Rock-and-rolletik, hardcoreraino, ska musikatik pasatuta. Bakoitzak musika ezberdina entzuten du eta hori ezinbestean igartzen da. Hala ere, oinarrian rock-and-rolla dago; ez 50eko hamarkadako klasikoa, baina rock-and-rolla, azken finean.

**Beraz, hainbat influentzia batzen dira AMDn?**

Bai; influentzia nagusiak, normala den moduan, urteekin aldatzen joan dira. Jotzen hasi ginenean, Codigo Neurotico, MCD, La Polla Records eta Cicatriz ziren. Gaur egun, baina, musika mota gehiago entzuten dugu eta bakoitzak bide batetik jo du. Hala ere, denok gustuko ditugun taldeek hor segitzen dute.

**Diskoa grabatu behar duzuela entzun dugu.**

Gutxi barru, Aretxabaletako Nekrosounds estudiora joko dugu, ibilbidean zehar egin dugun kantu sorta grabatzeko. Guztira, 14 kantu izango dira, guztiak gureak, baina elkarren artean nahiko ezberdinak izango dira. Izan ere, azkeneko urteetan egin ditugun kantuak grabatuko ditugu, zaharren eta berrien artean aldea baitago. Azken finean, AMDk orain arte egindakoaren testigantza izango da.

**Lehenengo lana izango da; urduritasunik nabaritzen duzue?**

Egia esan, zertxobait, bai; estudio batean sartuko garen lehenengo aldia izango da. Kantuak prest eraman arren, tentsio puntu hori gurekin dugu, baina normala dela uste dugu.

**Zergatik aukeratu duzue Aretxabaletako estudioa?**

Manex gitarra-oleak bertan grabatu du, eta, emaitzarekin pozik amaitzeaz gain, harremana ere oso ona izan zen. Talde gaztea gara eta medio askorik ez dugula kontuan hartu behar dugu.

**Banaketa nola egingo duzue?**

Oraindik ez daukagu zehaztuta; edozelan ere, Teletetxoren laguntza izango dugula espero dugu. Diskoak, gero, Arrasateko tabernetan jarriko ditugu salgai eta zuzenekoetan saltzen saiatuko gara.

**Gaur gaztetxean joko duzue; zer aurkituko du bertara gerturatzen denak?**

Hasteko, diskoak jasotzen dituen kantu gehienak, eta, horrez gain, ikusleak berotzeko bertsio batzuk joko ditugu, hala nola Kiss, Hertzainak eta Codigo Neurotico. Aukera polita da herriko jaietan jotzea, jende ugari hurbiltzen delako gaztetxera.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Pisua salgai/ alokairuan Muntsaratzen. Sukalde -egongela, 3 logela, bainugela eta komuna, balkoi handia, igogailua eta berogailua. Garajea eta ganbara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-681 68 91.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Ibarra kalean. 105 metro. Trastelekua eta ganbararekin. Hiru logela. Dena kanpokaldera begira. Aukera ona. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 70 84 20

**Bolibar (Bizkaia).** Bolibarren etxea salgai, lur sailekin edo gabe. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-35 80 67

**Durango.** Pisua salgai Durangoko erdigunean. Bi logela. Berriztatuta. Denak kanpora ematen du. Oso argitsua edo eguzkitsua. 120.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 695-70 24 61.

**Eibar.** Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar -hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Interesatuok deitu telefono honetara: 656-78 60 97.

**Elorrio.** Etxebizitza salgai Elorrioko erdigunean, estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. 198.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-45 72 01.

**Garai.** Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m2-ko lursaila. Garaiko San Migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jatetxeak(2) eta bus geltokitik 150 metrotara. Durangotik 10 minutura. Ap-8 autopistatik 5 minutara. 639-83 34 89. jo.amantegi@gmail.com.

**Gasteiz.** Pisua salgai San Martin auzoan (125m2, 2. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, ipar-hegoaldera begira. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bi komun ditu; baita balkoia, aparkaleku eta trastelekua ere. Altzari eta guzti. Berogailua gas bidez. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 253.000 euro.

**Iurreta.** Iurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 685-72 80 42.

**Iurreta.** Iurretan Zubiaurre kalean pisua salgai. 70 m2, 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea. 30 m2ko terraza. Berriztatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636-40 26 67.

**Mallabia.** Mallabian baserri berriztatua eta 6.000 m2-ko lursaila salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639-97 26 85.

**Mallabia.** Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta gongela. 100m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. Interesatuok deitu zenbaki honetara:695-77 31 41.

**Oñati.** Duplexa salgai. Berria. Urte bat baino gutxiago dauka. Lau logela eta hiru komun. Beheko solairua jantzita dago. Erdigunetik oso gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656-74 29 49.

**Otxandio.** Otxandion apartamentua salgai. Altzariz jantzia, trasteleku eta igogailuarekin. 675-71 72 83.

**Otxandio.** 65m-ko pisua salgai, altzariz jantzia, bizitzera sartzeko moduan. 1. Solairua, 2 gela, egongela, sukaldea eta komuna. Denak kanpokalderantz ematen du, gainera, 3. Solairuan 6 m2-ko trasteleku bat dauka leiho batekin, estudio txiki baterako oso aproposa. Eraikuntza 2003. Urtekoa da. 120.000 euro. 634 -44 47 76.

**Otxandio.** 65m-ko pisua salgai, altzariz jantzia, bizitzera sartzeko moduan. 1. Solairua, 2 gela, egongela, sukaldea eta komuna. Denak kanpokalderantz ematen du, gainera, 3. Solairuan 6 m2-ko trasteleku bat dauka leiho batekin, estudio txiki baterako oso aproposa. Eraikuntza 2003. Urtekoa da. 120.000 euro. 634 -44 47 76.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Muntsaratz auzoan, pisua alokagai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:652-73 63 39.

**Abadiño.** Pisu txiki bat alokagai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 661-45 24 73 (Arratsaldez deitu).

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi logela. Jantzia. Egoera oso onean. 635 72 87 62

**Almazan (Soria).** Famili oporretako apartamentua alokagai. 2-4 pertsona, 2 logela, 2 bainugela, sukalde ekipatua eta egongela. Eroso eta lasaia. Igogailua. Udal igerileku bikaina. Uztaila: astean 250 euro / abuztua: astean 350 euro. Mar. 659-57 01 80 apartamentosoria@ yahoo.es

**Bastida.** Labastidan oporretako pisua alokatzen dut piszinarekin. Torre - otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45. iarteaga_@hotmail.com.

**Conil de la frontera (Cadiz).** Etxetxo urdina alokatzen da. Herritik eta hondartzatik 3 minututara. Bi logela, komuna, sukalde-egongela, lorategia eta barbakoa. 4 pertsonendako egokia, zona oso lasaia eta aparkatzeko arazorik ez. 600-59 65 38

**Conil (Cadiz).** Apartamentu bat alokatzen da. Hondartza inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 -73 34 57.

**Deba.** Uztailaren 17a eta abuztuaren 21a artean libre. Hiru gela eta bi komun. Duplexa. Berritu berria. 110 metro koadro. Deitu eta ikusteko gera gintezke aurrez. 669-93 15 56.

**Durango.** 4 gela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berokuntza zentrala, igogailua eta argitsua. Deitu 660-05 56 43 telefonora.

**Elorrio.** Elorrion, etxebizitza alokagai. Erdigunean eta estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 650 euro hilean. 634-45 72 01.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

**Gasteiz.** Pisua alokagai Gasteizko Arantzabal auzoan (8. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, hegoaldera begira. Sukaldea, 4 logela, egongela eta bi komun ditu; baita aparkaleku eta trastelekua ere. Altzari eta guzti; bizitzen hasteko moduan. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 950 euro.

**Laredo.** Apartamentua ematen da errentan Laredon. Bistak itsasora ditu. 687 95 13 44

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Olakuan. Hiru logela, sukaldea eta egongela. Trastelekuarekin. Ikasleendako egokia. Garajea aukeran. 627 34 96 03

**Oropesa del mar (Castellon).** Marina d'or 4 - 6 pertsonantzako apartamentu berria, udan eta urte osoan zehar alokagai. Hondartzatik 150m-tara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza handia, garajea, 2 igerileku eta txintxaunak. Leku lasaia. Animaliarik ez. 670 -21 49 24. Marijo.

**Otxandio.** Otxandion, herri erdian, apartamentu bat alokagai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605-77 37 21.

**Tolosa.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 450 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 609-48 11 24.

**Valle ramales (Kantabria).** Txaleta alokatzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-73 34 57.

**Vieux boucau (Landak).** Apartamentua alokatzen dut landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza, apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista, indukziozko sua, frigorifiko handia... Leku bikaina. Harremanetan jartzeko telefonoak: 94-673 27 69 / 656-75 95 37. joseba@erroteta.com

**Zaldibar.** Pisua alokatzen dugu Zaldibarren. 3 logela, altzariz horniturik. Hilean 550 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 655-70 62 68.

**Zaldibar.** Zaldibarren, herri erdigunean, pisua alokagai. 3 logela, altzariz horniturik eta igogailuarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639-21 01 39.

**Zaragoza.** Unibertsitate kanpusetik gertu. Dena kanpoaldera. Lau logela. Egongela. Sukaldea. Bi bainugela. Garajea. Aire egokitua. 943 76 08 31, 659 58 56 83

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
KOROSTI INMOBILIARIA

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223€.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegi 2 eta 3 logeletako pisuak OSO PREZIO ONEAN.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000€. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000€.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10m2 terraza. Oso ondo. 210.350€. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000€.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000€.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 169.500€.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000€. AUKERA BIKAINA.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Pertsona bakarrarentzat. Langilea naiz. 634 41 90 51

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, prezio onean. Hiru logelakoa. Deitu telefono zenbaki honetara 648 46 90 51

**Baserri bila.** Baserri bat errentan hartuko genuke Bergara inguruan. Deitu telefono honetara. Ione. 615 734 553 edo 943 76 54 12

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 664 88 26 43,

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke Bergara, Arrasate, Aretxabaleta inguruan. Bikote eta lagun batek hartuko genuke. Pertsona arduratsuak, langile eta ikasleak gara. Prezio ekonomikoa behar dugu 400 eurotik beherakoa. 606 74 42 37 edo 671 33 75 60

**Etxea hartuko nuke errentan.** Hiru edo bi logelakoa ahal bada. Prezio onean. Deitu telefono honetara 631 47 78 65

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. 603 14 28 89.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Inaki. Interesatuok deitu telefono honetara: 608 49 89 93,

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 33 73 89

**Berriz.** Logela alokatzen da baserria konpartitzeko. Berriztatu berria eta leku paregabean. Interesatuak deitu telefono honetara: 619-66 58 57.

**Durango.** Logela zabala alokagai etxe handi batean. Landakogune inguruan, beraz, erosotasun guztiak hurbil (trena, busa, kiroldegia...). Pertsona serioa eta oso arduratsua bilatzen gabiltza. 652-86 57 80.

**Durango.** Pisukide bila gabiltza. Pisu berria eta oso polita. Ibaizabal auzunean. 3 logela eta komun 2. Giro ona. Garajea aukeran. 651-64 50 53.

**Logela bila nabil.** 40 urteko gizon bat naiz eta logela bat alokatuko nuke Arrasaten. 680 30 06 05,

**Logela errentan.** Arrasateko alde zaharrean logela bat alokatzen dugu, pixua osatzeko. Etxe eguzkitsua da, bi komun eta lau logelarekin. Deitu eta animatu ikustera! 608 57 97 70

**Oñati.** Oñatin etxea osatzeko jendea behar da. Iikasleak ere izan daitezke. Duplexa. Goiko solairuko bi logelak bete nahi dira. Komuna goiko pisuan. Sukaldea eta egongela konpartitzeko. Plazatik hiru minutura. 656-74 29 49.

**Oñati.** Oñatin pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. Erdigunetik oso gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-69 49 76.

**Oñati.** Pisua osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaiguke. Deitu zenbaki honetara 20:00etatik aurrera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 -74 87 51.

### 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Oletan dagoen etxea, lursailarekin, trukatuko genuke Arrasateko etxebizitza batekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 645 73 82 31 edo 648 06 65 24

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aramaio.** Garaje itxia saltzen da Aramaion, Pedro Ignazio Barrutia kalean. Altuera ona eta leku asko dauka. 40,4 metro koadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 692 70 42 71

**Durango.** Durangon, Askatasun Etorbidean, garajea salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688-61 68 77.

**Elorrio.** Elorrion, Belengua kalean, garaje itxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-45 72 01.

**Otxandio.** Otxandion bi garaje salgai, bat itxia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675-71 72 83.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garaje plaza bi errentan ematen ditut. Plateruen plazan. 656-78 02 15.

**Durango.** Durangon Gasteiz bidea kalean garaje itxia alokatzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 -45 35 66.

**Durangaldea.** Aparkalekua alokagai Herriko Gudarien kalean. 669-73 56 80.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat errentan hartuko nuke Bergara erdialdean. Gehienez ere 60 eurotan. 635 72 44 36

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Atxondo.** Atxondon lokal komertziala salgai. 43m2-koa. 647-90 64 08

### 303. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Bulegoa alokagai Durangon, Plateruen plazan. 42m2. 656-78 02 15.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Dublin (Irlanda).** Gure haurrak zainduko dituen Au-pair baten bila gabiltza, familia euskal-irlandarra, dublin-en bizitzen. Euskeraz hitzegitea derrigorrezkoa. Interesatua egonez gero, bidali email bat igorgon@gmail.com-era eta lan baldintzak/ eskeintza bidaliko dizugu.

### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Abadiñoko 33 urteko neska euskalduna etxeak garbitzeko, tabernak garbitzeko, plantxa egiteko edo pertsonak zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. Tel: 658-73 80 48 (Saioa).

**Antzuola.** Neska euskalduna gertu umeen zaintzan jarduteko Antzuolan. Deitu zenbaki honetara: 680-53 80 98.

**Arrasate edo Bergara.** Garbitasunean, etxeko lanak egiten edota ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz, orduka eta baita egun solteetan ere. Interesatuok deitu telefono honetara: 625 86 99 51

**Arrasate.** 54 urteko emakumea lanerako gertu, pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Arrasate.** Atariak garbitu edo nagusi zein umeak zainduko nituzke. Etxean bizi izaten edo bestela. Legezko paperak ditut. Interesatuok deitu telefono honetara: 627 12 16 33

**Arrasate.** Atariak garbitzen edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka eta baita asteburuetan ere. 636 47 64 92

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. 699 54 17 27

**Bergara.** Neska gazte euskalduna ekaina eta uztailean goizez zein arratsaldez umeak zaindu edo klase partikularrak emateko prest. 690 72 66 97,

**Bergara.** 16:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Urte askotako esperientziaduna. 610 34 97 88,

**Bergara.** 49 urteko neska euskalduna lanerako gertu: umeak zaindu, etxeko lana eta bazkariak, sukalde laguntzaile edo zerbitzari eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 52 39,

**Bergara.** Batxilergo ikasketak bukatu dituen neska euskalduna uztailean haurrak zaintzeko prest. 676 69 56 20 edo 943 76 40 52

**Bergara.** Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

**Debagoiena.** Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 722-32 43 67.

**Debagoiena.** Neska lan egiteko gertu, arratsaldez, gauez edo astebukaeretan. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630-99 11 85.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak etxean bizi izaten edo bestela zaintzen, atari, taberna eta abarrak garbitzen... Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671-10 39 13.

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: garbitasun lanak edo nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 661-94 19 13.

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 695-73 87 95.

**Debagoiena.** Mutila gertu makanikari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta berritze lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691-79 53 34.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu eta garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara 631-22 32 92.

**Debagoiena.** Degagoienan, neska orduka edo gauez lan egiteko gertu. Silvia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630-99 11 85.

**Debagoiena.** Eraikuntzan, garbiketan zein mekanika lanetarako gertu nago. Deitu telefono honetara: 671-26 74 74.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: zaintza lanetan zein atari, taberna eta abarrak garbitzen debagoienan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 661-94 19 13.

**Debagoiena.** Adin nagusikoak zaindu, egunez zein gauez eta etxeko lanak egiten ditut. Orduka edo lanaldi osoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 727-74 42 36.

**Debagoiena.** Mutila edozein motatako lanak egiteko prest. 602-87 46 25 / 605-44 61 98.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lan bila: garbiketak, tabernatan, banaketan eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 679-60 08 48.

**Debagoiena.** Mutil senegaldarra garbiketa lanak egiteko prest Bergara eta inguruetan. 626-78 33 80.

**Debagoiena.** Gidari lanak egingo nituzke. Baimen guztiak dauzkat eta urte askotako esperientzia. Berehala hasteko moduan. 626-66 69 77.

**Debagoiena.** Garbitasuna lanetan, eraikuntzan, banaketak egiten edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Nortasun agiria legeztatuta daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 682-51 83 70.

**Debagoiena.** Gidari lanak egingo nituzke. Baimen guztiak dauzkat eta urte askotako esperientzia. Berehala hasteko moduan. 626-66 69 77.

**Debagoiena.** Mutil gazte euskalduna lanerako prest. Baserrieta, tabernan eta abar. 647-19 86 00.


Etxebila higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

**ALOKAIRUAK**

**AMARA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Altzariak. 700 €.
**USURBIL:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Berritua. 575 €.
**TRINTXERPE:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 490 €.
**LEZO:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 500 €.
**ASTIGARRAGA:** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza handia. 700 €.
EGIA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Altzariak. 700 €.

**SALMENTAN**

**LEZO:** aukera ederra Azkena. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza ederra. Sartzeko 122.000 €.
**ANTIGUA:** atikoa. Bista politak itsasora. Eguzkitsua. Sartzeko. 76.000 €.
**AMARA:** hasieran. Altua. 2 Logela, sukaldea, egongela, bainugela. 180.000 €.
**AMARA:** altua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Bista politak. 195.000 €.
**AMARA:** azkena. Terraza, 25 m2-koa. 3 Logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 330.000 €.
**AMARA:** dena kalera. Altua. 3 logela, sukaldea, egongela. Terraza. Hegoa. 279.000 €.
**ZENTROA:** Andia kalea. Azkena, terrazakin. 140 m2. Bistak udaletxera eta itsasora.
**GROS:** Jose Arana. Apartamentu berritua. Balkoia. Trastelekua. Kalera. 199.000 €.
**INTXAURRONDO:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Sartzeko. 199.000 €.
**INTXAURRONDO:** 75 m2. 2 logela, 25 m2-ko egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. Trastelekuak. 225.000 €.
**EGIA:** Mandasko dukearen kalea. 3 Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 231.000 €.
**LOIOLA:** Aralar mendiaren kalea. Igogailua. 2 Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 150.000 €.
**ASTIGARRAGA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kalera. 93.000 €.

**IKASLEENTZAKO ALOKAIRUAK**

**AMARA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 650 €.
**AMARA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 550 €.
**ERDIALDEA:** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Polita. 700 €.

**www.etxebila.net**
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA


**Debagoiena.** Prest nago mandatuak egin, autoan leku batetik bestera eraman eta antzeko lanak egiteko, prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607-34 90 43.

**Debagoiena.** Paperak dituen pertsona lanerako gertu; garbiketan edo pertsona nagusiak zaintzen. Debagoiena osoan. Interesatuok deitu telefono honetara: 672-96 08 22.

**Debagoiena.** Begirale bezala esperientzia duen gazte euskalduna umak zaintzeko gertu ekain, uztail eta abuztuko lehen hamar egunetan. Jon ander. 660-00 79 17.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua umeak edo nagusiak zaintzen eta garbitasun lanetan jarduteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-82 25 57.

**Debagoiena.** Hamar urteko esperientzia duen emakumea lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Legezko paperak ditut. 634-11 31 09.

**Debagoiena.** Ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan, tabernatan, sukaldean... Lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izateko ere gertu nago. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 680-87 38 66.

**Debagoiena.** Garbitasun lanetan edo nagusi eta umeen zaintzan lan egingo nuke. 691-03 25 02 / 943-54 09 41.

**Donostia.** Donostia. Magisteritzako ikasle eta aisialdiko begiralea haurrak zaintzeko eskaintzen da antiguo aldean. 688-64 93 31.

**Durango.** Durangon egunez zein orduka pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketan aritzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680-29 66 76.

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo umeak zaintzeko lan bila nabil. Lanaldi osoan zein erdian, gauez ere bai. Erreferentzia onekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609-88 79 21.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua eta erreferentziaduna, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketan (portalak, tabernak, etxeak...) aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-28 34 57.

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzen edo garbiketan lan bila nabil. Lanaldi osoan edo erdian. Esperientzia eta erreferentzia onarekin. 632-99 23 83.

**Durangaldea.** Goizez, arratsaldez, gauez, asteburuetan zein jaiegunetan garbiketan zein zaintzan aritzeko prest. Esperientzia gaixorik dauden nagusiak zaintzen. 690-68 73 95.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta erreferentziaduna pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile lanetan lan bila dabil. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608-65 90 55.

**Durangaldea.** Erreferentziak dituen emakumea lan bila. 24 orduz edo egunez, orduka, gauez zein asteburuetan aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669-52 73 27.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauez... Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696-75 35 30.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, nagusiak zaintzen edo garbiketan. Lanaldi osoan edo erdian, baita gauez ere. Erreferentzia onekin. Segituan hasteko. Paperak erregulatuta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-61 01 94.

**Durangaldea.** 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zaintzeko, lorezain aritzeko zein beste edozertan aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-11 16 95.

**Durangaldea.** Sukaldaritzan edo pintore lanetan aritzeko lan bila nabil. Sukaldeko laguntzaile moduan 2 urteko esperientziarekin. 686-58 67 69.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, igeltsero laguntzaile, nagusiak zaintzen, haztegietan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-37 36 79.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez, baita asteburuetan ere. 602-07 19 11 (Patricia).

**Durangaldea.** Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-35 96 06.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669-50 16 53.

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600-72 84 37.

**Durangaldea.** Esperientzia duen neska 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. 672-85 39 30.

**Durangaldea.** Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onekin, 24 orduz edo egunez, asteburuetan edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila dabil. Paperak eguneratuta. 628-00 22 17.

**Durangaldea.** 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan aritzeko lan bila. 602-89 44 78.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, titulu eta esperientziaduna umeak zaintzeko prest. 662-36 41 67 // 94-681 39 40.

**Durangaldea.** Geriatriako laguntzailea asteburuetarako lan bila. 652-72 02 29.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Edozein ordutan aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616-32 73 32.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua, orduka pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628-78 93 50.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639-96 58 84.

**Durangaldea.** 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-33 51 10.

**Durangaldea.** 24 orduz, lanaldi osoan edo erdian pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-93 56 31.

**Durangaldea.** 43 urteko neska goizetan umeak zaintzeko lan bila dabil. Esperientzia handia. Interesatuok deitu telefono honetara 688-64 36 28 edo idatzi mezu bat e.antxia@kzgunea.net helbidera.

**Durangaldea.** Gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arte pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-61 01 94.

**Durangaldea.** 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketan aritzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632-72 43 23.

**Durangaldea.** Esperientzia eta titulua dituen neska euskalduna, umeak zaintzeko eskaintzen da. Deitu 662-36 41 67 edo 94-681 39 40 telefono zenbakietara.

**Durangaldea.** Neska arduratsua umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651-34 12 38.

**Durangaldea.** Gauez edo asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-59 32 49.

**Durangaldea.** Neska esperientziaduna nagusiak zaintzeko zein etxeak garbitzeko lan bila dabil. 24 orduz, egunez zein gauez. 631-20 31 24.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. 620-16 14 96.

**Durango.** Neska euskalduna, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Haur hezkuntzako teknikaria naiz, 24 urte eta esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-60 48 24.

**Elgeta, Bergara edo Arrasate.** 35 urteko neska euskalduna lanerako gertu. Ume edo nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 50 25 67

**Lan bila.** Gazte arduratsua garbitasunean edo ume zein nagusiak zaintzeko gertu. 618 04 15 45

**Lanerako prest.** Emakume gaztea adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 670 58 63 32

**Oñati.** Lehen hezkuntzako ikasle euskalduna haurrak zaintzeko prest ekain, uztaila eta abuztuan. Interesatuok deitu telefono honetara: 660-77 87 65.

**Programazioa.** Weborriak egiten eta programazioan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 04 15 45

**Udan umeak zaindu.** Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 620 95 46 11

**Udarako lan bila.** Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. interesatuok deitu telefono honetara: 620 95 46 11 edo 943 78 34 25

**Umeak zaindu.** Bergaran, Arrasaten edo Aretxabaletan umeak zainduko nituze irailetik aurrera, arratsaldez. Haur hezkuntza ikasten dabilen 23 urteko neska euskalduna naiz, Bergarakoa, eta esperientzia handia daukat haurrekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 17 33 61

**Uztailerako lan bila.** Uztailean haurrak zaintzeko edo ludotekara eramateko prest dagoen neska Markinarra naiz (haur-hezkuntzako goi mailako zikloarekin). Interesatuak deitu telefono honetara. Eskerrik asko. 628 43 76 30

**Zarautz.** 26 urteko neska udan haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645-71 52 58.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingelesezko eskolak ematen ditut ekainean eta uztailean. Ikastaro trinkoak, maila guztietan. Baita HEOko zein Cambridge-ko azterketak prestatzeko ere. Talde murriztuak. 618 91 32 89

**Durango.** Psikologiako ikaslea, EGA eta Advanced hizkuntza tituluekin, eta begirale tituluarekin, udan Durangon umeak zaintzeko prest, goizez zein gauez. Eskarmentu handikoa. 638-85 78 60.

**Durango.** 24 urteko mutil euskalduna eta Lehen Hezkuntzan diplomatua eskola partikularrak emateko prest. Deitu 695-73 69 94 telefonora edo idatzi k.anderez@hotmail.es

**Durango.** Ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...) irakurketa, idazketa, ulermena. Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656-79 15 99.

**Durangaldea.** Neska gazte bat eskola partikularrak emateko eskaintzen da. LH, DBH zein Batxilergoan. Ekonomian lizentziatua. DBH eta Batxilergoan irakasle izateko masterduna, eta EGA tituluduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635-74 67 98.

**Durangaldea.** Neska euskalduna batxillergo eta Administrazio tituluduna, etxez etxe eskola partikularrak ematen ditu. Interesatuok deitu 662-36 41 67 edo 94-681 39 40 telefono zenbakietara.

**Durangaldea.** 43 urteko neska goizetan etxez etxe ingeleseko klase partikularrak emateko prest. Esperientzia handia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 688-64 36 28 edo idatzi mezu bat e.antxia@kzgunea.net

**Gitarra elektrikoa.** Gitarra elektrikoko eskolak ematen ditut. Etxera joango nintzateke. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. 679 74 00 61

**Villabona.** Ingleseko eta frantseseko klase partikularrak ematen ditugu. Taldeka edo bakarka. Hizketaldiak, azterketak. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzazkegu edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik, gero zuk erabaki. 664-16 02 68.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A4 kotxea salgai.** Audi A4 kotxea salgai. Oso egoera onean. 160.000 km. 673-49 36 39.

**Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai.** 1999. urteko Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai, 105 CV. Ohea, aulkiak, mahaia, pintura berria, larruzko aulki berriak, leiho automatikoak, klimatizagailua, ABS eta aparkatzeko sentsoreak. 673-49 36 39.

**Opel frontera 2.3. D salgai.** Opel frontera 2.3. D salgai. 1994. Urtekoa. Kilometro gutxi. 667-09 45 36.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Euskal artzai txakurkumeak.** Hilabete ta erdiko euskal artzai txakurkumeak dauzkat. Geldiezinak izango direnez, mendizale edo ibiltariarentzat dira aproposak. Interesatua ba zaude deitu 658-73 51 75 telefono zenbakira.

**Antxumeak salgai.** Antxumeak salgai. Bizirik edo jateko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636-74 70 37. 15:30etik aurrera.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Bernedo.** Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40 kilometrotara dago, eta Izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665-75 78 07 (Ana) ana.vitoria.gasteiz@gmail.com

**Bolibar.** Bolibarren lursaila salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-35 80 67.

**Irrati antena salgai.** Irrati antena salgai. FM transmisorea, osagai hauekin: "link" stereo sorgailu bat, "diratel" FM modulagailu-kitzikagailu bat eta "diratel" FM 600w anplifikadore bat. Eta FM sistema erradiatzailea, osagai hauekin: 4 antena yagi FM, 2 elementurekin eta FM banagailu bat, 4 biderekin. 94-681 65 58.

**Quinny freestyle XL (silla+-kapazoa).** Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabat etzaten da. Silla bi norantzatan jarri daiteke, haurra zuri begira dagolea edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoak.350 euro. Harremanetarako: 660-25 25 13 (Ana)

**Umeentzako autorako aulkia salgai.** Umeentzako autorako aulkia salgai. 10 urtera artekoa. Merkea, ondo zaindua. 648-63 58 06.

**Umeentzako bizikleta salgai.** Umeentzako bizikleta salgai. Gutxi erabilita. Merkea. 6 urtera artekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-63 58 06.

**Umentzako triziklo berria salgai.** Umeentzako triziklo berria salgai. Opari egokia udarako, 75 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-77 84 58.

**Urdaibai (Bizkaia).** Lursaik eraikigarria salgai Urdaibain. Prezio onean. Interesatuok deitu 686-66 35 57 telefono zenbakira.

**Volkswagen t4 rentzat altzaria eta koltxoia.** T4 furgonetan (beste batzuentzat ere balio lezake) ohea (119 x 180) egiteko balio duen altzaria saltzen da. Gauzak gordetzeko edukiera handia. Koltxoi barne. 667 95 73 16.

### 802. EROSI

**Trikitia.** Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. Deitu telefono honetara: 600 37 54 97

**Durangaldea.** Lursail bat erosi edo alokatu nahi dut . Lursail txikia, ortua ipintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 666-69 10 03.

### 802. EROSI

**Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara.** Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Bolivia eta Peruko eskoletara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655-71 76 66.

### 805. TRUKATU

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke ortua jarteko lursail baten truke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 77 00 19

### 806. GALDU

**Audifonoa Oñatin.** Ekainaren 16an, domeka, audifonoa galde genuen Etxe-Aundi, Usako, Kanposatu. ingurutik erdigunera bitartean. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez: 653 74 91 23

**Mobila.** Mobila galdu dut. HTC One X. Funda arrosa batean. Ozaetan. 50 euro emango ditut. Eskerrik asko. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez: 672 25 74 26

**Patinetea Aramaion.** Oxelo patinete beltza eta urdina galdu nuen ekaineko lehen igandean parke inguruan. Aurkitzen baduzue deitu mesedez 945 44 50 97 edo 692 70 42 71 telefono zenbakietara.

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Bikotekide zintzoaren bila.** Udaberriaz batera, bat-batean konturatu zara norbaitekin eskutik helduta gauzak ederragoak direla?, bizipenak konpartitu nahi dituzu?momentu onak eta txarrak norbaitekin partekatzeko aukera izatea gustuko zenuke? aurrera jarraitzeko ilusioa emango dizun norbait behar duzu batzuetan?. Ba hemen naukazu . Bilboko 54 urteko neska alaia, irekia, oso lagunkoia naiz. Zinema, bidaiak, itxasoa, hondartza, irakurtzea, kantatzea, lagunekin pasieran ibiltzea, txangoak egitea e. A.. Dira nire zaletasunbatzuk. Antzekoa bazara animatu eta deitudazu elkar ezagutzeko eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Harreman iraukor baten bila nabil, baina adiskidetasuna ere oso gauza polita da .. Animatu eta deitu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606250584

**Euskara-Frantsesa Arrasaten.** Nik zuri euskara erakutsiko nizuke eta zuk niri frantsesa. Elkartu eta mintzatzea litzateke asmoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 76 59 73

**Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila.** Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil,46 urte ditut,altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609-48 11 24.

**Zure euskara edota gaztelania hobetu nahi?.** Lagunduko dizut, nik nire ingelesa hobetzen dudan bitartean, deitu! 638-26 43 85.


Mac ordenagailu baten birus ilustrazioa. | GOIENA

# Mac-en aurkako erasoei arreta eman die Kasperskyk

Antibirus konpainiak eraso geroago eta arruntagoen berri eman du

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Mac ordenagailu sortaren birusen aurkako segurtasuna izan da luzaroan Apple-en argumentu nagusietako bat. Bada, Kaspersky enpresa ezagunak mehatxuak areagotu egin direla jakinarazi berri du. Sistema eragile moduan, bere egiturarengatik, segurtasun berme handiagoak ematen jarraitzen du Apple-ek. Hala ere, ugaldu egin dira eraso motak. Erabiltzaile kopurua ere txikiagoa izanda, *malware*-aren lehentasunezko jo-puntua ere ez da izan. Gauzak aldatzen dabiltza, ordea. OS X-en erabiltzaileak 63 milioitik gora dira munduan Kaspersky antibirus enpresaren datuen arabera eta zifra horrekin batera, Mac-ei eragiten dien birus eta eraso mota nagusien zerrenda osatu dute .

Erasorik larrienak sareak osatzean gertatzen ei dira Kasperskyren arabera. Webgune arriskutsu baten bitartez *software* kaltegarria instalatzea ohikoa da baina, horrekin batera, gero eta ohikoa hasi da bihurtzen ordenagailua "bahitu" eta *ordenagailu zombien* sare bat osatzeko erabiltzea. Erabiltzailea konturatu ere ez da egiten. Sare *zombie* horretako ordenagailuak beste batzuk erasotzeko sare bat osatzeko erabiltzen dira. Java desgaituta ala azken bertsioarekin eguneratuta izatea komeni da gisa horretako erasoak, ahal dela, ekiditeko. Sareak aipatuta, ahulenak Mac eta PC ezberdinen artean osatutakoak dira, hutsune asko izaten baitituzte.

Bilatzaileen bitartez zabaldutako birusak ere arrisku nagusietako bat dira. Geroago eta sarriago antibirus faltsuen deskargak agertzen hasi dira. Ordenagailuak martxan jarrai dezan antibirusaren bertsio osoa erostera konprometitzen dute erabiltzailea. Software hori faltsua da, gainera, eta amua irentsi duten erabiltzaileek banketxeko datuak ematen dituzte.

Sistema eguneratua izateak asko laguntzen du erasoen aurka eta sistemaz gain, komeni da *software*-ari ere arreta ematea, batez ere Java paketean, Mac-en aurkako erasoen fokua ahulgune horietan egiten baita, Kaspersky-k ohartarazten duenez. Java eta flash-eko ahulguneak oso denbora luzez egon daitezke eguneraketa eta konponbide barik eta horrek ekipo osoa arriskuan jartzen du.

## Bideoak ere partekatu ahalko dira Instagram-ekin

**J.B.** | ARRASATE

Bideoak ere igo ahalko dira aurrerantzean Instagram-en, Facebook-ek eguenena egindako aurkezpenean aurreratu moduan. Argazkien sare sozialik ezagunenak orain bideo laburrak ere eskainiko ditu, Twitterren Vine zerbitzuaren antzera.

15 segundora arteko iraupena izan dezakete bideoek eta Instagram aplikazioarekin argazkia igotzeko sistemaren berdina da bideoen kasuan. Ezin bestela, filtroak ere gehi dakizkioke bideoari, Instagramen ezaugarri izarretakoa baita aukera hori, eta bideoaren miniatura ere aukeratu daiteke, argazki moduan funtziona dezakeelarik. Dagoeneko eskuragarri dago App Store.an eta Google-en Play zerbitzuan. Instagramek 130 milioi erabiltzailetik gora ditu eta Facebook-ek erosi zuenetik, handia izan da zabalkundea.


Instagram-en bideoa. | INSTAGRAM

## Google eta Microsoft, enpresetan nagusitu guran

**J.B.** | ARRASATE

Software kolaboratibo korporatiboan gaur egun lehia Google eta Microsoften artean dago. *2.0 Enpresa* delakoan aspaldi hartu zuen aurrea Google-ek GMailekin eta lotutako Google App-ekin. Zerbitzuak lainora igotzean Google-ek aurrea hartua du.

**Aliantzak Microsoften**

Microsoft-ek Office produktuarekin izan du orain arte nagusitza baina Google-en bisiorik ez dute izan. Orain hori aldatu gura dute eta enpresarako eta lainorako tresna sortarekin irten dira merkatura. Aliantza estrategiko apartekoak egin ditu Microsoftek: Yammer, enpresa barruko kolaborazio tresna nagusia eta Skype. Zerbitzu mota honen eskaintzan etorriko da handiki bien arteko borroka berria.



Office berria. | MICROSOFT

### 150.000 dolar Windows 8an akatsik aurkitzen duenarentzat

Hackerrei erronka egin die Microsoft-ek. Ekainaren 26tik aurrera Windows 8 sistema eragile berrian ahulgune ala zuloak aurkitzen dituenari, saria emango diote. Sistema eragilean eta Explorer 11an hutsuneak aurkitu eta Microsoft-eri jakinaraziz gero, 110.000 dolar jasoko ditu hackerrak. Horrekin batera, akatsak aurkitzeaz gain, sistemaren babeserako metodo berri eta eraginkorrik proposatzen bada, beste 50.000 dolar banatuko dituzte Microsoft-ekoek.

Lehen aldia da Microsoft-ek halako ekimen bat abiatzen duena.

### 'Sinde Legea'-ren zenbait atal baliogabe laga ditu Auzitegi Gorenak

Espainiako Auzitegi Gorenak *Sinde Legea* bezala ezagutzera eman den neurri sortako zenbait atal zalantzan jarri ditu. Gainontzekoen legezkotasuna, ordea, berretsi egin du sententziak. Legez kontrako edukia duen webgune bat ixteak zuzenean webgunearen jabea delitugile moduan inplikatzea aurreikusten duen atala baliogabetu du sententzia berriak. Espainiako Internauten Elkarteak Konstituzioa argudio moduan erabilita, legearen neurri sorta guztiak baliogabetu gura ditu baina, oraingoz, Auzitegi Gorenak, aipatutako aldaketa horretaz gain, baliozkotzat jo du Sinde Legea eta lanean jarraituko dute Gobernuaren batzordeek.

### Google salatuko du Datuen Babeserako Espainiako Agentziak

Espainiako Datuen Babeserako Agentziak Google salatzeko asmoa du pribatutasun politikan egin berri dituen aldaketengatik. Agentziatik jakinarazi dutenez, Google-ek ez du zehazten aplikazio askoren azken helburu zehatza zein den eta hori Europako legediaren aurka ei doa. Zalantzan jartzen den beste puntu bat da Google-e datuak bere zerbitzarietan gordetzen dituen denbora. Agentziaren arabera denbora hori ere ez da zehazten eta argi eta garbi adierazi beharko lukete datu hori erabilpen baldintzetan, zerbitzuak egungo legedia bete dezan.


MICROSIERVOS

### Alkoholimetroa erlojuan

Sarean zabaldutako beste irudi faltsu bat izan ala ez, ustez Casiok garatutako erloju honek askoren arreta piztu du. Diotenez, alkoholimetroa barruan daraman erlojua da, putz egiteko tutu eta guzti. Putz egin eta erlojua gauza izango litzateke arnasan dagoen alkohol kopurua neurtzeko.

## TELE-BEGI



OIHAN VEGA

# Brasileko usain txarra

Aspaldtik nik pentsatzen nuena gertatu da Brasilen.

Herria kalera irten da protesta egitera, bere gobernuaren usain txarra azaleratzeko asmoz.

Egunotan, Mediaset kate erraldoia berriro ari zaigu ohiu eta garrasika *La Roja* espainiar selekzioak Konfederazioen Kopako txapelketan jokatuko duelako. Hasteko, ez nekien txapelketa hori existitzen zenik ere. Zuek bai?Eta non jokatuko da kirol ikuskizun erraldoi hori? Brasilen. Hara! Hau kasualitatea! Hain zuzen ere 2014an futboleko Munduko Kopa jokatuko den herrialde berean. Itxaron apur batean... bi urte beranduago egutegiari so egiten badiogu... zer topatuko dugu? Olinpiar Jokoak 2016. Eta non jokatuko dira horiek ere? Kontxo! Berriz ere Brasilen!

Mundu mailako hiru txapelketa nagusi, bata bestearen atzetik herrialde berean. Tontoak garela uste al dute? Ustelkeria usaina urrutitik sumatzen dut nik: Tongo.

Politikoek diote: "Hegoamerikako herrialderik aberatsena da, azaleratzen hasi den ekonomia indartsua..." Brasil aberatsa? Galde diezaietela bertako *favela* txiroetan bizi diren familiei.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 24



**'Harmailatik'**

Eskoriatzako Manuel Muñozen omenez jokatutako areto futboleko torneoa ikusgai, besteak beste. | **22:01**

**12:00** Magazinea
**13:00** Gurean gaur
**13:30** Zorion Agurrak
**13:35** Pedalka
**14:03** Sakelekotik
**14:15** AsteON
**14:45** Berriak
**15:15** Eguraldia
**15:18** Zorion Agurrak
**15:23** AZK2012
**16:23** Pedalka
**16:53** Zorion Agurrak
**17:00** Berriak
**17:30** Eguraldia
**17:33** Onein
**17:54** Zorion Agurrak
**17:59** Berbetan
**18:29** Euskal egitura
**18:53** Beranduegi.tv
**19:38** Zorion Agurrak
**19:43** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:16** Magazinea
**21:01** Gurean gaur
**21:31** Berriak
**21:56** Eguraldia
**22:01** Harmailatik
**22:46** Magazinea
**23:46** Berriak
**00:22** Eguraldia.

MARTITZENA, 25



**'Huhezinema'**

MUko Huhezi fakultateko 3. eta 4. mailetako ikasleen lanak eta horien atzean dagoen lana, ikusgai. | **21:30**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Berbetan
**14:37** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:58** Onein
**16:19** AsteON
**16:49** Zorion Agurrak
**16:54** Berriak
**17:19** Eguraldia
**17:22** AZK2012
**17:52** Altxorraren bila
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Ur eta lur
**18:58** Harmailatik
**19:43** Zorion Agurrak
**19:48** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** Huhezinema
**22:00** Berriak
**22:25** Eguraldia
**22:30** Magazinea
**23:15** Klaketa
**23:57** Berriak
**00:22** Eguraldia
**00:25** Magazinea.

EGUAZTENA, 26



**'Magazinea'**

Osasun tartean hezur muin emaile egiteko eman beharreko pausuen gainean hitz egingo dugu. | **20:15**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:10** Harmailatik
**13:55** Pedalka
**14:24** Ikusmira
**14:42** Zorion Agurrak
**14:46** Berriak
**15:11** Eguraldia
**15:14** Klaketa
**15:56** Onein
**16:28** Harmailatik
**17:13** Huhezinema
**17:43** Zorion Agurrak
**17:48** Berriak
**18:13** Eguraldia
**18:16** Ikusten
**18:49** Harmailatik
**19:34** Zorion Agurrak
**19:42** Berriak 2
**20:12** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** AsteON
**22:00** Berriak
**22:25** Eguraldia
**22:27** Magazinea
**23:12** Harmailatik
**23:57** Berriak
**00:35** Berriak
**01:00** Eguraldia.

EGUENA, 27



**'Pedalka'**

Saioaren azken atala ikusi ahal izango duzue; Saint Sauveuretik Mentonera bitarteko bidea. | **21:50**

**12:00** Magazinea
**12:50** Gurean gaur
**13:20** Huhezinema
**13:50** Euskal egitura
**14:16** Onein
**14:39** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Berbetan
**15:43** AZK2012
**16:13** Berriak
**16:38** Eguraldia
**16:41** Onein
**17:02** Planik bai?
**17:22** Huhezinema
**17:52** Berbetan
**18:22** Zorion Agurrak
**18:28** Planik bai?
**18:53** Beranduegi.tv
**19:43** Zorion Agurrak
**19:49** Berriak
**20:14** Eguraldia
**20:16** Magazinea
**21:06** Gurean gaur
**21:36** Sakelekotik
**21:50** Pedalka
**22:20** Planik bai?
**22:40** Berriak
**23:05** Eguraldia
**23:08** Magazinea
**23:53** Klaketa
**00:20** Planik bai?
**00:40** Berriak
**01:05** Eguraldia.

EGUBAKOITZA, 28



**'AsteOn'**

Jon Berezibarren eskutik, besteak beste, asteko albisteen errepasoa egingo dugu. | **22:02**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Gurean gaur
**13:30** Onein
**14:00** Pedalka
**14:28** Planik bai?
**14:48** Berriak
**15:13** Eguraldia
**15:16** Planik bai?
**15:36** AZK2012
**16:06** Altxorraren bila
**16:39** Beranduegi.tv
**17:24** Zorion Agurrak
**17:30** Planik bai?
**17:50** Berriak
**18:15** Eguraldia
**18:18** Planik bai?
**18:38** Altxorraren bila
**19:11** Zorion Agurrak
**19:17** 28.Klip
**19:47** Beranduegi.tv
**20:32** Zorion Agurrak
**20:37** Berriak
**21:07** Eguraldia
**21:12** Planik bai?
**21:32** Zorion Agurrak
**21:37** Gurean gaur
**22:02** AsteON
**22:32** Jaiak: Arrasateko jaiak
**23:22** Berriak
**23:47** Eguraldia
**23:50** AsteON

### ARRASATE IRRATIA

#### San Juan jaietan murgilduko gara asteon, 107.7an

Herriko jaiak izango ditugu berbagai aste honetako *Igo autobusera!* irratsaioan. Kaleko giroa jasoko dugu 107.7ko uhinetan eta Arrasate Irratiaren bitartez jaietan gertatzen ari dena gertu-gertutik entzun ahal izango duzue. Egunero, goizeko 10:00etatik aurrera izango da hori.

#### Jaien ondorengoak, Kepa Urteaga zinegotziaren eskutik

Eguenean, hilak 27, jaien bixamon eguna izanda jaiak zer moduz joan diren kontatuko digu Kepa Urteaga kultura zinegotziak. Aurtengo sanjuanen balorazioa egingo digu eta jaiak nola igaro diren kontatuko digu 107.7 uhinetako *Igo autobusera!* irratsaioan.

#### Datorren astetik aurrera, 'Uda Giroan!' irratsaioa, 107.7an

*Igo autobusera!* irratsaioak azkeneko saioak egingo ditu aste honetan. Egubakoitzean izango da irratsaio horren azkenengo saioa eta lekukoa hartuko dio datorren astetik aurrera *Uda giroan!* izeneko irratsaio freskoak. Astelehenetik egubakoitzera bitartean goizeko 10:00etatik aurrera eskainiko dizuegu saio hori.

## TELE-ALBISTEAK

# San Juan jaietan murgilduko gara Goiena telebistan

Gaur eta biharko *Magazinea* saioan egunotan jasotakoak erakutsiko dizkizuegu 20:15ean

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Arrasateko San Juan jaiek protagonismo berezia izango dute aste honetako *Magazinea* saioan. Gaurko, asteleheneko, saio guztia eskainiko diegu jaiei eta baita martitzeneko tarte bat ere.

**Sanjuanak telebistan**

Jaietako egitarauan dauden ekintza nagusienetan izango da Imanol Gallego kazetari saltseroa. Zapatuko dragoi janetik hasi eta domekako ekitaldi hauetan ere izango da; makala jasotzeko ekitaldian, txopopoteoan, errementari dantzan, San Juan suan, alkatearen dantzan eta nagusien danborradan.

Astelehenean ere festetan jarraituko du Gallegok eta hara eta hona ibiliko da ekitaldi hauek jasotzen: goizeko entzierroa, erraldoi eta kilikiak, ohorezko aurreskua, bandaren kontzertua eta baita oilasko jana ere.

Kontu horiek guztiak eskainiko dizkizuegu gaurko saioan.

Martitzenean telebistan eskainiko dizuegun tartean, berriz, astelehen gaueko kontzertuak ikusi ahal izango dituzue, Eguzkilaru umeekin ere bai, *Zeuk iñ zeuk jan* bazkaria, street boulder txapelketa eta baita Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia. San Juan jaiekin etxetik gozatu ahal izango duzue, beraz, Goiena telebistarekin.



Arrasateko joan zen urteko sanjuanetako sua. | GOIENA

### Sanjuanen saio berezia izango dugu egubakoitzean 22:30ean

**Jaien saio berezia**

Festa guztietan jasotako materialarekin jaien saio berezi bat eskainiko dizuegu egubakoitzean 22:30ean. Beraz, ez galdu San Juan jaien gaineko saio berezia!

## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Maria Trigas eta Maddi Martin**
Mariak 29an eta Maddik 30ean betetzen dituzte urteak. Zorionak, bioi! Asteburu ederra pasatu! Musu bat, familiakoen partetik.



ARRASATE
**Gorka Maria Seco**
Ekainaren 24an, 20 urte. Zorionak! Nahiz ta aurten ezin egon zure onduan ziur nau ondo ospatuko zinula herriko jaixetan! Jarraitu 20 urte hauetan bezain jator! Muxu haundi bat Parisetik eta etxekoen partetik!



ARETXABALETA
**Itsasne Barandiaran Amozarrain**
Ekainaren 30ean, 6 urte. Zorionak, Itsasne! Oso ondo pasatu zure egunien! Muxu potolo bat amama, aitita, tio, tia eta etxekuen partetik.



ANTZUOLA
**Peru Kortabarria Arana**
Ekainaren 30ean, urtebete. Zorionak, *mazapantxo*! Muxu handi bat Lore, aita eta amaren partetik. Ondo pasatu eta jarraitu orain arte bezalako alai eta bihurri.



ARRASATE
**Eider Sandoval Guerra**
Ekainaren 29an, 8 urte. Zorionak, printsesa, zure familiaren eta, bereziki, aita, ama eta Alazneren partetik. Ondo pasatu eguna eta opari asko eduki. Txokolatezko mila muxu zuretzat.



ARETXABALETA
**Pakita Carames**
Ekainaren 28an, 61 urte. Zorionak, amama! Unai, Beñat eta etxekoen partetik muxu handi bat. Denok elkarrekin ospatuko dugu!



BERGARA
**Sara Balentziaga Galfarsoro**
Ekainaren 28an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Zu zara etxe honetako piratarik handiena. Manex, ama eta aita eta guztion partetik. Ondo pasatu eguna.



BERGARA
**Iker Bolibar Amor**
Ekainaren 26an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna. Patxo handi bat eta belarrittik lau tirakada etxekoen eta, bereziki, Elena, Ibai eta Unairen partetik.



OÑATI
**Nahia Cerqueira**
Ekainaren 26an, 6 urte. Zorionak, maittia. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu asko zure aita-ama eta Eritzen partetik. Asko maite zaitugu.



OÑATI
**Markel kortabarria Zubizarreta**
Ekainaren 26an, 5 urte. Ondo pasatu etxekoen eta, batez ere, Maialenen ondoan. Zorionak, *guapo*! Aitana eta Olatzen partetik, muxu pottolo bat.



ARRASATE
**Julene eta Irati Unamuno**
Ekainaren 26an, 7 urte. Ondo pasatu urtebetetze eguna. Asko disfrutatu eta jarraitu beti bezain neska alaiak izaten. Zorionak eta muxu pila bat Allison, Unax, Oihana eta Mikelen partetik.



ARETXABALETA
**Markel Barandiaran Otxoa**
Ekainaren 26an, urtebete. Zorionak! Poztasun eta entretenimenduz betetako urtie emun dozkuzu. Jarraittu hola! Familixakuak.



ESKORIATZA
**Oihan Benitez Gomez**
Ekainaren 25ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta opari asko jaso! Muxu eta besarkada handi bat denon partetik!



OÑATI
**Aratz Idigoras Lopez**
Ekainaren 25ean, 2 urte. Zorionak, politxoi! Gure txikitxuak bi urtetxo! Ondo-ondo pasatu etxeko danen eta, batez be, Oierren partetik.



ARETXABALETA
**Markel Elorza Arkauz**
Ekainaren 25ean, 2 urte. Zorionak, *Hooligan*! Musu handi-handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Abel Canales Arribas**
Ekainaren 25ean, 37 urte. Zorionak, *aitatxulilu*! Primeran pasatu urtebetetze eguna. Txokomarrubizko milla muxu. Infinito maite zaitugu. June eta amatxo.



BERGARA
**Erika Yue Borge Murillo**
Ekainaren 24an, 9 urte. Zorionak, maitxia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Paul Montero San Vicente**
Ekainaren 24an, 5 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu gaurko eguna! Zoragarrixa zara! Txokolatezko patxo pila bat etxeko danon partetik!



BERGARA
**Xabier Igartza Amasorrain**
Ekainaren 22an, 9 urte. Zorionak, *guapo*! Primeran pasatu zure urtebetetzean eta oporretan. Muxu bat etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**Unax Aramendi Altuna**
Ekainaren 21ean, 2 urte. Zorionak, *pipiolino*, jada bi urtetxo! Asko disfrutatu egun berezi eta polit honetan eta *patxito potolote* etxeko guztien partetik, mua!



ARRASATE
**Izadi Ramos Zumalde**
Ekainaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Izadi! Patxo handi-handi bat etxekuon partetik, politxoi! Bereziki Igortz eta Iraiaren eskutik.



OÑATI
**Ibai Zugasti Sarasketa**
Ekainaren 19an, 6 urte. Zorionak, mutil handi! Egunak kontatzen hasi zara zure urtebetetze-rako. Disfrutatu eguna! Muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Izaro Arzuaga eta Eneritz**
Ekainaren 19an, 2 urte. Zorionak, printzesa, eta zorionak, amatxo Eneritz! Patxo potolo potolo bat bixondako! Oso ondo pasatu zuen egunien.



BERGARA
**Unai Sotil Domenech**
Ekainaren 19an, urtebete. Zorionak, Unaitxo! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetezean! Muxu handi bat familia guztiaren partetik,

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

## JAIOTAKOAK



### Izar Gonzalez Agirrezabal

Bergara. 3,160 kilo. Ekainaren 11. Gurasoak: Aroa eta Josu. Argazkian, Izar jaiberria lasai-lasai.




### Emma Galindo Fernandez

Arrasate. 2,870 kilo. Ekainaren 7a. Gurasoak: Lorantz eta Maikel. Argazkian, Emma jaioberria sehaskan lo.



### Hitzeder Artolazabal Martinez

Aretxabaleta. 3,460 kilo. Ekainaren 19a. Gurasoak: Lore eta Aitor. Argazkian, Hitzeder, Oxel eta Lur anai-arrebekin.



### Lur Narbaiza Peñagarikano

Antzuola. 3,330 kilo. Ekainaren 17a. Gurasoak: Josune eta Unai. Argazkian, Lur jaiberria sehaskan.



### Kai Luengo Elkoro

Arrasate. 3,400 kilo. Ekainaren 14a. Gurasoak: Josune eta Asier. Argazkian, Kai jaioberria sehaskan.



### Oier Sierra Arriaran

Oñati. 3,400 kilo. Ekainaren 15a. Gurasoak: Susana eta German. Argazkian, Oier amama Bittoriren besoetan.



### Aner Biain Gonzalez

Aretxabaleta. 3,980 kilo. Ekainaren 16a. Gurasoak: Eider eta Itoitz. Argazkian, Aner gurasoekin.



### Lina El Ajbari

Arrasate. 3,600 kilo. Ekainaren 16a. Gurasoak: Ouiame eta Ahmed. Argazkian, Lina jaioberria sehaskan.



### Oier Pujana Ibabe

Arrasate. 3,110 kilo. Ekainaren 18a. Gurasoak: Leire eta Joseba. Argazkian, Oier amarekin.



### Kimetz Arteatx Alonso

Otxandio. 4,400 kilo. Ekainaren 17a. Gurasoak: Idurre eta Iñigo. Argazkian, Kimetz.




### Oskar Fernandez Nieto

Arrasate. 3,500 kilo. Ekainaren 18a. Gurasoak: Rakel eta Daniel. Argazkian, Oskar amarekin.



### Oier Revilla Velez de Mendizabal

Arrasate. 3,450 kilo. Ekainaren 20a. Gurasoak: Marta eta Arturo. Argazkian, Oier amarekin.



### Iker Gago Martin

Arrasate. 2,820 kilo. Ekainaren 19a. Gurasoak: Rosa Mari eta Juanjo. Argazkian, Iker jaioberria sehaskan.



### Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | (argazkia) | (argazkia) | Petatxuak / Lepoak | | Senidea / Ponpak | | Ezkorrak / Edo | |
| (argazkia) | (argazkia) | (argazkia) | | | | | | |
| (argazkia) | (argazkia) | (argazkia) | Ahalamena, eskumena / Beldur handia | | | | | |
| Malda / * Aramaio-ko auzoa | | Erreka handiak / Zoritxar | | | | | | |
| | | | | | | | Oxigenoa / Lehenengoa | |
| Du / Hamar gehi bat | | | | | | Ez eme / Ardi, hitz elkartzeetan | | |
| | | | | | | | Röntgen / Bizkaiko herria | |
| Musu / Salatzeko ekintzak | | | Bokala / Bokala | | Saturnoren satelitea / Bokala | | | |
| | | | | | | | | |

LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SOLUZIOAK

#### HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | # | A | # | A | # | U |
| | | | I | D | U | N | A | K |
| | | | # | A | H | A | L | A |
| # | A | # | I | B | A | I | A | K |
| A | L | T | Z | A | G | A | # | O |
| # | D | A | U | K | A | # | A | R |
| H | A | M | A | I | K | A | # | R |
| # | O | A | # | A | # | R | E | A |
| S | A | L | A | K | E | T | A | K |

#### BILA-BILA 7



## AI, ENE!

### Gerta daitekeenerako, ondo prestatuta



Akurien bizitza gogorra izan daiteke, sarri umeen esperimentuen biktimak izaten dira-eta. Baina armadura hori ez da gehitxo?
**www.nopuedocreer.com**

## AHOBERO

### "Udalean nire alaba kontratatzea ez da entxufismoa, aldi baterako delako"

AGUSTIN FERNANDEZ | OURENSEKO ALKATEA

Aldi baterako izan edo ez, alaba horrek gainditu du probarik? Elkarrizketarik egin diote bere lanposturako aproposa den jakiteko? Alkateak, kargua uzten duenean, alabak ere bere lana utziko duela gaineratu du. Nork esan du entxufismoa?
**www.elpais.com**

## EGURALDIA



Max. 20º
Min. 10º

Zerua lainotuta azalduko da, baina orduak aurrera joan ahala ostarteak zabalduko dira.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA
goiena“
2013-06-24

## HAMARREKOA

**Oskar Sanz** Lehia gogorraren ostean, Zubielkiko semea eta abeltzaina da 'El conquistador del fin del mundo' saioaren azken edizioko irabazlea, marka hori lortzen duen lehen nafarra | TXOMIN MADINA

# "Etxean jan nuen lehenengo gauza untxia labean izan zen"

**1. Oskar Sanz, munduaren azkeneko konkistatzailea. Zenbat kostatu zaizu sinestea?**
Oraindik ere ez dut sinetsi. Ez naiz kontziente lortu dudanaz: hain jende prestatua eta kirolaria ikusita, nekazari bat etorri eta irabaztea...

**2. Egia da amari ere ez zeniola esan zeu zinela irabazlea?**
Ez amari, ez anaiari, ez lagunik onenari... inori ez. Saioa intentsitatearekin bizi zezatela nahi nuen: pelikularen amaiera kontatzen baduzu, ez ikustea bezala da. Lehenengo egunetan kostatu egin zitzaidan ezer ere ez esatea, gero ez.

**3. "Seguru ez dela hain gogorra". Hori dioenari, zer?**
Iaz gauza bera nioela, eta aurten egiaztatu dudala baietz: hamar kilo galdu ditut; azkenean, azala kartoia bezala nuen, ezin nintzen zutitu, mareatu egin nintzen... Azken bi egunak izan ziren okerrenak.

**4. Eta egoera horretan nola egin aurrera?**
Familiakoen eskutitzak jasotzean asko animatu nintzen. Horixe izan zen momentu onena; ikurrina hartzea baino hobea.

**5. Telebistan, han pasatzen denaren zatitxo bat ikusten dugu. Zer gertatzen da beste orduetan?**
Sekulako aspertzea, itxarotea amaigabea egiten da. Animaliendako tranpak egiten, elkarri penak kontatzen edo itzalean etzanda ematen genituen ordu horiek.



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

#### "Zoriontasuna mundu guztiarendako"

" Niretzako zoriontasuna da gauzarik garrantzitsuena eta makila magikoarekin mundu guztiari zoriontasuna emango nioke; baita ametsak gauzatzea ere ".

**6. Asko oroitu zinen etxeko ganaduaz?**
Bai; neure buruari galdetzen nion ea ondo egiten zebiltzan. Nire negozioa da; bizi osoa horretarako lanean nabil. Lan ona egin zuten.

**7. Eta zenbat kostatu zitzaizun galdutako pisua berriz hartzea?**
Pare bat hilabete bai. Etxean jan nuen lehenengo gauza untxia labean izan zen, okin erara prestatutako patatekin; osorik jan nuen, eta ogiarekin bustita. Nik eskatu gabe prestatuta zuten.

**8. Ez duzu ukatu lehiakorra zarela.**
Ez, normala ikusten dut eta ondo iruditzen zait. Ni lehiatzera joan naiz: saioa eroan dut, baita 28rekin sekulako adiskidetasuna ere. Ez nuke ezer aldatuko.

**9. Lehiakortasuna eta adiskidetasuna ez dira bateraezinak, beraz.**
Inondik inora. Ikuslearen ikuspuntutik akaso bai, niretik, ez; ez dut kide batekin ere inongo gaizki-ulerturik izan. Oso lagun onak egin ditut; adiskidetasun handiena Joxerekin egin dut, alde handiarekin. Urrea balio duen pertsona da.

**10. Nola daroazu bat-bateko fama?**
Gaizki, zoramena da; elkarrizketak eta... Kalean askok geratzen naute, argazkiak eskatzen dizkidate... Ez nuen pentsatzen hainbesterako izango zenik, ahal dudan moduan daroat.

## BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



### Kondaira eta koherentzia

San Joan, suari eta kondairari lotutako hainbat sinesmenen gaua da, bereziki Mariren kondairari lotua. Aramaioko arbasoen sinesmenean, Mari eta bere alaba Anbotoko leize-zuloan bizi ziren eta San Joan gauez leizetik irteten ziren.

Baina nolakoa da Mari? Inguruko herrietan oro har, eskuetan urrezko palazio zeraman dotore jantzitako emakumea bezala aurkezten dute. Eskoriatzan haize bolada bidez jakin arazten dute bere presentzia. Bedoñan etzanda eta suz inguraturik zerua zeharkatzen duen emakumea bezala deskribatzen dute. Oñatin ostera, ahari gainean igotako emakumea.

Marik gezurra, lapurreta, harrotasuna, handiustea, emandako hitza ez betetzea, elkar laguntza eta pertsonei zor diegun errespetuari huts egitea gaitzesten du. Behar gehien dutenei gezurretan, lapurretan eta harrotasunean dihardutenak zigortzen ditu, ezbairik gabe. Eta zer diren ukatu eta zer ez diren baieztatzen duten horiek zigortzetik aberasten da Mari. Atsotitzak dion bezala: "Ezai emana, ezak eraman ".

Ondo igaro eskualdeko hainbat herrietako jaiak eta, erne! zintzoak izan eta Mariren aginduak bete!

